

URTXINTXA 4 URTE

IRAKASLEAREN GIDALIBURUA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

2. hiruhilabetea

5. HANDITZEN, HANDITZEN...

Gaia: gorputza
Iraupena: urtarrila

Sarrera



Unitateko PROIEKTUA: gure gorputzaren horma-irudia

Horma-irudiak gure gorputzaren kanpoko itxura erakusteaz gain, pertsonengan ikusten ez diren hainbat gauza ikasiko ditugu.



Proiekturako proposatutako sekuentzia didaktikoak:

1. Neska eta mutilen gorputz-atalak.
2. Gorputzean ikusten ez diren hainbat gauza (zentzumenak, sentimenduak).

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa:

- Abiapuntua (nondik hasi garen eta zergatik).
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan taldeek eta abarrek ondo funtzionatu duten, ala aldaketaren bat egin behar den hurrengo saio baterako
- Sekuentziaren garapenean izan diren harremanei (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrerari behatu.



Ikasturteko proiektua: gelako aldizkaria

Landu ditugun sekuentzia didaktikoei buruzko informazioarekin, aldizkaria osatuko dugu.

Ikusi 2. unitatean ematen ditugun azalpenak.

Ipuinen hasiera eta bukaera posiblea, bigarren hiruhilabeterako:

Ipuinetarako beste hasiera bat eta beste bukaera bat proposatzen ditugu, hiruhilabete honetan kontaktzen diren ipuinetan erabiltzeko:

Hasiera: "Orain urte asko..."

Bukaera: "...egia ala gezurra begi bien artean sudurra"

HASIERAKOAK

1. Horma-irudia: gorputzarekin jolasean

Helburu didaktikoak: I.9, II.1-10-11-12-15, III.2(H)-5(H)-13(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Materiala: Horma-irudia

Horma-irudiaren aurrean jartzean, IKUSI MAKUSI jolasa egitea proposatzen dugu. Jolas horren bitartez, jardueraren hasiera eta kokapena lortuko dugu.

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarritzko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA.
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Haurren ezagutzatik abiatu zara?
- Denbora eman diezu haurrei pentsatzeko?
- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka KOGNITIBOAK

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

OHARRA: Elkarrizketa egitean, hainbat haurren aldetik zaila izaten da erantzuna jasotzea hizkuntzaren muga edo garapen-maila dela eta. Arazo horri aurre egiteko, galdera bati bi erantzun posible ematea izan daiteke estrategia.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

-Barazki-plateraren aurrean sudurra tapatzen duen haurrari, zer gertatzen zaio?

a) Sudurra erre du janaria bero dagoelako.

b) Barazkia ez zaizkiola gustatzen.

Horma-irudian azaltzen diren elementuen inguruan, Tough-en hizkuntza-funtzioen 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak aktibatzen saiatuko da hezitzailea. Funtzio asko direnez, hainbat saiotan lantzea aholkatzen dugu, edota horma-irudien elementu egokienak aukeratzea.

Ikusi TOUGH-en hizkuntza-funtzioen sailkapena.

2. Tradiziozko kanta: *Xoxoak galdu du mokoa*

Helburu didaktikoak: I.13, II.9, III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: 5. CDa, 3. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

XOXOAK GALDU DU MOKOA

Xoxoak galdu du mokoa,
mokoa, xoxoa gaixoak.
Nola kanta, nola txirula,
nola kanta xoxoak?

Xoxoak galdu du begia,
begia, mokoa, gaixoak.
Nola kanta...

Xoxoak galdu du sudurra,
sudurra, begia, mokoa, gaixoak.
Nola kanta...

Xoxoak galdu du burua,
burua, sudurra, begia, mokoa, gaixoak.
Nola kanta...

3. Ikasnorabideak: osotasunean zatiak bereizi

Helburu didaktikoak: AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: GUZTIAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Materiala: 1. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Txirritx kilkerraren azalpenak:

Kaixo, lagunok!

Zer moduz pasa dituzue Gabonetako oporrak? Olentzero ondo portatu al da? Bai, ezta?

Aizue! Festa hauetan turroi eta mazapan asko jan duzue, e? Ui, ui, ui! Olentzero tripontziaren antza hartu nahi duzue, ala? Olentzerori buru handia, sudur luzea, tripa handia... deitzen diogu. Zuek ere buru handia, sudur luzea, tripa handia... al daukazue? Ez dut uste!

Datozen egun hauetan, zuen gorputza gehiago ezagutuko duzue. Ea bada:

- 1. Hasteko, gezurrak esaten dituenengan gorputzaren zatiak handitzen zaizkion neskato baten IPUINA entzungo dugu. Eta ipuinarekin zerikusia duten olerkiak, igarkizunak, abestiak eta jolasak ikasiko ditugu.*
- 2. Gure gorputzaren atalak zein diren ikusiko dugu.*
- 3. Horren ostean, gure gorputza barrutik nolakoa den ikasteko hainbat proposamen: pertsonak dauzkagun oinarrizko sentimenduak eta sentimendu horien sententzioak **bost zentzumenak** (usaimena, dastamena, ukimena, ikusmena eta entzumena)
*Ikasitako guztiarekin, neska baten eta mutil baten horma-irudiak osatuko ditugu**
- 4. Bukatzeko, gorputzari buruz zer edo zer gehiago ikasi nahi baduzue, irakasleari esan eta berak lagunduko dizue.*

Prest al zaudete ipuina sudurrarekin entzuteko? Edo nahiago al duzue ipuina belarriekin ikusi? Ja, ja, ja! Bai, bai, badakit konturatu zaretela! Laster arte lagunak.

Txirritx

4. Antzeppen kolektiboa: Inurria eta txirrita

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-12(H)-13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinaren antzeppen kolektiboan sartu aurretik, komeni da ipuinaren sarrera bat egitea. Hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatu, eta kontaktetan zehar izango duten ibilbideari buruzko hipotesiak formulatu galderen bitartez. Bestetik, antzeppen kolektiboan dauden arauak gogoratuko ditugu. (Jarduera hau hiru egunetan jarraian egitea proposatzen dugu).

Ikusi Jarduera konstanteak: antzeppen kolektiboa (ipuin dramatizatua).

MARI KANELA

	Behin batean, bazen Mari Kanela izeneko neska bihurri bat. Gezurrak barra-barra esaten zituen. Egun batean, sukaldeko txokolate guztia jan zuen, eta amatxok esan zion:
	Aizu, Mari Kanela. Zuk jan al duzu almendrazko txokolate guztia?
	Nik ez! Nik ez dut jan, ama!
	Baina armairutik falta da!
	Ezetz esan dizut, ama. Nik ez dut jan!
	Baina, baina, baina... Hara! Orain ere gezurra esan duzu. Sudurra hazi zaizu! Azenario handi bat dirudi.
	Ba... Ni izan naiz... ni neu izan naiz. Neuk jan dut txokolate guztia.
	Eta egia esan zuenez, sudurra lehen bezalaxe jarri zitzaion. Hurrengo egunean, ikastolara zihoala, txoritxo batzuk ikusi zituen zuhaitz baten adar puntan.
	Txio-txio-txio...
	Hara! Txoritxo batzuk! Harrapatuko zaituztet! Kaka zaharra! Hau putzu zikina! Zapatak zikindu zaizkit! Ene! Zer berandu den! Ikastolara joan behar dut!
	Ikastolan andereño Mari Petral bere zain zegoen, haserre.
	Egunon, andereño. Barkatu baina...
	Zergatik etorri zara hain berandu? Erantzun, Mari Kanela!
	Ba, ba... amatxorekin sendagilearengana joan naizelako.
	Aizu, niri ez esan gezurrik gero!
	Gezurrik? Zergatik diozu hori? Nik ez dizut gezurrik esan.

	Nola ezetz! Begira ezazu zure burua! Kalabaza bat adina hazi zaizu!
<i>Harriduraz bere burua ukitzen</i>	Nire burua??
	Aizu, eta nolatan zatoz hain oinetako zikinekin?
	Ba, ba... gaur goizean amak garbitu ez dizkidalako.
	Berriro gezurretan ari zara!
	Eta gezurra esan ahala, erraldoi bihurtu zen Mari Kanela. Andereñoa beldurtu egin zen.
<i>Andereñoa gora begira beldurtuta.</i>	Baina, baina, zer gertatzen zaizu Mari Kanela?
	Ba, ba, zuri beldur handia dizudala. Beti petralduta zaudelako. Eta horregatik gezurrak esan dizkizut.
	Eta Mari Kanelak egia esan zuenean, txikitu egin zitzaizkion eskuak, eta burua, eta gorputz osoa.
	Ufa! Burua txikitu zait! Eta eskuak! Eta baita gorputza ere! Lehen bezalakoa naiz! Eskerrak! Hemendik aurrera ez dut gezur gehiagorik esango.
	Eta nik ez dizut arrazoirik gabe errietarik egingo.
	<i>Eta hala bazan ez bazan, sar dadila kalabazan...</i>

IPUINA AITZAKIA

5. Ipuinaren abestia

Helburu didaktikoak: III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 4. CDa, 2. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

MARI KANELA

Mari Kanelak zer esan du?
 Gezurra!
 Hazi zaio zortzi metroko
 sudurra!
 Dirudiena, dirudiena

3. ZEHAZTAPEN MAILA

txerri muturra.
Urra, urra, urra,
bost kiloko gezurra.

Andereñoa gaur daukagu
petrala!
Errietak egiten ditu
itzelak!
Gorri-gorri ikusten zaio
lepoko azala.
Urra, urra, urra,
bost kiloko gezurra.

6. Ipuinaren elkarrizketa-jolasa atzamarrekin

Helburu didaktikoak: III.1(H)-12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: binaka

Materiala: TXOTXONGILOAK (MATERIAL OSAGARRIA)

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Atzamar-jolasean egiteko bi elkarrizketa labur proposatzen ditugu, ipuin dramatizatuarekin lotura dutenak. Zuen aldetik beste batzuk sortzera gonbidatzen zaituztegu.

1

<i>Haur guztiak elkarrekin hezitzailearen laguntzarekin</i>	Behin batean, bazen Mari Kanela izeneko neska bihurri bat. Gezurrak barra-barra esaten zituen. Egun batean, sukaldeko txokolate guztia jan zuen, eta amatxok esan zion:
	Aizu, Mari Kanela. Zuk jan al duzu almendrazko txokolate guztia?
	Nik ez! Nik ez dut jan, ama!
	Baina armairutik falta da.
	Ezetz esan dizut, ama. Nik ez dut jan!!!
	Baina, baina, baina... Hara! Orain ere gezurra esan duzu. Sudurra hazi zaizu! Azenario handi bat dirudi.
	Ba... Ni izan naiz... ni neu izan naiz. Neuk jan dut txokolate guztia.

2

Haur guztiak elkarrekin hezitzailearen laguntzarekin	Ikastolan andereño Mari Petral bere zain zegoen, haserre.
	Egunon, andereño. Barkatu baina...
	Zergatik etorri zara hain berandu? Erantzun, Mari Kanela!
	Ba, ba... amatxorekin sendagilearengana joan naizelako.
	Aizu, niri ez esan gezurrik gero!
	Gezurrik? Zergatik diozu hori? Nik ez dizut gezurrik esan.
	Nola ezetz! Begira ezazu zure burua! Kalabaza bat adina hazi zaizu!
	Nire burua?
	Aizu, eta nolatan zatoz hain oinetako zikinekin?
	Ba, ba... gaur goizean amak garbitu ez dizkidalako.
	Berriro gezurretan ari zara!

Bigarren elkarrizketa luzeegia gertatzen bada, labur dezakegu eta "Nola ezetz! Begira ezazu zure burua" esaldiarekin bukatu.

7. Elkarrizketa-jolasa eguneroko bizitzarekin lotu

Helburu didaktikoak: I.5(H), II.4-5, III.4(H)-5(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aurreko jardueran egoera bat antzeztu dute eta egoera horrek ipuinaren zati bat adierazten du. Oraingoan, ariketa haurren bizitzari hurbiltzea izango da helburua. Horretarako, antzeko egoerak bilatuko ditugu, gure errealitateko gatazkak sartuz eta gure izenak erabiliz.

8. Elkarrizketa. Zehar-lerroa: pertsonen arteko harremanak

Helburu didaktikoak: I.5(H), II.4-5, III.4(H)-.5(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: IPUINAREN LAMINAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- *Mari Kanelaren ipuina entzun dugu. Zer iruditu zaizue? Polita, ezta?*
- *Agertzen den pertsonaia nolakoa da zuen ustez?*
- *Mari Kanela, bihurri eta gezurti samarra zen, ezta?*
- *Zer gertatzen zitzaion Mari Kanelari gezurra esaten zuenean?*
- *Eta zuek, gezurrik esaten al duzue? Ez? Ziur al zaudete?*
- *Ea, ea... zeinek esaten du batzuetan gezurren bat?*
- *Eta zuei ere luzatzen al zaizue sudurra?*
- *Eta gorputzaren atalen bat handitzen al zaizue?*
- *Zer egingo zenukete, gezur bat esan ondoren, belarriak handituko balitzaizkizue?*
- *Zer pentsatzen dute ingurukoek beti gezurretan dabilenari buruz? Nola deitzen diote? Egia esaten duenean sinetsiko al diote?*
- *Ezagutzen al duzue beste ipuinik protagonistari gezurrak esateagatik gorputz-atalen bat handitzen zaionik? Nola du izena? Inork kontatuko al digu?*

9. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15(H), II.17(MAT)-23(MAT), III.1(H)-8(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Elurra beltz
eta ikatza zuri.
Odola berde
porrua gorri.

Egia gezur
gezurra egi...
Metro bateko sudurra
hazi zait niri.

Joxan Ormazabal

- Zenbat gezur aurki ditzakegu olerki honetan? Buruz ikasten saiatuko gara (edo poliki-poliki entzungo dugu berriro) eta, gezurra esaten dugunean, apuntatu egingo dugu arbelean: 1. elurra beltz, 2. ikatza zuri, 3. odola berde...

- Zenbat kolore-izen entzun ditugu?

- Eta gorputzarekin zerikusia duten izenak? Ea zein diren...

Arbelean jarraituz, bi ezaugarriak idatz ditzakegu: *koloreak* eta *gorputz-atalak*. Eta horien azpian idatziko ditugu azaltzen zaizkigun koloreak eta gorputz-atalak.

- Nahi al duzue guztion artean gezurrez beteriko olerki bat asmatzea? Gutxienez sei gezur beharko ditugu. Esan aurretik, ondo-ondo pentsatu, ea olerki barregarri bat ateratzen zaigun.

10. Esaera zaharrak

Helburu didaktikoak: II.9, III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- *Mari Kanelaren sudurra luze-luzea bihurtzen zen gezurren bat esaten zuenean. Zer uste duzue esan nahiko duela esaera zahar honek?*

Sudur luzeak urrundik usaintzen. (*Gotzon Garate, Atsotitzak*)

11. Pertsonaiak: Mari Kanela. Memoria-jolasa

Helburu didaktikoak: I.12-13, II.4-5-.23(MAT), III.8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: binaka
Materiala: PERTSONAIEN TXARTELAK (MATERIAL OSAGARRIA)
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Beste unitateetako pertsonaien txartelak erabiliz, irudiak eta izen idatziak erlazionatuko dituzte.

Pertsonaien izenekin konparazioak egingo dituzte (zer letra duten komunean...) eta hainbat irizpideren arabera sailkatuko dituzte (izen luzeak, izen motzak, letra jakin batez hasten direnak...).

Bestalde, letra mugikorrek ahaleginduko dira *Mari Kanelaren* edo beste ipuinetako pertsonaien izenak eraikitzen, bai eta norberaren izena, lagunenak... Horretarako, jardueran parte hartzea animatzen diren haurrak binaka jarriko ditugu, letra mugikorrek banatuko dizkiegu eta saiakerak egiteko denbora emango diegu. Egiten diren ekarpenak parte hartzen dutenekin konpartitzea eta, dagokionean, osatzea, interesgarria litzateke.

12. Pertsonaiaren horma-irudia

Helburu didaktikoak: I.11, II.4, III.8(H)-9(H)-17(PLAS)-19(PLAS)-20(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: PERTSONAIAREN (MATERIAL OSAGARRIA), PAPER HANDIA, MARGOAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Unitate honetako pertsonaiaren horma-irudia egiteko, collagearen teknika erabiltzea proposatzen dugu.

Gidan agertzen den Mari Kanelaren zuri-beltzeko marrazkia erabil daiteke, proiektore batez handituz eta orri handi batean kopiatuz. Haurrekin batera zer kolore eman behar diogun erabaki ondoren, kolore horietako papertxoak hartuko ditugu, guraizez edo eskuz moztu (ez oso txikiak), eta itsatsi egingo ditugu. Ea zer moduz gelditzen zaizuen!

Beti bezala, aldamenean Mari Kanela izena idatziko dugu.

13. Hurrek egindako ipuina

Helburu didaktikoak: I.11, II.4, III.7(H)-8(H)-9(H)-11(H)-12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Materiala: 2. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Bi fitxa hauetan, hurrek ipuinaren lehen pasartearen bertsio pertsonala egingo dute. Fitxak banaka eman beharrean, komeni da aurretik hezitzaileak egitea liburuxkaren muntaia.

Jarduera egiteko, denbora ondo neurtu beharko dugu. Horrelako lan batean hurrek egin behar duten esfortzua kontuan hartuta, amaren zatia beteta ematen dugu.

- Idazten hasi aurretik, **aurrezagutzak aktibatu:** talde handian, gogoratu ipuinaren pasarte Mari Kanelak esaten dituen gezurrak gogoratzeko. Haurren bizitzarekin erlazionatu ditugun pasarteak gogora ekar ditzakegu, idatzi aurretik.
- **Testua planifikatu:** binaka jarrita, elkarrizketa-jolasaren bitartez, Mari Kanelak zer gezur esango duen pentsatzeko denbora emango diegu. Pentsatzeko denbora eman ondoren, berriro talde handian, pentsatutakoa antzez dezakete, binaka jarrita; horrela, ekarpenak jasoko ditugu.
- **Testualizazioa:** banaka lan egin aurretik, kolektiboki egingo dugu. Horretarako, handituko ditugu egoeraren pasarteak eta bolondresak ateratzen joango dira, beti

taldeari laguntza eta osatzeko ahaleginak eskatuz. Denen artean osatu ondoren, bakoitzak berea idatziko du.

- Atsedeen baten ondoren, **berrikusi**: denek bukatu ondoren, talde handian elkartuko gara, egindako lana taldekoekin partekatzeko. Egindako ipuinaren pasartea etxera eramango dute, gurasoei "irakurtzeko".

Oharra: Mari Kanelaren hitzekin egin dugun bezala, amaren zatia ere bete daiteke, Mari Kanelaren erantzunak emanda, eta amak zer esango duen pentsatuz.

14. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.11-15, III.1(H)-15(H)-17(PLAS)-21(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

– *Ipuinean agertzen den Mari Kanela bihurria dela ezin uka! Entzun ondo-ondo Juan Kruz Igerabidek neskatxa bihurriei egindako olerkia, ea gustatzen zaizuen.*

Neskatxa bihurriak
goxokiz apaintzen ditu
belarriak.
Neskatxa kuttunak
goxokiz eginik dauzka
lepoko idunak.

Neskatxa gona gorrikoak gozokiz lotzen ditu
gerrikoak
Eta zergatik? Eta zertarako?
Maite duen mutila
goxokijale amaratua delako.

J.K. Igerabide

Olerkia entzun ondoren, beren buruan neskatxa horren imajina irudika dezatela eskatuko diegu haurrei. Jarraian, irudikatutakoa paperean islatzeko aukera emango diegu. Jarduera hau "gozatu" nahi badugu, goxoki-papera eskura ditzakegu eta horiek itsatsiz osa dezakete irudia.

15. Txoriak harrapatzen

Helburu didaktikoak: I.11, II.21(MAT)-23(MAT)-25(MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Materiala: 3. FITXA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinean entzun dugun bezala, Mari Kanelak, ikastolara zihoala, txori batzuk ikusi zituen zuhaitz baten adarretan txorrotxioka kantari. Txori guztiak zenbatu, eta zenbat dauden idatziko dute.

Horrez gain, hainbat galdera egin diezaiekegu:

–*Zenbat habia daude?*

–*Habia guztietan txori kopuru bera al dago? Non daude gehien? Eta gutxien?*

–*Zenbat lore daude? Zer daude gehiago, loreak ala txoriak?*

–*Non dago Mari Kanela? Eta nola dago Txirritx? Zuei gustatzen al zaizue zuhaitz adarretan jolastea?*

16. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: II.3, III.1(H)-2(H)-13(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Mari Kanela, txoriak harrapatu nahian zebilela, putzu-zuloan sartu eta... Igarkizun hau entzun ondoren, asmatuko al duzue zer zikindu zitzaion?*

Tirriki tarraka

beti arrastaka.

Bi adiskide gara

zuk min ez hartzeko

gure gainean jartzen zara

eta bazterrean uzten gaituzu

joaterakoan lotara.

Zein gara?

(zapatak)

Leize zuloan bi ate

Biak daude parez pare

Hor euri, hortxe haize,

Hor lokatz berde-berde

(sudurra)

17. Mari kanela gezurtia

Helburu didaktikoak: III.1(H)-4(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gaiak aukera ematen digu ikasturte hasieran ikasi genuen Koxmeri buruzko olerkitxoaren errepasatzeko.

– *Gogoratzen al zarete Koxme gezurtiak nolako erantzunak ematen zituen? Bada, Mari Kanelak ere berdinak ematen ditu! Entzun, entzun!*

–Nola duk izena?

–**Ipurdi gizena.**

–Hi!

–**Hi ta ni, bi!**

–Inuxente!

–**Zakurraren buztana tente!**

–Gero?

–**Hotz ez dena bero!**

–Nongoa haiz?

–**Joan da bertakoa!**

18. Gezurra ala egia

Helburu didaktikoak: II.24(MAT), III.1(H)-4(H)-12(H)-13(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Birpasatu berri dugun olerkiarekin batera, asmatzen genituen esaldiak gezurra ala egia ziren adierazteko leloak ere gogora ditzakegu.

Jarduera hau berriz egiten animatzen bazarete, haurrek esaldiak asmatzeko duten denbora mugatuko dugu; hamarretik zerora kontatuko dugu. Zerora iristean, tokatzen zaion haurrak esaldia esango du.

–*Orain, ikasturte hasieran egin genuen jolasa gogoratuko dugu. Bakoitzak esaldi bat asmatuko du. Egia bada, "bai, bai..." leloa errezitatuko dugu, eta gezurra bada, "ez, ez..." leloa.*

–*Esaldia musika entzuten dugun bitartean pentsatu beharko duzue. Listo? (Jolas bera bikoteka egin dezakegu, ikusten badugu bakarrik ez direla ausartzen).*

Musika goxo bat jarriko dugu, eta, musika entzuten den bitartean, pentsatzeko behar den denbora emango diegu; musika gelditzean, jarduerarekin hasiko gara

3. ZEHAZTAPEN MAILA

“Ez, ez eta ez,
gezurrik ez mesedez,
hori ez da egia,
eta isil zaitez faborez”

Bai, bai eta bai,
Egia da benetan,
Txintxo ari zara,
oraingo honetan.

19. Abestia: aurpegia

Helburu didaktikoak: I.1-6, III.1(H)-14(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 4. CDa, 7. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Mari Petral andereñoak beti haserre aurpegia izaten zuen eta beti kopetilun egoten zen. Baina zuek, normalean, pozik egoten zarete, ezta? Horixe baietz!*

–*Bada, esaera zahar batek dioenez, aurpegia bihotzaren ispilua omen da; aurpegia nolakoa, bihotza halakoa!*

–*Ba al dakizue mimo pixka bat egiten? Ea, jar zaitezte kopetilun! Ene Maria eta Jexux, nolako aurpegiak jarri dituzuen! Eta, orain, poz-pozik! Uau, oso ondo egiten duzue!*

–*Abestuko al dugu denon artean aurpegiaren abesti polit bat aurpegiaren keinuak aldatuz?*

AURPEGIA

Aurpegia, aurpegia,
bihotzaren irudia.
Aurpegia, aurpegia,
bihotzaren irudia.

A! A! Bihotzaren irudia.

Poz-pozik daukat bihotza,
kantatzeko nago lotsaz,
minberaz daukat tripotxa.

A! A! Bihotzaren irudia.

Beldurtu naiz ilunpean.
Haserre nago etxean.
Nekatu naiz jolasean.

A! A! Bihotzaren irudia.

Pentsatzen nago pentsatzen,
barrez ari gara lehertzen,
negarrez hasiko banintzen.

A! A! Bihotzaren irudia.

Kezkaturik nago zure zain.
Nazkaz bete zaigu Unai.
Asko maite zaitugu, bai.

A! A! Bihotzaren irudia.

20. Zer falta da mari petral andereñoen aurpegian?

Helburu didaktikoak: I.1-7-11
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH / B
Materiala: 4. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hurrek aurpegiak osatu beharko dituzte, ondo behatu ondoren, bakoitzari falta zaiona marraztuz.

–Ikusten al dituzue Mari Petral andereñoaren aurpegiak? Denak berdinak direla dirudi, baina konturatu al zarete zer gertatzen den? Begira iezaiezue ondo-ondo aurpegi guztiei, eta ea nork asmatzen duen zer gertatzen den. Oso ondo! Marrazki batzuetan aurpegiko atal batzuk falta dira. Ikusiko al ditugu banan-banan? Ea, goikoetatik hasiko gara!

Bakoitzak falta duena ahoz adieraziko dute eta, ondoren, bakarka osatuko dute fitxa.

–Osatuko al dituzue denak? Lasai-lasai eta ondo behatuz egin ezazue lana.



Gorputzaren horma-irudia

Ezertan hasi aurretik, hurrekin gaiaren inguruko elkarrizketa egitea proposatzen dugu. Elkarrizketa horretan idatziko dugu zer dakigun nesken eta mutilen gorputzari buruz eta zer jakin nahi dugun.

Ideien zaparrada egitea proposatzen dugu.

Gorputza kanpotik: dakiguna / jakin nahi duguna	Gorputza barrutik: dakiguna / jakin nahi duguna
...	...
...	...-



Gorputzeko atalak

HASIERA

Elkarrizketan gorputzaren kanpoko atal batzuk aipatu ditugu, baita ikasi nahi dugun zerbait ere.

21. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: I.1, III.1(H)-2(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Beti bezala, hiztegi-txartelak erabil ditzakegu haurrek igarkizunak (deskribapenen bidez) sor ditzaten.

Hiztegian artikulazioekin erlazioa duten atal batzuk ditugu (ukondoa, belauna), eta, horietaz baliatuz, artikulazioen beharraz hitz egin dezakegu. Artikulaziorik edukiko ez bagenu bezala ibil gaitezke (roboten modura) eta gorputzean ditugun hainbat artikulazio ezagutu (eskumuturra, hatzetako artikulazioak, gerria, lepoa...).

–*Nola hartuko genituzke gauzak eskuan artikulaziorik ez bagenu? Eta idatzi? Eta marrazkiak egin? Eta atea zabaldu? (Frogak egin.)*

–*Nola ibiliko ginateke belauna zurruna balitz? Eta bizikletaz?*

–*Eta nola egingo genuke kaka gerririk ez bagenu? Eta gora begiratu?*

–*Ea, non ditugu artikulazioak? (Zerrendatu eta, nahi bada, zenbatu eta idatzi).*

Ezetz asmatu
hortzen garajea
Zein den?

(ahoa)

Eta lepoari beti erantsita
eramaten dugun baloia?

(burua)

Eta gorputzaren garabiak?

(besoak)

–*Horiek errazak ziren. Ea zeinek asmatzen duen hurrengoa...*

Zer da, zer da,
letrak (bokalak) hainbat hatz dituena?

(eskua)

Joxan Ormazabal

22. Esaera zaharra

Helburu didaktikoak: II.9(I), III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Gorputzaren atalen inguruan esaera zahar asko daude. Entzun al diezue aitona-amonei horrelakoren bat?*

“Aho bat, bi belarri; gutti mintza, anitz adi.”
“Begi guztiek ez dute berdin ikusten.”
“Bi begiak baino gehiago ikusten dute lauk.”
Gotzon Garate, *Atsotitzak*

–*Zer uste duzue esan nahi dutela?*

23. Artelana. Zehar lerroa: sexu-heziketa

Helburu didaktikoak: I.1-2-3-11, III.16(H)-17(PLAS)-18(PLAS)-19(PLAS)-20(PLAS)-21(PLAS)-22(PLAS)-23(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/Binaka
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Bi eskultura hauek neoklasikoak dira, Bertel Thorvaldsen eskultore daniarrarenak. Gizonezkoa *Jason* dugu, eta emakumezkoa *Venus*. Artelanari behatu ondoren, gure gorputzei buruzko elkarrizketa planteatu dezakegu berriro. Iaz gai hau landu genuenean bezala, ikasle guztien gorputzarekiko alderdi positiboak azpimarratuko ditugu, besteen ezaugarriekiko errespetu eta onarpen jarrerak indartuz.

–*Zer ikusten duzue irudi hauetan?*

–*Zer dira, marrazkiak, margoak ala eskulturak?*

–*Nola daude biak? (biluzik)*

–*Berdinak al dira gizonezkoa eta emakumezkoa?*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

–Zertan dira desberdinak? Zertan berdinak?

–Gelako mutilek ba al duzue/dute Jasonen antzik?

–Eta neskek Venusen antzik?

–Emakume guztiak berdinak al gara/dira?

–Eta gizonezko guztiak?

–Erraza iruditzen al zaizue halako eskultura bat egitea?

–Begira nola eraiki zuen Migel Anjelek Dabid-en irudia. Zer iruditzen zaizue?

(Ikusarazi hurrei giza gorputz horren eraikuntzaren perfekzioa, atal guztiak, gihar guztiak... zein ederki eginda dauden).

–Begira orain pintura hau, Goyaren “Maja biluzia”. Zer iruditzen zaizue?

(Gure hasierako asmoa fitxan Migel Anjelen “Dabid” eta Goyaren “Maja biluzia” azaltzea zen. Baina fitxaren neurriek irudiak dagokien tamainan eta kalitatez jasotzea eragozten zigutenez, arte-lanez aldatu dugu. Nolanahi ere, edozein arte-liburutan aurki ditzakezue aipatutako bi obra horiek; hurrei erakusteak merezi duelakoan gaude.)

Arte-mugimendu guztietan aurki ditzakegu giza gorputzak biluzik. Egokia izan liteke era bateko eta besteko teknika eta estiloko irudiak aurkeztea: historiaurrekoak, egiptoarrak, grekoak, errenazimendukoak, barrokoak, neoklasikoak, errealistak, inpresionistak, garaikideak... Horrela hurrak bere ekoizpena egiterakoan erreferentzia zabalagoa izango du. Beste hainbeste egin dezakegu telebistatik, bideoetatik, argazkietatik... lor ditzakegun irudiekin.

–Eraikiko al dugu guk ere, gure erara, buztinez (edo plastilinaz, paper pastaz) giza gorputz bat biluzik?

Sexua norberak edo hezitzaileak aukeratutako du. Beste hainbeste taldekatzeekin, bakarkako, talde txikiko eta talde handiko lana egin dezakegu.

Eraiki aurretik, gure eta gure lagun(ar)en aurpegiari eta gorputzari behatuko diegu, baina ez ikusmenaren bidez bakarrik, ukimena ere erabiliko dugu:

–Edo, margotuko (marraztuko) al dugu gure erara giza irudi bat biluzik?

Jarduera honek laguntza paregabea emango dio gorputzari buruz egiten ari garen azterketari; kasu honetan, kanpoaldeko azterketa bideratzen ari gara.

Thorvaldsen Bertel. Eskultore danimarkarra (Kopenhage, 1770-1844). Erroman lan egin zuen eta neoklasizismoaren artista nagusietako bat izan zen.

GARAPENA

24. Txoko txuria

Helburu didaktikoak: I.12-15, II.2-3-4, III.16(MAT)-17(MAT)-20(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ETXETIK EKARRITAKOA

PROZEDURA

Egin ohi dugun bezala, etxekoen laguntzarekin Txoko txurian bilduko ditugu gaiarekin lotura daukaten materialek eta ekarpenek.

Hortik ideiak atera ditzakegu gure horma-irudia egiteko.

25. Jolaserako kanta: *O, bugi, bugi*

Helburu didaktikoak: I.1-2-6-9-10-12-13-14-15, II.4-5, III.1(H)-14((H)-30(MUS)-31(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZKEOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 5. CDa, 4. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haur guztiak biribilean jarriko dira aurrekoari sorbaldeetatik helduz. Errepika abestean, biribilean mugitzen hasiko dira, abestiaren erritmoari jarraituz, eta, "Hey" esatean, salto egingo dute. Gorputz-atalen ahapaldiak abestean, denak barrualdera begira jarriko dira biribilean.

O, BUGI, BUGI

O, bugi, bugi, bugi, bai, hey!
O, bugi, bugi, bugi, bai, hey!
O, bugi, bugi, bugi, bai.
Paran-pan, pan, pan, pan, hey!

Hau da nire behatza,
hau da beste behatza,
hau da nire eskua,
hau da beste eskua.

O, bugi, bugi, bugi, bugi, bugi, bai.
Paran-pan, pan, pan, pan, hey!

Hau da nire ukondoa,
hau da beste ukondoa,
hau da nire sorbalda,
hau da beste sorbalda.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

O, bugi...

Hau da nire hanka, hau da ipurdia,
hau da beste hanka, berriz ipurdia.

O, bugi...

Hau da belarri bat,
eta hau da bestea,
burua beheraka,
burua goraka.

O, bugi...

Hau da nire begia,
hau da beste begia,
hau da sudur bakarra,
hau da aho-zuloa.

O, bugi...

26. Horma-irudia: neska-mutilak biluzik

Helburu didaktikoak: I.1-2-3-11, II.3, III.8(H)-9(H)-39(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Unitate honetan proposatzen dugun proiektua gauzatzen hasteko, neskaren eta mutilaren irudiak biluzik marraztuko ditugu. Horretarako, aurreko urtean erabilitako teknika bera proposatzen dugu, alegia, bi haurren (neska eta mutila) siluetak marraztea.

Bi taldeetan banatuko gara; talde batek neskaren marrazkia osatuko du, eta besteak mutikoarena. Osatzen ditugun siluetek kanpoko itxura emango diete gorputzaren azterketaren ondorioz sortuko ditugun neska-mutilaren horma-irudiei.

–Lehenik, neska baten marrazkia egingo dugu. Kanpoaldeko silueta marrazten hasiko gara. Norbaitek nahi al du paper zuri honen gainean etzan, nik bere forma marrazteko?

–Orain, zer marraz dezakegu silueta honen barruan?

–Ondoren, zer egingo dugu?... Oso ondo!

–Orain, zer?...

–Aurpegia ere marraztu egin beharko diogu, ezta? Zer daukagu aurpegian? Bi sudurrak hemen jarriko ditugu, konforme? A, sudur bat besterik ez daukagu, eta hor ez, hor belarriak daude! Eta non jarriko dugu, ba?

–Hau neska izango bada, alua jarri beharko diogu, ez al da hala?

–Eta hau mutila izango bada, zakila...

Aurrerago, siluetako gorputz-atalak izendatu eta idatziko ditugu.

27. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.1-2-11, II.3, III.39(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Olerki honetan agertzen diren gorputz-atal guztiak ez dira kanpoaldekoak (tripa, adibidez, beraz, siluetaren barruan jarri beharko dugu).

Olerkia erabili dezakegu tripa/belauna/ahoa hitzen inguruan hausnarketa txiki bat egiteko.

–Zein jarri beharko dugu siluetaren barnean, eta zein kanpoan?

Txibiripa,
hutsik dauka **tripa**.
Txibiripe,
goseak dago Felipe.
Txibiripi,
korrika doa Pippi.
Txibiripo,
lurrera erori da ziplo.
Txibiripu,
Pipik **belaunean** pupu.

Azkeneko zati hau hautazkoa da.

Eta Felipe?
Ahoa ireki
eta tripa bete.
Txibiripi, txibiripe.

Joxan Ormazabal

28. Erretratua

Helburu didaktikoak: I.1-2-3-11, III.17(PLAS)-18(PLAS)-19(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: B
Materiala: 6. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Lehen hiruhilabetean, 3. gaien (*Etxe poxpolo*), lehenengo autoerretratua eskatu genien haurrei. Orain, hilabete bat pasa denean, gorputza aitzakia hartuta, bigarren erretratua egingo dute; kasu honetan, lagun batena egitea proposatuko diegu. Hezitzaileak bi marrazkien arteko aldea ikusi ahalko du. Ez diegu araurik emango;

3. ZEHAZTAPEN MAILA

soilik bikoteka jarrita, lagunaren marrazkia egin behar dutela, jantzita nahiz biluzik, nahi duten bezala.

Laguntza modura, gogora ekarriko ditugu aurreko jardueretan ikusi ditugun irudiak eta artelanak. Gure bildumari erantsiko dizkiegu plano ezberdinetatik egindako erretratuak eta giza irudien margoak eta argazkiak (plano orokorrak, lehen planoak).

Erretratuak egin ondoren, biribilean eseri eta banan-banan gelako haur bakoitzaren marrazkia ikusiko dugu. Marrazkiak erakustearekin batera, hainbat galdera egin ditzakegu: *Nolakoa da marrazkian agertzen den haurra? Nor izan daiteke? Nola dakigu bera dela? Zer gertatzen zaio?*

29. Zer ari da gertatzen hemen? Zehar lerroa: sexu-heziketa

Helburu didaktikoak: I.1-2-3, II.4, III.16(H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 7. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Fitxa honetako marrazkian ageri den egoera ohikoa izaten da adin honetako haurren artean. Norberaren sexuarekiko identifikazioa hasten da, eta besteek "ezberdina" dutenari so egiten hasten dira. Haurrak bere sexu-organoak aurkitzen ditu eta, horrela, gune erogeno bihurtzen dira. Haurra, batzuetan, horiei eragiten aritzen da.

Haurrak honako gaien inguruan azaldu ohi du sexuarekiko jakin-mina:

- Norberaren gorputzarekiko interesa.
- Besteek gorputzarekiko interesa.
- Gurasoen arteko harremanekiko interesa.
- Haurren sorkuntzari buruzko hipotesiak eraikitzen ditu.

Betiko prozedurari jarraituz, behaketa sistematikoa egingo dugu. Haiek horrela jolasten ote diren galdetu. Non jolasten diren...

–Zertan ari da betaurrekodun haurra? Zer pentsatzen ari ote da?

–Eta galtzak jaitsita dituen mutila? Eta berari begira ari zaion neska?

–Zuek ere horrela ibiltzen al zarete? Non? Ondo pasatzen al duzue?

–Neskek zer dute(gu) zakila ala alua? Eta mutilek?

–Nondik egiten dute pixa mutilek? Eta neskek? Eta nondik kaka?

30. Igarkizunak

Helburu didaktikoak: I.1, III.1(H)-2(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Zabaldu eta itxi
bi leiho txiki,
batzuetan lehor
besteetan busti,
azpian sudurra
gainean bekoki.
Zer dira?

(begiak)

Bata beti gainean
eta bestea bere azpian,
hor daude zure aurpegian
musuka denbora guztian.

(ezpainak)

X. Etxaniz

31. Abestia: *Arkakuso bat han zebilen*

Helburu didaktikoak: I.1-6, III.1(H)-14(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: 4. CDa, 5. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Abesti honen bidez, gorputz-atalak landuko ditugu.

ARKAKUSO BAT HAN ZEBILEN

Arkakuso bat dauka Ainhoak.
Zer?
Arkakuso bat!
Zer?
Arkakuso bat!!
Aah!

Arkakusoak Ainhoari,
ibilian, ibilian,

3. ZEHAZTAPEN MAILA

kili-kili egiten dio
ipurdian, ipurdian.

Arkakuso bat dauka lñigok...

Arkakusoak lñigori,
ibilian, ibilian,
kili-kili egiten dio
sudurrean, sudurrean.

Arkakuso bat dauka Olaiak...

Arkakusoak Olaiari,
ibilian, ibilian
kili-kili egiten dio
kokotsean, kokotsean...

Abestia ikasita dugunean, borragoma zuri bat hartu eta, errotulagailu beltzez, arkakuso baten antzekoa margotuko dugu bertan.

Haurrak biribilean eseriko ditugu eta haur bakoitzak taldeari arkakusoa non daukan esango dio. Ondoren, kantua abestuko dugu, baina haurraren izena sartuz, eta borragoma gorde dueneko gorputz-atalaren izenari egokituz.

–Mikel, non duzu arkakusoa?

–Begian!

Denak abesten:

–Ainhoa, non duzu arkakusoa?

–...

32. Horma-irudiaren lanarekin jarraitu

Helburu didaktikoak: I.1-6, III.1(H)-14(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jadanik eginda dauzkagu biluzik agertzen diren neska eta mutil baten horma-irudiak.

Orain, gorputzaren zatiak izendatuko ditugu eta, horma-irudian, atal bakoitzaren ondoan izena idatziko dugu.

Bi taldetan jarraituko dugu lanean; izendatzen ditugun gorputz-atal guztiak, sexu organoak izan ezik, komunak direnez, bi taldeek batera lan egin dezakete.

Neska-mutilen marrazkiak lurrean jarriko ditugu izenak idatz ditzaten.

Horma-irudian idatziko ditugun gorputz-atalak gogoratzen joango gara. Egun hauetan ikasi ditugun hainbat atalen izenak, elkarrizketan aipatu genituenak, eta momentuan sortzen direnak arbelean idatziko ditugu.

Gorputz baten silueta marraz dezakegu arbelean, denen artean izenak kokatzeko. Ondoren, bi taldeetan egingo dute lana.

33. Abestia: *Apalatxo*

Helburu didaktikoak: I.1-2, III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: 5. CDa, 6. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haurrak biribilean eseriko ditugu.

APALATXO

Apalatxo, apalatxo,
zein ederki, zein ederki!
Apalatxo, apalatxo,
jolasten goizetik.

Eskuak?
Gerritik!
Orain hanka puntatik,
gero belaun gainetik,
lurra (burua) joaz azkenik.

Apalatxo...

34. Hatz eroa

Helburu didaktikoak: I.12-13, II.23 (MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Biribilean eserita gaudenean jolas dezakegu jolas honetara. Hezitzaileak eskuak bizkarraldean jarri eta, antzerkitxoaren eginez (*Ai, ai, nire hatzak erotu dira! Zenbat aterako ditut? Bi, lau... ez, ez bost... Ai, ai!...*), eskua aurrealdera aterako du zenbait

3. ZEHAZTAPEN MAILA

hatz luzatuta. Haurrek ahal duten azkarren asmatu behar dute zenbat hatz aterako dituen.

Ondoren, haurrak izango dira hatzak ateratzen dituztenak; txanda emateko eta hurrengo jolas gidaria izendatzeko, atera den hatz zenbakia erabili dezakegu,.

–Hiru hatz atera dira bat (Ane), bi (Oier) eta hiru... Manexen txanda!

Hasiera batean, esku batekin jolastuko dugu, bost arte landuz. Hezitzaileak ikusiko du noiz hasi bi eskuekin.

35. Horma-irudiaren fondoa

Helburu didaktikoak: I.1-12, II.4-5-7, III.17(PLAS)-18(PLAS)-19(PLAS)-20(PLAS)-24(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: KOLORETAKO TENPERAK, PLATERAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Neska-mutilaren siluetak (idatzi ditugun organoen izenekin) kokatzeko, fondo polit bat egitea proposatzen dizuegu.

Paper zuri handi bat lurrean jarri eta, tenperak erabiliz, eskuak estanpatuko ditugu. Nahi dituzten hatz kopuruekin estanpatzen utziko diegu: hiru hatzeko eskuak, lau hatzekoak... Gure hatzak eta eskuak era desberdinetan estanpatuz, hainbat forma estetiko sortzen saiatuko gara.

Inor animatuko al da oinak estanpatzera?

Jarduera bukatuta, gogorarazi behar zaie eskuak ondo garbitu behar dituztela uraz eta xaboiarekin, eta erabilitako potoak, platerak eta tresnak ere garbitu eta jaso behar direla. Egindako marrazkia lehortzen jarri, eta badaukagu gure horma-irudiaren fondoa!

36. Hatzen abestia/olerkia

Helburu didaktikoak: I.1-15, III1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Behatz, hatz edo eriekin bueltaka gabiltzanez, lehendik ikasitako bi abesti/olerki hauek gogoratuko ditugu.

Honek belarria xulatu,
honek golkoa hazkatu,

honek besapean kili-kili egin,
honek sudur-zuloa miatu,
honek ahoa bete.

Lehenengotxo hori,
punta behatz hori
beste guztien artean
lodia da hori....

37. Gorputzarekin musika egiten

Helburu didaktikoak: I.13, III.26(MUS)-27(MUS)-28(MUS)-29(MUS)-30(MUS)-31(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jolas hau egiteko biko erritmoa duen edozein musika erabil dezakezue. (Era dibertigarrian erritmoa lantzeko oso aproposak dira Iparraldean erraz aurkituko dituzuen bi disko-sorta: **Dance jolie dance** eta **Dances du monde**. Bi bilduma horiek ezin dira zuen ikastolan falta! (Unidisc diskoetxea).

Haur guztiak biribilean eseriko ditugu eta, musika hasten denean, txaloka hasiko gara.

Musika-esaldi bakoitzean gorputz-atala aldatuz joango gara, betiere erritmoa errespetatuz:

- eskuz buruan joka
- masailak puztuta, bi hatzekin kolpatuz eta hotsa atereaz
- izterretan joka
- belarrietatik tiraka
- mingaina atereaz eta sartuz
- ...

38. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: III.1(H)-2(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Hezurrezko etxe ibiltaria,
bi leihoen artean du tximinia.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Aurretik arnasa
atzetik putza,
barrutik ez dago hutsa.
Zer ote da? Zer ote da?

(gorputza)

Joxan Ormazabal

39. Jolaserako kanta: *Korro txirinbolo*

Helburu didaktikoak: I.1-8-9-10-13-14-15, III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: 5. CDa, 8. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Korroan jolasteko proposamena, gorputz-atalak gogoratzeko.

KORRO TXIRINBOLO

Korro txirinbolo,
zein polita den!
Hanka bat, beste bat...
Bira txirinbolo.

Korro txirinbolo,
zein polita den!
Hanka bat, beste bat,
beso bat, beste bat.
Bira txirinbolo.

Korro txirinbolo,
zein polita den!
Hanka bat, beste bat,
beso bat, beste bat,
begia, sudurra.
Bira txirinbolo.

Korro txirinbolo,
zein polita den!
Hanka bat, beste bat,
beso bat, beste bat,
begia, sudurra,
ahoa, burua.
Bira txirinbolo.

40. Gure luzerak neurtuz

Helburu didaktikoak: I.1-2, II.29(MAT)-30(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: Kognitiboak, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Luzerak neurtzeko, ezaguna dugun elementu bat erabiltzea proposatzen dugu: arkatza, Txirritxen irudia... edo bururatzen zaizuen.

Modu horretan, esate baterako, Li neurtzeko 6 aldiz jarri behar izan dugu arkatza, Irati neurtzeko 7, eta Xuban neurtzeko 5. Behin neurria lortu dugula, neurri hori bera duen hari bat moztuko dugu: haur bakoitzak bere haria izango du. Haur bakoitzak bere izena jarriko dio hariari (horretarako, paper txiki batean izena idatz daiteke, eta zeloaz hariari lotu. Hariak lurrian jarri, zinta metriko baten ondoan, eta apuntatu zentimetroak izenaren ondoan.

Ikasturte bukaeran errepikatzen baduzue, konparaketak egin ahalko dituzue. Neurketok eskuak erabiliz (Andonik 5 esku neurtzen ditu), haurrak lurrian etzanda oinak erabiliz, eta baita unitate estandarrak erabiliz ere egin ditzakegu.

Unitate estandarrak erabiliz gero, emaitzen arteko konparaketak lan ditzakegu.

–*Jonek 123 cm neurtzen du.*

–*Garbiñek 126 cm.*

–*Peruk...*

–*Zein da zein baino altuagoa? Eta baxuagoa?*

–*Zein da zenbaki altuagoa, 124 ala 130? 121 ala 118?...*

41. Nire luzera

Helburu didaktikoak: II.25(MAT)-29(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: Tt
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Karpetako zenbaki-txartelak erabiliz, haur bakoitzak bere luzeraren zenbakia osatu beharko du. Ondoren, beraien artean ordenatu beharko dituzte beren luzerak.


Ordenatzeko momentuan, talde txikiak mantentzea komeni da, talde handian denen neurriak ordenatzea nahasiegia gerta litekeelako.

Neurtzeko erabili dugun objektuaz edo bakoitzari eman diogun hariaz baliatuko gara konparazioak bideratzeko

3. ZEHAZTAPEN MAILA

–Anderren haria Imanolena bano luzeagoa da.

–Maialenen haria Mikelena baino luzeagoa eta Anderrena baino motzagoa da...



Gorputza barrutik (ikusten ez dena)

HASIERA

Proiektuaren hasieran sortu genuen taula ekarriko dugu gogora; bertan idatzita genuena gogoratuko dugu eta, ahal dela, osatuko dugu, gorputzaren barrualdeko azterketari ekin aurretik.

Gorputza kanpotik: dakiguna / jakin nahi duguna	Gorputza barrutik: dakiguna / jakin nahi duguna

42. Txiki-txikia abestia gogoratzuz

Helburu didaktikoak: I.1-2-5-6-7, III.1(H)-14(H)-15(H)-16(MUS)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Horma-irudiko gorputza barrualdetik nola beteko dugun erabakitzen dugun bitartean, zentzumenen aipamena egingo dugu. Aipamena egiteko, egokia iruditzen zaigu *Txiki txikia* kantua abestea.

ahoa dastatzeko,
sudurra usaintzeko...
bi begi ikusteko,
bi belarri entzuteko...
eskuak ukitzeko...

–Hori da abestiak dioena, baina zuek ez al duzue, bada, sudurretik entzuten? Ez? Nondik entzuten duzue, bada?

–Eta ikusi, sudurrarekin ikusten al duzue? Begiekin?...

GARAPENA

43. Zentzumenak erlazionatu/diskriminatu

Helburu didaktikoak: III.26(MAT)-30(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: 8. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Fitxa honetan belarria, begia eta sudurra ageri dira, eta, horien lerro berean, entzumena, ikusmena eta usaimena adierazten duten hainbat marrazki. Lerro bakoitzean, zentzumen horrekin lotura ez duen marrazkia aurkitu beharko dute hurrek.

–Begira iezaiozue patxadaz fitxa honi, eta esan, zuen ustez, zer den Txirritx esaten ari zaiguna. Irakurriko al dut ea asmatu dugun ikusteko? Beno, orain badakizue zer egin behar duzuen, ezta?

Adierazpenean lotura logikoak eta koantifikatzaileak erabili: *irudi BAT EZ dago zentzumen horrekin erlazionaturik; beste irudi GUZTIAK erlazionaturik daude...*

44. Tzunpatzun soinuak entzun

Helburu didaktikoak: I.7, II.4-9, III.28(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: B
Materiala: 9. FITXA, 5. CDa, 10. ABETSIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Musika CDan bost euskal musika-tresnaren soinuak grabatu ditugu. Hurrek bizpahiru aldiz entzutea proposatzen dugu: lehenik, irudiak ikusi gabe, eta bigarrenik, fitxa aurrean dutela (edo aurrean eduki gabe, memorizazioa landuz).

–Ea, bada, zer entzun dezakegu gure belarri polit eta zoragarri hauei esker?... Musika! Bai polita dela musika!

–Eta musikaz ari garela, ba al dakizue euskaldunok oso gureak ditugun musika-tresnak erabiltzen ditugula gure festetan? Ezagutzen al dituzue euskal musika-tresnen izen batzuk? Ea... Zer tresna jotzen dute herriko jaietan trikitixa dantzatzeko?

–Orain, CDan grabatuta dauden euskal musika-tresnen soinuak entzuteko, belarriak erabiliko ditugu. Etzan zaitezte lurrean lasai-lasai, itxi begiak, eta, ondo entzuteko, ireki ondo belarriak. Prest? Soinu hauek bi (hiru) aldiz entzungo ditugu, eta zuek zer

3. ZEHAZTAPEN MAILA

musika-tresna diren gogoratu beharko duzue, gero egingo dugun fitxa ondo betetzeko. Adi!

CDa entzun ondoren, fitxa osatuko dugu. Horretarako, entzun ditugun musika-tresnen doinuak gogoratu behar ditugu. Fitxan ageri diren musika-tresnen marrazkien artean, CDan entzun dituztenak inguratuko dituzte

45. Danborradaren inguruko jarduerak

Helburu didaktikoak: I.7, II.4-9, III.29(PLAS)-26(MUS)-27(MUS)-28(MUS)-30(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENEA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aurreko entzumenean danborra ageri dela baliatuz, ikastolan Donostiako Danborrada lantzen duzuenok Danborradaren gaia gorputzaren gaiarekin txertatzeko aukera duzue.

–Hara! Entzun ditugun musika-tresnen artean danborra zegoen. Laster Danborrada ospatuko dugu, beraz, guk ere hasi beharko dugu Danborradaren inguruan zerbait egiten, ezta?...

- Danborra egin (edo eskuratu).
- Doinua entzun, entseatu.
- Janzkera prestatu (sukaldari txanoa, amantala...).

Festa hau ospatzen ez duzuenok, aurrera!

46. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.5, III.15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENEA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Belarri handi bat,
belarritik begira begi bat;
begiaren barruan aho handi bat
eta han arnasa, eta hortzen distira,
eta mihia, agertzeko zorian.
Eta ahoa begi bat da
belarri handiaren barruan.

J.K. Igerabide

47. Esaera zaharra

Helburu didaktikoak: II.9, III.8(H)-9(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, MOTIBAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Zer esan nahiko ote dute, zuen ustez, esaera zahar hauek?*

“Komeni zaigunean, belarriak gogor”.

“Belarri batetik sartu eta bestetik irten”.

–*Gaur gauza bat egin dezakegu: nik esaera zahar hauek arbelean kopiatuko ditut, zuek kopiatuko dituzue eta etxera eramango dituzue. Ea aitona-amonek edo zuen gurasoek ezagutzen dituzten!*

48. Bakoitzak bere habiara

Helburu didaktikoak: I.7-8-9-12-13-14-16, III.28(MUS)-29(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: MUSIKA TRESNAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Musika-tresnak erabiliz, entzumena lantzeko zenbait jolas egin ditzakegu.

Haur bakoitzak, lau musika-tresnaren artean bat aukeratuko du: panderoa, kriskitinak, klabeak eta txindatak. Aukeraketaren arabera, gelako haurrak lau multzotan banatuko ditugu eta begiak estaliko dizkiegu. Multzo bakoitzeko haur bati musika-tresna bat emango diogu, eta gelako izkina batean jarriko da.

Hezitzaileak begiak estalita dituzten haurrak nahastuko ditu, eta musika-tresnak dituzten haurrak jotzen hasiko dira noizbehinka. Haur bakoitzak, orduan, bere musika-tresnaren hotsa nondik datorren igarri behar du, eta bertara joan behar du. Lau taldeetako haurrak bildu egingo dira dagokien musika-tresna dagoen tokian.

49. Trenaren erritmoa

Helburu didaktikoak: I.7-12-13, II.33(MAT), III.27(MUS)-28(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: MUSIKA TRESNAK, OIHALA
Jarduera egiteko espazioa: JOLASTOKIA, GIMNASIOA

PROZEDURA

Haurrek tren bat osatuko dute, elkarren atzetik helduta. Haur batek, edo gehiagok, oihal zati handi bati helduko diote.

Hezitzaileak musika-tresnak izango ditu eskura. **Danborrarekin** erritmoa markatuko du, eta, hari jarraituz, trena martxan jarriko da. Trenak errailetik ez irteteko (lehenengoak bidea egingo du, nahi duen ibilbidea) haur guztiak batera ibili beharko direla jakin behar dute.

Txindata jotzean, "tunela" datorrela irudikatuko dugu. Tuneleko seinalea entzutean, oihala dutenek buru gainetik pasatuko diete oihala tunela zeharkatzen ari diren haurrei.

Horrela jarraituko dugu guk nahi beste bider, eta, azken kolpe batez, "DOING!!!" trena errailetik irten eta erori egingo da.

Jarduera honen bidez, hainbat lanketa egiten dugu: erritmoa (azkar, mantso), tresna-hots desberdinak (musika-tresnak), hotsen diskriminazioa (tresnak ikusi gabe entzunez), talde-lana (batek kale egiten badu dena pikutara doa).

Behin jolasa ikasi dutenean, beraiek bakarrik moldatzeko gai izango dira: erritmoa markatu, trena osatu, txindatak jo, oihala...

50. Entzumena / Gorreria

Helburu didaktikoak: I.2-7, III.16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Elkarrizketaren bidez, gorreriarri buruz hitz egingo dugu. Nahi izanez gero, elkarrizketa bukatzean jolas txiki bat egingo dugu, eta horretarako kotoia prestatuta eduki beharko dugu.

–Ezagutzen al duzue entzuten ez duen norbait?


–Nola uste duzue komunikatuko dela? Norbaitek ezagutzen al du gorren alfabetoa?

–Nola deitzen zaie entzuten ez duten pertsonei?

–Zer uste duzue sentituko dela ezer entzun gabe? Froga egingo al dugu?

–Sartuko al dugu kotoia belarrietan?...

Bukatzeko, eskuekin zeinuak eginez haur batzuen izenak egin ditzakegu; horretarako, hemen duzue zeinuen alfabetoa.



51. Entzunaldia

Helburu didaktikoak: I.7, III.26(MUS)-31(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: 5. CDa, 11. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Oraingo honetan entzungo musika munduko musikari ospetsuenetako batena da: Ludwig Van Beethovenen Minuetoa. Entzun al duzue inoiz berari buruz zerbait? Ziur zuen gurasoek ezagutzen dutela.

–Ludwing Van Beethoven konpositore alemaniarra zen (Bonn,1770-Viena,1827) Oso gazterik hasi zen kontzertuak ematen, eta Mozarten eta Haydnen ikaslea izan zen. 1802an gorreraren gaitzak jo zuen arren, horrek ez zuen bere lana geldiarazi. Pianorako 32 sonata, 9 sinfonia, 2 meza, 6 obertura, etab. konposatu zituen.

–Gustatzen al zaizue musika obra hau? Danborradaren erritmo bera al du? Goxoa al da? Itxi begiak eta ea zer imajinatzen duzuen entzuten ari garen bitartean.

Dantzarako trebetasun pixka bat baduzue, gortearen inguruko dantza bat antola dezakezue. Haurrak bikoteka jarri, eskutik helduta eta besoak zertxobait altxatuta. Musikaren erritmoari jarraituz, gorteko dantza bat egiteko musika aproposa duzue hau.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

52. Ikusmena / Itsutasuna

Helburu didaktikoak: I.2-7, III.16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA


Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Entzuten ez dutenen alfabetoa ezagutu dugu, eta hura erabiliz batzuen izena egin dugu. Orain, itsuen alfabetoa aurkeztuko dugu eta, modu berean, izen batzuk idatz ditzakegu kartulina batean punzoiarekin.



Oharra: badaude merkatuan itsuentzako ipuinak. Horietako bat eskuratzeko aukera bazenute, asko aberastuko luke egiten ari garen hurbilketa. (Ikusi, adibidez, *El libro negro de los colores*, Menena Cottin, Zorro Rojo argitaletxea).

53. Jolasa: Oilo zaharra

Helburu didaktikoak: I.2-7, III.16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ukimena landuko dugu jarduera honetan. Zaku batean era bateko eta besteko hainbat objektu sartuko ditugu, eta hurrek eskua sartuz, eta begiratu gabe, zer den asmatu behar dute.

54. Itsuari lagunduz

Helburu didaktikoak: I.9, II.34, III.12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: 10. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

–Gogoratzen al duzue Koxme, amari itsutu egin zela esan ziona? Gogoratuko zarete itsuek ez dutela ikusten edo gutxi ikusten dutela, ezta?

–Ikusi al duzue inoiz kalean norbait itsu bati bidea pasatzen laguntzen? Zer iruditzen zaizue?...

–Ikusi fitxa honetan ageri den itsua. Etxera joan nahi du, baina kale guztia obratan dagoenez, bakarrik ez da ausartzen. Lagunduko al diozue bidea aurkitzen? Etxera joateko bide bakarra al dago? Zenbat daude? Zein d(ir)a luzeena(k)... eta laburrena? Bide bat aukeratuko duzue eta, ondoren, adieraziko al zenukete, hitzez, noren edo zeren ondotik pasa zareten itsua etxera eramateko?

55. Lakarra / leuna

Helburu didaktikoak: I.7, II.3-16(MAT)-17(MAT), III.13(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Lakarra eta *leuna* kontzeptuak lantzeko, hainbat material desberdin ekarriko dugu gelara: lixa-papera, oihal zati bat, moketa zati bat... Materiala manipulatzeko interesatzen zaigu, eta haurren artean eztabaida sortzea.

Materiala eskuartean erabili ondoren, sailkatzeko eskatuko diegu haurrei: zein diren leunak, batetik, eta zein lakarrak, bestetik.

56. Abestia: Ametsetan ari naiz

Helburu didaktikoak: I.1-2-5-7-8-9-14, III.1(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: 5. CDa, 9. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Lurrean etzanda (zoru epel batean ahal dela, bestela, moketa zatiak edo antzekoak erabiliz) abestia entzungo dugu. Entzutearekin batera, gorputz-atalak sentituko ditugu, eta identifikatu, eta arnasketa, gihar-tonua eta mugimenduak kontrolatzen saiatuko gara. Elkarri trazarik ez egiteko, tarte gorde behar dute elkarren artean.

AMETSETAN ARI NAIZ

Ametsetan ari naiz

3. ZEHAZTAPEN MAILA

eskola garaian,
begiak itxi ditut
etzaldi lasaian.
Beso, lepo, sorbaldak,
patxada handian,
lotan jarraitu nahi dut.
Adio, maitia!

Hanka bat gora doa,
sudurra jo nahirik,
ez da ez gertatuko
horrelako konturik.
Behera bidali nahi dut,
lasai egon dadin,
luzeran zuzen-zuzen,
txintxo eta geldi.

Alboko beste hankak
zerbait nahi omen du:
goraka egin eta
kopeta agurtu.
Lurraldeak utzirik
goiak ezagutuz,
lo-lo egin ezazu,
ene, maite zaitut!

57. Lagunaren gorputza ukituz: masajea

Helburu didaktikoak: I.1-2-5-7-8-9-11-12-14, III.16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: Binaka

Materiala:

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haurrei bikote bat aukeratzeko esango diegu; elkarri masaje bat emango diote. Horretarako, egokia litzateke masajeetarako olio eramatea.

Bikoteka jarrita, masajea hartu behar dutenek kamiseta eta galtzak kenduko dituzte eta lurrean etzango dira. Musika lasaigarria jarriko dugu. Errazagoa izan dadin, hezitzaileak gidatuko ditu masajearen pausoak. Adibidez:

–Oinetatik hasiko gara. Hasi hatzekin oinetan presioa eginez, plastilinarekin jolasten arituko bazinete bezala. Lasai eman, ez dago presarik... Orain, sentitu orkatilan dagoen hezurra...

Masajea bukatzean, trukatu egingo dira, eta masajea hartzen aritu dena ematera pasako da.

Bi txandak burututakoan, egokia litzateke elkarrizketa sortzea eta hitzez adieraz dezaten zer gustatu zaien gehien, ondo edo gaizki sentitu diren...

58. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: Librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Olerki hau, oso erraza denez, buruz ikasten saiatuko gara.

Begiak ikusteko.
Bihotza maitatzeko.
Eta umore ona
zoriontsu bizitzeko.

Joxan Ormazabal

59. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: I.1, III.1(H)-2(H)-13(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: Librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Bi anaia,
biak berdin-berdinak,
ikusmen ona,
eta ezin elkar ikusi.

(begiak)

Joxan Ormazabal

60. Usainak ezagutzen

Helburu didaktikoak: I.7, III.13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: Librea
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Hainbat usainetako gauzak ekarriko ditugu gelara. Esate baterako, ozpina, kolonia, xaboia, gazta, txorizoa, kafea...

Haurrek, begiak itxita, usainduko dituzte, eta zer den asmatzen saiatuko dira.

61. Gurasoentzako gutuna

Helburu didaktikoak: III.8(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

GURASO MAITAGARRIAK:

GORPUTZAREN AZTERKETA EGITEN ARI GARA EGUN HAUETAN. DAGOENIKO IKASI DUGU ZER ATALEZ DAGOEN OSATUTA GORPUTZA KANPOALDETIK, BAI ETA ZER NOLAKO SENTIMENDUAK DAUZKAGUN ETA ZER SENTSazio ERAGITEN DITUZTEN GURE BARRUKO ORGANOETAN.

ORAIN, ZENTZUMENAK AZTERTZEN ARI GARA, ETA DASTAMENA ZER DEN ULERTZEKO, BIHAR ARRATSALDEAN JANARIEN DASTATZE TXIKI BAT EGITEKO ASMOA DUGU.

HORRETARAKO, ZUEN LAGUNTZA BEHAR DUGU: BIDALI ZUEN HAURRAREKIN DASTAMENA LANTZEKO BALIO DEZAKEEN ZENBAIT JAKI, GOZOAK NAHIZ GAZIAK. IZAN LITEKE, ADIBIDEZ, TXOKOLATEA, GURINA, GATZA, AZUKREA, FRUTA ZUKUA, URDAI EGOSIA, URDAIAZPIKOA... EDO TA ZUEI BURURATZEN ZAIZUEN BESTE EDOZER.

EZ DA ASKORIK BEHAR, BERAZ, KANTITATE TXIKIAN IZAN DADILA.

MILA ESKER! ETA HURRENGORA ARTE.

TXIRRITX

62. Ekarrirako janaria zerrendatu

Helburu didaktikoak: II.17(MAT)-21(MAT), III.8(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ETXETIK EKARRITAKOA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Nahi izanez gero, etxetik ekarrirako janaria zerrendatu dezakegu. Horretarako, aurretik, ekarrirako janariak sailkatzeko eskatuko diegu, baina ez diegu irizpiderik

emango, hau da, hurrek emandako irizpideen arabera sailkatuko dituzte janariak jarduera honetan. Ondoren, arbelean idatziko dugu zerrenda; nahi duten hurrek kopia dezakete. Letra mugikorrek baliatuz ere jolas daiteke.

–Hara, Maddalenek txokolatea ekarri du. Nola idatziko dugu "txokolate" hitza?

–Eta "gatza"?

63. Dastatzea. Gozoa / gazia

Helburu didaktikoak: I.7, II.17(MAT)-21(MAT), III.7(H)-13(H)-17(H)-18(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ETXETIK EKARRITAKOA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hurrek etxetik ekarri dituzten janariekin dastatzea egingo dugu. Zer ahoratzen duten ikusi gabe, asmatu beharko dute zer janari den.

Dastatu ondoren, janariak berriro sailkatzeko eskatuko diegu. Aurreko jardueran erabilitako irizpidea eta oraingoan, dastamenaren ondorioz, egindakoa alderatuko ditugu.

–Zeren arabera sailkatu edo multzokatu ditugu janariak probatu eta gero?

Dastatzearen ondoren, *gozoa/gazia* kontzeptuak landuko ditugu, dastatutako janariak bi multzotan sailkatuz.

64. Zer sentitzen duzu?

Helburu didaktikoak: I.1-5-6, III.8(H)-9(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: SENTIMENDUEN TXARTELAK (MATERIAL OSAGARRIA)

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jolas honen bitartez, sentimenduen identifikazioa indartzea proposatzen dugu. Txarteletan agertzen den sentimenduaren adierazpena imitatzen jolastuko dugu. Dibertigarria izan daiteke, ez baita erraza bat batean aldatzea, pozik gaudenean haserre jartzea edo beldurtuta... Saiakera egin dezakegu.

65. Horma-irudian sentimenduak kokatu

Helburu didaktikoak: I.1-5-6, III.8(H)-9(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gorputzaren horma-irudia lantzen jarraitzeko, gorputzaren barruan ikusten ez denaz, hau da, sentimenduez, hausnarketa txiki bat bideratuko dugu. Elkarrizketaren bitartez, oinarrizko sentimenduak kanporatzen lagunduko diegu haurrei: haserrea, poza, tristura, beldurra, urduritasuna...

Sentimenduek hainbat sentsazio eragiten dituzte gure barruko organoetan, eta horien arteko loturaz hitz egingo dugu.

–Triste zaudenean zer sentitzen duzu gorputzean?

Sentimenduez hitz egitea nahiko konplexua izan daiteke eredurik gabe, beraz, hezitzaileak has lezake elkarrizketa bere sentimenduez hitz eginez.

–Nik aspaldi ikusi ez dudan lagun bat ikusten dudanean, oso pozik jartzen naiz eta bihotzean kilima gozoak sentitzen ditut. Zuek noiz jartzen zarete pozik? Eta pozik jartzean zer sentitzen duzue?

Gure horma-irudia osatzen jarraitzeko, sentimenduekin lotzen ditugun barruko organoak marrazteko proposatuko diegu haurrei: bihotza (poza eta tristura), urdaila eta ipurdia (urduritasuna, beldurra), garuna (haserrea)...

Barruko organo eta sentimenduen lotura guztiz subjektiboa da; zuen esku gelditzen da beste lotura batzuk bideratzea (haurrek proposatzen dituztenak).

Gainerako gorputz-atalekin egin dugun bezala, barruko organoen izena idatzi eta horma-irudian kokatuko ditugu.

66. Sentimenduak paperean irudikatu

Helburu didaktikoak: I.1-2-6, III.17(PLAS)-18(PLAS)-21(PLAS)-23(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/TV
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA/ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Jarduera honen bitartez, adierazpen estandarretik urruntzea proposatzen dizuegu. Haurrei ematen diegun ariketak oso mugatuak izaten dira orokorrean (aurrez egindako marrazki bat koloreztatu, gauzen irudikapenak egin...). Oraingoan, sentimenduak irudikatzea proposatzen dugu, alegia, ukitu eta ikusi ezin diren kontzeptuak).

–Margotuko al dugu poza?

–Nola margotuko genuke beldurra?

–*Eta tristura?...*

Emaitzaren errebisioa bultzatzen badugu, sentimenduen errepresentazioa era askotarikoa izan daitekeela ikusiko dugu. Oso garrantzitsua da saiakerak askatasunez egitea. Ez dugu eredurik bilatzen, ezta kulturaren estandarrik ere; kontrakoa bultzatu nahi dugu, sormena eta norberaren berezitasuna, alegia.

Adibidez: Aritzek poza beltzez margotu du, bere amaren autoaren kolorea beltza delako, eta berak, autoan joaten denean, ederki pasatzen du musika entzuten duelako, toki askotara joaten delako...

67. Nondik sortzen zaigu sentimendu bakoitza?

Helburu didaktikoak: I.1-5-6, II.16(MAT), III.15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: 11. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Sentimenduak eta gorputz-organoen arteko loturak egiteko, elkarrizketa sortu dugu, era elkarrizketa horretan adibideak eman dira erlazioak egiten hasteko.

Fitxa honetan, lotura horiek grafikoki adierazi behar dituzte.

Talde handian elkartzeko gara, eta fitxan agertzen dena eta Txirritxek esaten duena aztertuko dugu, ondoren, haurrek beren fitxa osa dezaten.

Fitxaren ezker aldean haur baten silueta dago; haren barruan organoak marraztuko dituzte, hitz egindakoaren arabera. Jarraian, organo horiek eskuinaldean dauden sentimendu-adierazpenekin erlazionatu behar dituzte.

BUKAERA

Horma-irudia amaitu dugu dagoeneko; neskaren eta mutilaren siluetak osatu ditugu, organoen eta sentimenduen izenak idatzi, eta egin dugun fondoaren gainean jarri dugu. Orain, gure gelako toki berezi batean kokatuko dugu.

Hiztegia

Gaiko hiztegia	Ipuineko hiztegia
Burua	Mari Kanela
Alua	Ama
Zakila	Mari Petral
Ipurdia	Sendagilea
Bularra	Txokolatea
Belarria	Azenarioa
Sudurra	Kalabaza
Eskua	Txoritxoak
Ukondoa	Zapatak
Besoa	Sukaldea
Ahoa	Erraldoia
Oina	Haserretu
Belauna	Beldurtu
Hanka	Garbitu
Mihia	
Atzamarra	
Eskua	

Ipuin gomendatuak

Jarraian, unitatean zehar lan daitezkeen zenbait ipuinen zerrenda aurkezten dugu. Ez dira derrigorrez kontatu beharrekoak, proposamen bat baino ez dira, gure eguneroko baliabideen osagarri.

- *Codrilo*, Roberto Aliaga, OQO
- *Nola dastatu ilargia*, Michael Grejniec, Kalandraka
- *Un regalo diferente*, Marta Azcona, Kalandraka
- *Non galdu ote zuen irria Ilargik?*, Miriam Gandiz, Kalandraka

6. DULUN DULUNDA, ELEFANTEA...

Gaia: Oihaneko animaliak eta Inauteriak

Iraupena: 5-6 astetan zehar

Sarrera



Unitateko PROIEKTUA: zirku bat antolatuko dugu.



Proiekturako proposatutako sekuentzia didaktikoak:

1. Inauteriak eta aurreko ospakizunak: San Blas, Santa Ageda, Kaldereroak, sorginen akelarrea
2. Oihaneko animaliak ezagutu. Irteera.
3. Zirkoa ezagutu

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa:

- Abiapuntua (nondik hasi garen eta zergatik).
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan taldeek eta abarrek ondo funtzionatu duten, ala aldaketaren bat egin behar den hurrengo saio baterako
- Sekuentziaren garapenean izan diren harremanei (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrerari behatu.



Ikasturteko proiektua: gelako aldizkaria

Landu ditugun sekuentzia didaktikoei buruzko informazioarekin, aldizkaria osatuko dugu.

Ikusi 2. unitatean ematen ditugun azalpenak.

HASIERAKOAK

1. Ikasnorabidea: osotasunean zatiak bereizi

Helburu didaktikoak: AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: GUZTIAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Materiala: 1. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Txirritx kilkerraren azalpenak

Iuupi-iuupi! Kaixo, babarrunak!

Barkatu, barkatu... Kaixo, lagunak! Ejem!

Ikusten duzuen bezala, oso pozik nago. Ba al dakizue zergatik? Bada, oso pozik nago nire berraitonarekin beti sartzen ari zen lehoi handi-mandi bati merezi zuena eta bi eman ziotelako. Itxaron, itxaron, eta jakingo duzue zertaz ari naizen.

Ikusten nauzue domatzailez jantzita? Eta sorginez mozorrotuta? Dotore-dotore nago, ezta?

Beno, zer iruditzen zaizue ikusi eta ikasi behar dugula datozen egunetan? Aaaa, hori dena! Oso ondo, egun hauetan hau dena ikasiko dugu:

- 1. Hasteko, San Blas, Santa Ageda, kaldereroak eta inauteriak ospatuko ditugu. Sorginen sorginkeriak ere egingo ditugu. Ederki pasako dugu!*
- 2. Ondoren, hezitzaileak ipuin bat kontatuko dizue eta, beti bezala, abestiak, olerkiak, jolasak, igarkizunak, etab. ikasiko ditugu. Ez dizuet esango zein ipuin den, baina oso-oso-oso polita da, eta protagonistetako bat super-super-super jatorra da. Zein den protagonista hori? Txatxatxatxan... nire aitonaren aita! Hori zein den? Bada, nire birraitona! Ene, zer zaila den esaten!*
- 3. Ondoren, oihanean bizi diren animaliei buruz zenbat dakizuen ikusiko dugu, eta ez dakizuen hainbat gauza ere ikasiko ditugu.*
- 4. Segidan... gustatzen al zaizue zirkua? Ez al dizue beldurrik ematen? Bada, zirkuetako animaliak eta pertsonaiak ezagutuko ditugu, eta inauteri-festarako **zirkua bat antolatuko dugu** gelan!*
- 5. Bukatzeko, beti bezala, zerbait berezia ikasi nahi baduzue, esan hezitzaileari eta denon artean ikasiko dugu. Konforme? Grrroaaaaf! Groooooaaaaf! Ai ene, lehoi bat! Ni banoa hemendik. Agur lagunak, ondo pasa!*

2. Horma-irudia: inauteriak

Helburu didaktikoak: I.9- II.1(I),II.10(I), II.11(I), II.12(I), II.15(I)-III.2(H), III.5(H), III.13(H), III.16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Materiala: Horma-irudia

Horma-irudiaren aurrean jartzean, IKUSI MAKUSI jolasa egitea proposatzen dugu. Jolas honen bitartez jardueraren hasiera eta kokapena lortuko dugu.

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarrizko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA.
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Haurren ezagutzatik abiatu zara?
- Denbora eman diezu haurrei pentsatzeko?
- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka KOGNITIBOAK

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

Horma-irudian azaltzen diren elementuen inguruan, Tough-en hizkuntza-funtzioen 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak aktibatzen saiatuko da hezitzailea. Funtzio asko direnez, hainbat saiotan lantzea aholkatzen dugu, edota horma-irudien elementu egokienak aukeratzea. Ikusi TOUGH-en hizkuntza-funtzioen sailkapena.

3. ZEHAZTAPEN MAILA



Inauterien urretik: San Blas

3. Esaera zaharra

Helburu didaktikoak: II.9, III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Esaera zaharrak ulertzea batzuetan zaila izan daiteke guretzat ere. Beti adierazi izan dugun bezala, gure helburua ez da haurrek buruz ikastea eta zer esan nahi duten zehatz-mehatz jakitea, baizik eta entzuten joatea eta gure kultura-altzorraren arlo honetaz jabetzen joatea. Gotzon Garatek bere *27.173 atsotitzak* liburuaren hitzaurrean dioen bezala, atsotitzak euskara aberasteko harrobi estimagarria dira.

–San Blas eguna otsailaren 3an ospatzen da. Ezagutzen al dituzue esaera zahar hauek? Entzun ondo eta ea zer ulertzen duzuen!

San Blas, ito arte arnas.

San Blas, bedeinkatutako haria saman ipini, eta eztulak blast!

–Eta hitz joko hau, ezagutzen al duzue? “San Blas, plis, plas”.

Hitz horiek esatean, aurpegian edo ipurdian bi zaplastako txiki emateko ohitura dute zenbait tokitan.

4. San Blas opila

Helburu didaktikoak: II.6-9, III1(H)-3(H)-8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala: 2. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Idatzi aurretik

Talde handian, fitxaren behaketa egingo dugu eta haren inguruan hitz egingo dugu: bertan landu behar den testu mota, hau da, errezeta, instrukzio-testua dela, zertarako erabiltzen diren mota horretako testuak... Ondoren, denen artean aztertuko dugu zer osagai behar diren San Blaseko opila egiteko, nola egin behar den, eta non idatzi behar diren osagaiak, non prestaketarako pausoak...

Planifikazioa

Idatziko duguna adostu beharko dugu; fitxan marrazkiak ageri direnez, oso pista argiak ematen zaizkigu osagaiei eta elaborazioari buruz. Haur bakoitzak bere fitxa bete aurretik, fitxa handitu dezakegu denen artean osatzeko.

Testualizatu

Haurrek fitxa osatuko dute.

Berrikusi

Etxera bidali aurretik, talde handian elkartu gaitzke berriro, eta denen artean eredu batzuk berrikusi.

–San Blas egunean, Euskal Herriko leku askotan San Blas opila jaten da. Batzuek esaten dutenez, opil hau janez gero, urte guztia eztarriko minik gabe pasatuko dugu. Jan al duzue noizbait? Nolakoa da? Idatziko al diegu aitari eta amari San Blas opila egiteko errezeta?

Nahi izanez gero, arbelean idatz daiteke, era simple batean, haurrek kopia dezaten. Bestela, beraiek "idatzitakoa", berridatzi beharko duzue.

SAN BLAS OPILAREN ERREZETA

Orea egiteko osagaiak:

- 3 arrautza (baten zuringoa ez nahastu!)
- 9 goilarakada azukre
- legamia koilaratxokada erdi bat
- 80 g gurin
- Anisaren esentzia (beste anisak ez du balio). Tanta batzuk soilik, oso gogorra baita.
- Irina

Goialdeko zuria egiteko:

- aurretik apartatutako zuringoa

Nola egin:

Osagai guztiak nahastuko ditugu ore sendo baina malgu bat lortu arte. Zentimetro eta erdiko lodierako opilak egin, eta behatz lodiarekin San Blas opilak duen forma berezia eman.

5. Gurasoentzako gutuna

Helburu didaktikoak: III.8(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

PROZEDURA

San Blas opilaren errezetarekin batera, gurasoei gutun bat bidaliko diegu. Bertan eskatuko diegu, batetik, etxean errezeta egiten saia daitezela, eta, bestetik, Santa Ageda bezperan haurrak baserritarrez jantzita eta makila batekin bidal dezatela.

KAIXO, FAMILIA:

ZER MODUZ DUZUE EZTARRIA? BA, ZUEN SEME-ALABEK ESANGO ZIZUETEN BEZALA, URTE GUZTIAN ZEHAR EZTARRIKO MINIK EZ IZATEKO, SAN BLAS OPILA EGITEA ETA JATEA BEZALAKORIK EZ DAGO. EZ DAKIZUELA NOLA EGITEN DEN? LASAI, GUTUN HONEKIN BATERA DOAKIZUEN ERREZETAREN PAUSO GUZTIAK JARRAITU ETA... EA NOLA ATERATZEN ZAIZUEN! ZATIREN BAT GELDITZEN BAZAIZUE IKASTOLARA BIDALI, ASKARI TXIKI BAT EGINGO BAITUGU.

BESTALDE, AURTEN ERE, SANTA AGEDA BEZPERAN, HAUR HEZKUNTZAKO HAURRAK KANTARI ATERAKO DIRA HERRIAN ZEHAR, HORTAZ, HAURRAK BASERRITARREZ JANTZITA ETA MAKILA BATEKIN BIDALTZEA ESKATU NAHI DIZUET.

ZUEN LAGUNTZA PAREGABEA ESKERTUZ, JASO EZAZUE NIRE AGURRIK BEROENA.

TXIRRITX

6. San Blas haria

Helburu didaktikoak: II.24(MAT), III.9(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

San Blas ohiturari jarraituz, gelako haur guztiei lepoan hari bat jarriko diegu, eta bederatzi egunez kendu gabe eduki beharko dute. Gelako horma batean kartulina bat itsatsiko dugu, eta bertan idatziko ditugu haria kentzeko falta diren egunak, egunero atzerantz zenbatzen joateko.

SAN BLAS HARIA

1 2 3 4 5 6 7 8 9

–Egun honetarako beste ohitura bat dago: hari bat jartzea lepoko modura, eta bederatzi egunez jarrita edukitzea. Hori eginez gero, urte guztian

katarrorik gabe pasako dugula esan ohi da. Jarriko al dugu? Eta nola jakingo dugu zenbat egun falta diren haria lepotik kentzeko? (Adi egon hurrek planteatzen digutenari!).

7. Askaria

Helburu didaktikoak: II.24(MAT), III.9(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: GIZARTEAZEKOAK, KOMUNIKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Etxetik ekarritako San Blas opilekin askari goxo bat egingo dugu. Opilak jaten hasi aurretik, elkarrizketa txiki bat sortuko dugu:

- Zeinek egin du etxean San Blas opilaren errezeta? Aitak? Amak?*
- Eta, norbaitek lagundu al dio?*
- Zertan lagundu diozue? Orea egiten? Azukrea botatzen?*
- Erraz egin duzue ala kostata?*
- Gogoratzen al zarete zenbat denbora eduki behar zen orea labean?*
- Ondo pasa al duzue opilak egiten?*



Inauterien urretik: Santa Ageda

8. Tradiziozko kantua

Helburu didaktikoak: II.9, III.15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 5. CDa, 13. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

SANTA AGEDA

Santa Ageda, Ageda,
bihar da Santa Ageda.
Bihar da Santa Ageda eta,
gaur haren bezpera gaua.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Baimena eskatzera nator
herriko alkate jaunari,
Santa Agedaren ontasunak
erakustera noa ni.

Santa Ageda, Ageda...

Oles (e)ta oles etxeakoak,
jotzen ditut nik gaur ateak.
Jotzen ditut nik ateak eta
alaitu bedi jendea.

9. Santa Ageda eguneko olerkia

Helburu didaktikoak: I.15(H), III.1(H), III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: komunikatiboak
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Santa Ageda eguna
otsailaren bostean,
bezperan ibiltzen gara
kalean eskean.

Buruan txapela,
eskuan makila,
gure herria ez dago
oraindikan hila.

Kopla zaharrak kantatuz
trikitixa eta pandero,
Santa Ageda bezperan
eztarriak leun,
hankak bero.

Joxan Ormazabal

10. Ibilbidearen planoak. Zehar-lerroa: bide-hezkuntza

Helburu didaktikoak: I.9-15-16, II.1-7, III.33(MAT)-34(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jarduera egin aurretik, hezitzaileen artean zehaztuta eduki behar da zer ibilbide egingo den eta non egingo diren abesteko geldituak. Ondoren, ibilbidearen plano landuko dugu arbelean; ibilbidean zehar geldituak egiteko bost leku ezagun zehaztuko ditugu. Ibilbidea arbelean zehaztean, nora joan behar dugun esango dugu, eta horra iristeko zer aukera dagoen galdetuko diegu haurrei.

Arbelean, plano erraz baten bidez adieraziko dugu egingo dugun ibilbidea.

–*Santa Ageda bezperan herriko kaleetan zehar abestuko dugu. Jakin nahi al duzue zer ibilbide egingo dugun? Ikastolatik aterako gara eta lehenengo gelditunean egingo dugu. Nondik joan beharko dugura iristeko? Bide bat baino gehiago al dago? Zein aukeratuko dugu? Zein da luzeagoa? Motzagoa? Arriskutsuena? Zergatik?*

–*Gerotik jarraituko dugu, eta bigarren geldituneaan egingo dugu.tik,ra joateko zein uste duzue dela biderik egokiena?*

Zerabideak, lurpeko pasabideak, semaforoak, espaloi egokiak... horiek guztiak kontuan hartu behar dira ibilbidea antolatzerakoan. Zenbaitetan, bidea luzeagoa bada ere, haurrek segurtasuna balora dezaten saiaturako gara.

11. Herria zehar santa eskean

Helburu didaktikoak: II.4-9, III.15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Otsailaren 4an, ikastola bakoitzeko ohituraren arabera, Haur Hezkuntzako haurrak, bat eginik, herriko kaleetan zehar ibiliko gara *Santa Eskean*.



Inauterien aurretik: Kaldereroak

12. Kaldereroen festa

Helburu didaktikoak: II.9, III.28-30(MUS)-32(MUS)-33(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: KALDEREROEN CDa
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Festa hau Gipuzkoako Donostialdean bakarrik dago zabaldua, beraz, zuetako gehienek ez duzue ospatzeko ohiturarik izango.

Jai honek Inauterierekin lotura zuzena du. Hungariatik datozen *Kaldereroek* (lapiko, zartagin... eta halakoen konpontzaileak dira) Momo (Inauterietako) erregearen aginduz, Inauteriak laster ospatuko ditugulako berri ematen digute.

Zingaroz jantzitako konpartsa moduan antolatzen da eta, abestiei laguntzeko, zartagina eta mailua erabiltzen dira.

Festa hau ikastolan ospatzen ez duzuenoi, interesa edukiz gero, *Donostiako Inauteriak* (normalean Danborrada barne dagoela) CDan aurkituko duzue horren inguruko musika. Erritmoa lantzeko jarduera bat balitz bezala lantzea proposatzen dugu, mailua eta zartagina edota beste edozein objektu erabiliz.

Abestietan garbi adierazten da noiz jo behar den. Animo! Festa ospatzen duzuenok, zuen ohiturekin jarraitu eta ondo pasa!

- *Inork ezagutzen al du Kaldereroen jai?*
- *Kaldereroak herriz herri lapikoak eta zartaginak konpontzen ibiltzen ziren zingarook ziren, eta, abesten zutenean, beren mailuekin abestien erritmoari jarraitzen zioten. Ikusgarria gertatzen zenez, Donostiako lagun batzuk zingaroz jantzi eta Kaldereroen konpartsa antolatu zuten.*
- *Nahi al duzue zuek ere Kaldereroek bezala jo? Guk mailuak eta zartaginak ez ditugunez, gelan ditugun musika-tresnekin joko dugu (klabeak edo kaxa txinatarrak erabil daitezke).*



Inauterien aurretik: Lardero eguna

13. Lardero eguna

Helburu didaktikoak: II.9, III.28-30(MUS)-32(MUS)-33(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 5. CDa, 19. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Arabar guztiontzat!

Donostialdean Kaldereroak baldin badira Inauterien berri ematen dutenak, Arabako koadrila gehienetan Lardero eguna ospatzen dute. Haurrak kalez kale eskean ibiltzen dira, eta lortutako diruarekin askari bat egiten dute.

Eskualde eta herri bakoitzean abesti ezberdinak abesten badituzte ere, guk Agurainen abesten dutena proposatzen dugu hemen. Hala ere, ikastola bakoitzean duzuen ohiturari jarraitzea da egokiena.

LARDERO

Lardero Agurainen,
jai zoragarria,
neska eta mutilen
ohiko inauteria.

Zoriondu nahi ditugu
herriko guztiak:
egun on, ba, denori,
ahaztu miseriak.

Lardero, Lardero,
neska-mutilak ero,
Lardero, Lardero,
bada inauteria.
Lardero, Lardero,
neska-mutilak ero,
Lardero, Lardero,
guztiori eskerrak.

Lardero eguna ospatu aurretik, Lardero eguneko makilak presta ditzakezue, abestera irteteen haur bakoitzak berea eraman dezan. Makilak zintekin eta zintzarriekin apaintzen dira eta abestean erritmoa eramateko balio dute.

Egun honen inguruan jarduera ugari proposa daiteke. Ospatzen duzuenok... ondo pasa eta askari ona egin!

Festa hau ikastolan ospatzen ez duzuenok, musika CDan grabatuta dagoen abestia erritmoa lantzeko balia dezakezue, makilak edo beste edozein objektu erabiliz.

Kontuan izan Lardero eta Kaldereroen gisako tokian tokiko festak unitateetan sartzen ditugunean, gure helburua ez dela horiek mimetikoki eskualde guztietara zabaltzea, baizik eta bakoitzean ospatzen diren festen berri izatea.

14. Inauteriak datoz

Helburu didaktikoak: III.15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 5. CDa, 17. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

TXINBA-TXIN

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Jo turutak!
Eta jo tronboiak!
Txindatak, danborrak,
dunbak jotzen hasi!
Inauteri jaiak
bizitzen ikasi!

Txinba-txin, txinba-txinba.
Txinba-txin, txinba-txinba.
Txinba-txin, txinba-txinba.
Txinba-txin, txin.
Inauteri jaiak
bizitzen ikasi!

15. Abestia: *Ban-ban baraban*

Helburu didaktikoak: III.15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 5. CDa, 18. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

BAN-BAN BARABAN

Ban-ban baraban.
Ban-ban baraban.
Ez naiz zurekin joango.
Ban-ban baraban.
Ban-ban baraban.
Zergatik ez dut esango?
Inauteri jaiak dira.
Zatoz Getarira!
Trapatan! Tzunpatzun!
Trapatan! Tzunpatzun!
Pozik gaude begira.



Inauterien aurretik: sorginak eta sorginkeriak

HASIERA

Santa Ageda egunean makilekin lurra jotzen da udaberria esnatzen joateko, joaldunek biderei ekiten diote inauteri-eguna iritsi aurretik, kaldereroek Inauteriak datozela iragartzen digute... Eta guk, zergatik ez dugu "edabe magikoa" egiten denak umore onez, alai eta osasuntsu hasteko?

Zirkoaren proiektua "gogorra" izango da eta, indar gehigarri bat edukitzeko (Asterixen moduan), gure akelarre berezia antolatuko dugu. Modu errazean egin daiteke: euskal jaietako gonak jantzi, alkandora zuri bat, kartulinaz eginiko sorgin-txapela bat (edo ilea ondo harrotuta), aurpegia zikindu... Arratsalde batean Ikastolako atarian edo jolas-lekuan bilduko gara, eta "Sorgin Festari" ekingo diogu, Inauterien ondoren egingo dugun proiektuari aurre egiteko.

16. Hezitzailearen ipuin kontaketa

Helburu didaktikoak: III.1(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZKEOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: IPUINAREN LAMINAK
Jarduera egiteko espazioa: LIBURUTEGI TXOKOA

PROZEDURA

Ipuina kontatzeko Liburutegi-txokoa Aukeratu dugu, giro berezia nahi dugulako sortu.

Gure proiektua egiten hasi baino lehen, sorginkeria batzuk egingo ditugu; izan ere, ipuin honetan bi anaiari sorgin batzuekin gertatu zitzaizen istorioa irakurriko dugu.

Jarduera honetan, beste edozein ipuin-kontaketa narratibotan bezala, ezinbestekoa da alde aurretik testua irakurtzea eta kontaketa egiteko erabiliko ditugun estrategiak erabakitzea.

Lagungarri izan daiteke hezitzailearen ipuin-kontaketarako elementu "magikoak" erabiltzea (ahuts magikoak, hitz magikoak, txano berezia, alfonbra...) Elementu horiek sarrera moduan lagunduko diote beti hezitzailearen ipuin-kontaketari.

Hezitzailea, taldearen aurrean kokatuta (taldeko guztiek ikusteko moduan), ahalik eta giro goxoena sortzen saiatuko da:

Ipuina kontatu aurretik:

- Giro afektiboa eta goxua sortu.
- Hasierarako esaldia prestatu.
- Bukaerarako esaldia prestatu.
- Ahots-aldaketak eta dramatizaziorako keinuak nola egin pentsatu.

Ipuina kontatu bitartean:

- Begiradarekin haur guztien arreta mantendu (denek sentitu behar dute berari ari zaiola kontatzen).

BI ANAIK ETA SORGINAK IPUINA

1

Munduan beste asko legez, behin ba omen ziren Serafin eta Antton izeneko bi anaia. Serafin eta Antton konkordunak ziren; bakoitzak konkor handi bat zeukan bizkarrean jaioz geroztik.

Bi anaiak bakarrik bizi ziren baserrian. Serafin, infernuko etsaia baino gaiztoagoa eta alferragoa zen. Beti haserre zegoen. Antton, berriz, on puska zen eta berak egiten zituen baserriko lan guztiak. Serafinek ez zion arnasa hartzen ere uzten Antton gaixoari.

–Antton, zoaz ukuilura behiak jeztera. Antton, garbi ezazu etxea. Antton, presta ezazu bazkaria... Mugi, alferrontzi arraioa!

2

Anttonek isil-isilik egiten zituen lan guztiak. Behin, hala esan zion Serafinek:

–Antton, egurrik gabe geratu gara. Zoaz basora eta ekarri egur-sorta bat konkorraren gainean. Agudo, demonio!

Antton joan zen basora eta egur-sorta osatzen ari zela, kantu bat entzun zuen.

–Tzingili-tzangala, tzingili-tzangala...

Antton hurbildu zen kantu hura zetorren tokira eta sorgin batzuk ikusi zituen kantari. Sasi batzuen atzean ezkutatu zen belarriak erne-erne jarrita.

–Tzingili-tzangala, tzingili-tzangala... Tzingili-tzangala, tzingili-tzangala...

3

Antton oso gustura egon zen kantu hura entzuten pixka batean, baina sorginek lelo bera errepikatzen zuten behin eta berriro eta aspertzen hasi zen.

Berari iruditu zitzaion “tzingili-tzangala” hiru aldiz errepikatu ondoren, kantua politagoa geratuko zela leloari “tzankalon” hitza erantsiz gero. Eta froga egitea erabaki zuen:

–Tzingili-tzangala, tzingili-tzangala, tzingili-tzangala, tzankalon! –kantatu zuen Anttonek.

Bat-batean, isilik geratu ziren sorginak.

–Nork esan du hori? –galdetu zuten–. Nork esan du tzankalon?

4

Anttonek sastraka artetik irten eta eskua altxa zuen.

–Nik? –esan zuen beldurtuta.

–Eta nor zara zu? –galdetu zioten sorginek.

–Antton... Antton naiz.

Orduan, oso pozik jarri ziren sorginak eta eskerrak eman zizkioten.

–Eskerrik asko, Antton, mila esker. Oso belarri fina daukazu musikarako –esan zion sorgin batek.

–Bai horixe! Horrela askoz ere politagoa da gure kantua –esan zuen beste batek.

–Sari bat merezi du –hirugarren batek.

–Bai, bai, sari bat merezi du –errepikatu zuten denek.

5

Eta orduan kantari hasi ziren sorgin guztiak:

*Ai, Antton, zelemo,
tzingili-tzangala, tzankalon,
konkor hori kon-kon,
kendu, fuera, dringilindron!*

Eta hitz horiek esan ahala, Anttonen konkorra desagertu egin zen. Konkorrik gabe, oso planta ederreko mutila zen Antton.

Gero, sorginek poltsa bat diruz beteta eman zioten. Anttonek eskerrak eman zizkien eta etxera joan zen pozak txoratzen.

6

Bere anaia Serafinek Antton konkorrik gabe ikusi zuenean, hasieran, ez zuen ezagutu ere egin. Baina Anttonek nor zen azaldu zionean, ero baten moduan hasi zen garrasika:

–Nola egin duzu hori? Nola kendu duzu konkorra bizkar gainetik?

Anttonek zer gertatu zitzaion esan zion, nola entzun zituen sorginak kantari eta hau eta bestea.

Anttonek azalpen guztiak bukatu baino lehen, ziztu bizian abiatu zen Serafin basorantz sorginen bila.

7

Basora iritsi zenean, sorginak kantuan entzun zituen. Orain lehen baino atseginagoa zen haien abestia.

–Tzingili-tzangala, tzingili-tzangala, tzingili-tzangala, tzankalon... –kantatzen zuten sorginek pozik.

Serafinek lehenbailehen galdu nahi zuen bere konkor itsusi hura eta ez zuen pentsatu kantuaeren doinua nola hobetu. Korrika eta presaka, burura etorri zitzaion aurreneko gauza bota zuen ahots zakar-zakarrarekin.

–Tzingili-tzangala, konkorra kendu niri, eta hor konpon tzingili-tzangala eta tzangalon...

8

Sorginak isildu egin ziren derrepente. Oso haserre zeuden, beren kantu polit hura norbaitek halako zabarkeriaz itsusitu zielako.

–Nork esan ditu astakeria horiek? Nor izan da astazakila?

Orduan, Serafinek eskua altxatu zuen lotsagabe-lotsagabe.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- Ni, ni... ni izan naiz. Serafin.
- Zuk astabelarriak dituzu. Gure kantu polita guztiz zabartu diguzu
- esan zion sorgin batek kopeta ilun-ilun jarrita.
- Bai horixe! Horrela oso itsusia da gure kantua –esan zuen beste batek.
- Zigor bat merezi du –hirugarren batek.
- Bai, bai, zigor bat merezi du –errepikatu zuten denek batera.

9

Eta, orduan, kantari hasi ziren sorgin guztiak:

*Ai, Serafin zinkurin
Kantuan zangalatrín.
Lehen konkor bat, dringilin,
Eta orain bi, kin-kuran-kin!*

Eta hitz horiek esan ahala, sorginek Anttoni kendutako konkorra erantsi zioten Serafini. Orain bi konkor zituen bizkarrean.

10

Serafin buru-makur eta lotsatuta iritsi zen etxera. Konturatu zen harroa izateagatik gertatu zitzaioela zoritxar hura. Benetan damututa zegoen, eta barkamena eskatu zion Anttoni.

–Barkatu, Antton, oso harroa izan naiz, eta oso gaizki portatu naiz zurekin. Orain bi konkor ditut, eta inork ez nau maite izango..., ezta zeuk ere –esan zion buru-makur.

Antton anaiatz errukitu zen eta besarkada handi bat eman zion.

–Nik beti maitatuko zaitut zu, Serafin.

Antton eta Serafin lagun handiak izan ziren handik aurrera. Eta sorginek Anttoni emandako diruarekin oso ondo bizi izan ziren biak.

*Hori hala bazan, tzangalaza
hala ez bazan, kalabaza
sorginen buru-aza*

17. Ipuinaren abestia

Helburu didaktikoak: III.1(H)-15(H)-52(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 5. CDa, 12. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

BI ANAIK ETA SORGINAK

Konkordunak ziren

basoko anaiak:
infernuko etsaia,
izarren dirdaia.
On puska zen Antxon,
alferra Serafin,
beti jolasean
bere pilotarekin.

Tzingili-tzangala
sorginak kantuan basoan.
Tzingili-tzangala
abeslari gau osoan.

Antxon egur bila
joan zen batean,
sorgin bat kantuan
ari zen basoan.
Kantatuz, kantatuz,
bertso bat osatuz,
zerbait harrigarria
zitzaion gertatu.

Ai, Antxon Zelemon!
Tzingili-tzangala-tzankalon.
Konkor hori kon-kon
kendu, fuera, dringilindron!

Pozez txoraturik
musu bat hartuta,
etxera itzuli zen
konkorra galduta.
Txarra izango zen
Serafinen kanta.
Orain bi konkor dauzka.
Bai mutil galanta!

Ai, Serafin Zinkurin
kantuan zangalatrín.
Lehen konkor bat, dringilin,
eta orain bi, kin-kuran-kin.

18. Jolas-kanta: *Martin konkortsua*

Helburu didaktikoak: I.13, III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 5. CDa, 20. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Abesti hau soka-saltoan jolasteko da. Lau urteko haurrekin jolasteko, sokaz beheraka jolastuko dugu.

MARTIN KONKORTSUA

Ategorrietako Martin konkortsuak,
Martin konkortsuak,
Martin konkortsuak,
bizkarra makurtuta jotzen du soinua,
jotzen du soinua, jotzen du soinua.
Bat eta bi, hiru, lau eta bost,
hamar gehiagorekin hamabost.

GARAPENA

- Sorginak elkartzen direnean, festak egiten dituzte. Ba al dakizue nola duten izena festa horiek? Bai horixe! Akelarreak!*
- Akelerreetan sorginek edabe magikoak prestatzen dituzte, eta hitz magikoak erabiltzen dituzte sorgineriak egiteko.*
- Zer iruditzen zaizue horrelako festa bat antolatuko bagenu?*

19. Aho-korapiloa

Helburu didaktikoak: I.15, II.23(MAT), III.1(H)-7(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Ipuinean ageri diren sorginak sasi artean abesten ari ziren. Gai izango al zarete aho-korapilo hau buruz ikasteko eta, nahastu gab,e esateko? Ziur baietz!*

Sei sorgin sasian
solasaldi soilean
sasi baten sarean
solasaldi soilean
sei sorgin sasian.

(*Txalopin txalo*, Erein)

Nahi izanez gero, aho-korapiloa arbelean idatz dezakezue eta gehien ateratzen den letra zein den ikusi, zenbatu...

20. Sorginen izenak asmatu

Helburu didaktikoak: III.7(H)-8(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Ba al dakizue nola izena duen euskal herriko sorginarik ezaguneta? Bai horixe, Mari. Beste sorginen izenik ezagutzen al duzue? Eta geuk asmatzen baditugu sorgin-izen batzuk? Ea bada...

Haurrek esaten dituzten izenak arbelean idatziko ditugu. Ez bazaie ezer bururatzen, zeuek eman beharko diezue laguntza txiki bat (Sudurluze, Kokotxandi, Hortz-txuri...).

Aurrerago, geure Inauteria antolatzean denak sorginak izango garenez, asmatutako izen hauek erabil ditzakegu.

21. Jolas-kanta: *Sorgina pirulina*

Helburu didaktikoak: I.13, III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 5. CDa, 14. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

SORGINA PIRULINA

Sorgina pirulina
erratz(a) gainean,
ipurdi(a) zikina,
kapela buruan.

Sorgina! Sorgina!
Ipurdi zikina!
Tentela zara zu?
Ezetz harrapatu!

Sorgina pirulina...

Takolo, Pirrutex eta Porrotx

22. Sorginen edabearen errezeta

Helburu didaktikoak: II.6, III.8(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ERREZETARAKO OSAGAIK

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Sorginen edabea egiteko (25 lagunentzat), beharko ditugu dozena bat arrautza, 4 litro esne, kakao hautsa (Cola-Cao, Nesquik...) eta irabiagailu bat. Osagai guztiak ongi irabiatu ondoren, gelako haur guztien artean edango dugu; baina zerbait utziko dugu edan gabe, unitatearen hariari jarraitu ahal izateko.

Galtzagorriek gutun bat utzi digute horman itsatsita.

KAAAIXO, LAGUNTXOAK!

GOGORATZEN AL ZARETE GUTAZ? JA, JA, JA... BAI, BAI...
AZKENEKOAN BROMA EDERRA EGIN GENIZUEN, EZTA? GU
HORRELAKOXEAK GARA!

AIZUE, HONEZ GERO BADAQIZUE SORGINAK, GURE LAGUNAK,
MENDIZ MENDI DABILTZALA, MAGIA EGITEN TREBEAK DIRELA,
ABESTI POLITAK ABESTEN BADAQITELA, BAINA... BA AL DAKIZUE
NOLA PRESTATZEN DITUZTEN BEREN EDABE MAGIKOAK?
NORBAITEK BA AL DAKI? NOLA USTE DUZUE PRESTATUKO
DITUZTELA? JE, JE, JE... GUK BA-DA-KI-GU!

ZER IRUDITZEN ZAIZUE SORGINEN EDABE MAGIKOA EGITEKO
ERREZETA EMATEN BADIZUEGU? ENTZUN ONGI!

HASTEKO, ONTZI HANDI BAT BEHAR DUZUE, ETA BERTAN BOTAKO
DITUZUE OSAGAI GUZTIAK:

- DOZENA BAT ARRAUTZA
- ESNEA
- HAUTS MAGIKOAK (KAKAO KOILARAKADA BATZUK)
- SAGU KAKAK (TXOKOLATEZKO BIRUTA TXIKIAK)
- ZIZAREAK (KOLOREETAKO GOMINOLAK)
- IGEL BATEN BEGIAK (GELATINA ZATIAK)

BUKATZEKO, ONDO-ONDO NAHASTU DENA IRABIAGAILUAREKIN.

MMMMM! PROBA EZAZUE ETA IKUSIKO DUZUE ZEIN GOXOA DEN!

BAINA, MAGIKOA IZATEKO, KONJURU BEREZIA ESAN BEHAR DUZUE.
ERREPIKATU GUREKIN HITZ MAGIKO HAUEK, ETA EDATEN DUEN
HURRENGOARI ZERBAIT MAGIKOA GERTATUKO ZAIO! JA, JA, JA...

ARDOILA MARDOILA
KINKURAN KIN
PORTERA ZIRIA
PORTERA MIN
ZERA MERA
LIRUN KARUN PLIT.

(Hitz horiek ikasten zailak iruditzen bazaizkizue, hona hemen beste bi aukera:)

SASI GUZTIEN GAINETIK,
HODEI GIZTIEN AZPITIK
GUK BEHAR DUGU INDARRAK BARRUTIK!

BAGA, BIGA, HIGA
HIGA, BIGA, BAGA
UMORE TXARRA KANPOAN LAGA!

BENO LAGUNAK, IKAS ITZAZUE HITZ MAGIKOAK BURUZ, ETA ONDO IBILI!

ETA ENTZUN ONDO. NORBAIT SORGINDUTA GELDITZEN BADA,
BERE ONERA ETORTZEKO MODU BAKARRA BESTE HITZ MAGIKO
BATZUK ERREPIKATZEA IZANGO DA.

AGUUUUUR!

GALTZAGORRIAK

Konjurua denon artean errepikatuko dugu, eta sobratu den edaria hezitzailearen mahai gainean utziko dugu, hurrei ez edateko agindua emanez.

–*Sobratu zaigun edaria hemen utziko dugu, eta hitz magikoak esan ditugunez, ikusiko dugu zer gertatzen zaion edaten duenari. Baina ez edan zuetako inork, e?*

23. Edabearen errezeta buruz ikasi

Helburu didaktikoak: II.6, III.1(H)-3(H)-4(H)-7(H)-8(H)-11(H)-12(H)-13(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Emango al diegu gurasoei Galtzagorrien errezeta etxean ere edari goxo hau egin dezazuen? Bai? Orduan, denon artean errezeta nola den gogoratzen saiatuko gara, gero ongi kontatzeko gurasoei etxean. Konforme?*

Hezitzailea, hurrek esaten dutena arbelean idazten joango da eta, zerbait gaizki esaten badute, galderen bidez zuzentzen saiatuko da.

Errezeta lantzean, hizkuntza-konektoreei garrantzi berezia ematen ahaleginduko gara: *hasieran, ondoren, segidan, bukaeran...*

Arbelean landu ondoren, edaria nola egiten den buruz gogoratzeko esango diegu, etxean gurasoei esan ahal izateko.

Ikusiko duzuen bezala, gutunak eta, oro har, hizkuntza idatzia asko lantzen dugu, baina noizbehinka memoria lantzea ere garrantzitsua dela iruditzen zaigu. Halaber, ardura bat jartzen diegu hurrei bete dezaten.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

–Gogoratu ondo nola den errezeta, eta gurasoei esan etxean egiteko!

Hurrengo egunean, gurasoei zeinek esan dien galdetuko diegu.

24. Akelarrerako kapelak

Helburu didaktikoak: I.11, III.37(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: Bakarka
Materiala: 3. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Gelan haurrak kapela egiten hasi aurretik, hezitzaileak koloretako kartulinaz egindako konoak prestatuko ditu (ahal bada, haur bakoitzaren neurrira), eta barnealdean haurren izena idatziko du.

Haurrek fitxako apaingarriak margotuko dituzte, puntzoiez edo guraizez moztu, eta, ondoren, kapelan itsatsiko dituzte.

Kapela apaintzen jarraitzeko, atzealdean sorginaren ile luzea itsatsiko diote. Horretarako, koloretako artile zati luzeak egingo dituzte, eta kapelaren barrualdetik itsatsiko dituzte.

Ondoren, kapelaren puntan, zetazko paperekin egindako zerrenda batzuk jarriko ditugu.

Bukatzeko, hezitzaileak kapelei eusteko gomak jarri beharko ditu.

Orain bakarrik falta zaigu jantzia prestatzea...!

25. Akelarrerako jantziak

Helburu didaktikoak: I.9-12, II.4-9, III.8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: MOZORRORAKO JANTZIAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Sorginkeriekin hasi aurretik azaldu dugun bezala, modu errazean egin daiteke sorginaren jantzia: baserritar-jantziko gona, alkandora zuria, aurpegia zikindu... eta gelan egin dugun kapela. Ederrak geldituko dira gure sorginak!

Mozorroa lortzeko, etxekoei laguntza eskatuko diegu. Hona hemen, eredu modura, gurasoei bidaltzeko gutuna:

GURASO MAITAGARRIAK:

INAUTERIAK HURBILTZEN DIRA ETA, AURTEN, SORGINEZ MOZORROTZEA ERABAKI DUGU. ZERGATIK? BADA, SORGINEK SORGINKERIAK EGITEN DITUZTELAKO, ETA HORIXE NAHI DUGU GUK!

SORGINEN KAPELA EGITEN ARI GARA GELAN, BAINA, MOZORROA OSATZEKO, ZENBAIT ARROPA EKARRI BEHAR DITUZTE ETXETIK, ETA, HORRETARAKO, ZUEN LAGUNTZA BEHAR DUGU: BASERRITAR JANTZIAREN GONA, ALKONDARA ZURIA ETA ABARKAK.

GAINERA, INAUTERIETARAKO AKELARRE BAT PRESTATZEN ARI GARA. JASOKO DUZUE HORRETARAKO KONBIDAPENA. IKUSIKO DUZUE ZEIN POLITAK EGONGO GAREN!

ESKERRIK ASKO ZUEN LAGUNTZAGATIK, ETA MUSU HANDI BAT!

TXIRRITX

BUKAERA

26. Akelarrea antolatu

Helburu didaktikoak: I.11, III.37(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 4. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Inauteri egunean sorginez mozorrotzea erabaki dugu, eta, sorginek sorginkeriak egiten dituztenez, guk gureak egingo ditugu. Edabe magikoa prestatuko dugu, eta egun horretan edango dugu. Edabe magikoaren bitartez gauza harrigarriak egiteko gai izango gara, beste batzuen artean, indarrak hartu unitatean proposatuko dugun proiektua aurrera eramateko: ZIRKUA.

4. fitxan akelarrerako gonbitea daukazue, etxera bidaltzeko. Idatzi aurretik, eguna eta ordua zehaztu behar dira. Datu horiek zehaztu ondoren, hezitzaileak arbelean idatz ditzake, haurrek erreferentzizat har ditzaten, behar izanez gero.



Zirkua antolatuko dugu

Sorginen edabe magikoarekin indarrak hartu ditugu proiektua egiteko; orain, sorginek bezala magia egiteko prest gaude...

Proposatzen dugun proiektua osatzeko, bi lan egingo ditugu, bi sekuentzia didaktikotan: lehenean, oihaneko animaliak ezagutuko ditugu; bigarrenetan, zirkua zer den eta nola antolatzen den ikasiko dugu.

27. Horma-irudia: Oihaneko animaliak

Helburu didaktikoak: I.9, II.1-10-11-12-15, III.2(H)-5(H)-13(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Materiala: HORMA-IRUDIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Horma-irudiaren aurrean jartzerakoan, IKUSI MAKUSI jolasa egitea proposatzen dugu. Jolas horren bitartez jardueraren hasiera eta kokapena lortu nahi dugu.

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarritzko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA.
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Haurren ezagutzatik abiatu zara?
- Denbora eman diezu haurrei pentsatzeko?
- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?

- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka KOGNITIBOAK

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

Horma-irudian azaltzen diren elementuen inguruan, Tough-en hizkuntza-funtzioen 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak aktibatzen saiatuko da hezitzailea. Funtzio asko direnez, hainbat saiotan lantzea aholkatzen dugu, edota horma-irudien elementu egokienak aukeratzea. Ikusi TOUGH-en hizkuntza-funtzioen sailkapena.

28. Tradiziozko kanta: Tximua

Helburu didaktikoak: I.13, II.9(I), III.15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: 5. CDa, 23. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

TXIMUA

Entzun bai, entzun bai,
gure gaurko tximuaren ipuina.
Tximuaren ipuina!

Tximua, tximua,
zuhaitzetik erori da kaikua.
Erori da kaikua!

Buruan, buruan,
hark hartu duen kaskarrekoa!
Ai! Hau kaskarrekoa!

Isatsa, isatsa,
zintzilik jartzen du adarretatik.
Jartzen adarretatik!

Eta gero, eta gero,
lurra jo eta min du
hezurretatik!
Min du hezurretatik!

Berriro, berriro,
igotzen da lehengo
adar berera.
Lehengo adar berera!

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Ostera, ostera,
behin da berriz
erortzen da lurrera.
Erortzen da lurrera!

29. Antzezen kolektiboa

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-12(H)-13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTOREAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinaren antzezen kolektiboan sartu aurretik, komeni da ipuinaren sarrera bat egitea. Hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatu, antzezen kolektiboan dauden arauak gogoratu... (Jarduera hau hiru egunetan jarraian egitea proposatzen dugu).

Ikusi jarduera konstanteak: antzezen kolektiboa (ipuin dramatizatua).

LEHOIA ETA KILKERRA

	Behin batean, urrutiko oihan batean, lehoi indartsu bat eta kilker alai bat bizi ziren. Lehoiak Orromarru zuen izena eta kilkerak Txirritx. Goiz batean, Txirritx abesten ari zela, Orromarruk esan zuen:
Lehoia	Grrr! Nahikoa da! Kri-kri-kri soinu horrek erotu egingo nau!
Txirritx	Kri-kri-kri!
	Kilker lotsagabea! Kri-kri-kri horrekin jarraitzen du!
	Kri-kri-kri!
	Kokoteraino naukazu! Tori! Krasss!
	Atx! Aaaaatx! Hau mina! Hilko nintzela uste nuen!
	Lehoiaren atzaparkadak Txirritx zauritu zuen. Eta honela esan zion lehoiari:
Txirritx	Baina, zer uste duzu zuk, kankailu horrek? Edozer

	gauza egin dezakezula?
Lehoia	Zaude isilik, txepel hori! Nire behatz bat nahikoa da zu zanpatzeko eta!
	Harroputz kankailua! Badakit handia zarela! Baina nire lagunak hemen baleude...
	Baina zer ari zara esaten? Zure lagunak, zure lagunak.... Ostiko batez ilargiraino botako nituzke denak.
	Bai, zera!
	Baietz ba! Ni oso indartsua naiz!
	Eztabaida handia izan zuten Orromarruk eta Txirritxek. Azkenean, bakoitzak bere lagunak deituz, borroka handi bat egitea erabaki zuten.
Lehoia	Egin dezagun borroka! Nik nire lagun indartsuei deituko diet eta zuk deitu zure lagun txiki horiei!
Txirritx	Borroka? Zuek eta guk? Ados! Egin dezagun borroka!
	Eta horrela, oihaneko animalia handiek xomorro txikien kontra borrokatu zuten. Txirritxek honela animatzen zituen bere lagunak:
	Ez izan beldurrik! Bat, bi eta hiru! Zizt eta txist! Zizt eta txist, bizkar, hanka eta buru!
<i>Xomorro guztiak adoretsu.</i>	Asko gara eta irabaziko dugu! Zizt eta txist! Zizt eta txist, bizkar, hanka eta buru!
	Orromarru lehoiak ere animatzen zituen bere lagunak.
	Aurrera lagunak! Zorroztu atzaparrak eta hortzak! Bat, bi eta... hamar!
<i>Oihaneko animalia handiak harropuztuta.</i>	Bai, txiki-txikiak dira hegalari horiek! Aurrera! Bat, bi eta... hamar!
<i>Abestia abestuz</i>	Zizta-ziztaka marru-marruka, lehoia korrika kilkerraren aurka.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

	Eta hasi zen txikien eta handien arteko borroka. Milaka ziren Txirritxen lagunak.
	Zizt eta txist! Zizt eta txist, bizkar, hanka eta buru!
	Atx! Atx! Aaaaatx! Hau azkura! Gorputz osoan azkura dut! Goazen uretara!
	Zizt eta txist! Zizt eta txist!
	Atx! Aaaaatx! Ezin dut gehiago! PLAUST!
	Oihaneko animalia handiak ibai batera joan ziren gorputzak freskatzera eta sendatzera.
	Kar-kar-kar! Irabazi dugu! Irabazi dugu! Hemendik aurrera bakean utziko al gaituzue?
	Bai, bai. Bakean utziko zaituztegu. Zin egiten dugu!
	Ados! Orduan gelditu egingo gara.
	Handik aurrera, animalia txikiek ez zuten animalia handien beldurrik izan. Hala bazen, ez bazen, gu, behintzat, beti lagunak izan gaitezen!

IPUINA AITZAKIA

30. Ipuinaren abestia

Helburu didaktikoak: III.1-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 5. CDa, 22. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

LEHOIA ETA KILKERRA

Haserre dago
lehoia basoan,
kilkerraren hotsa
uda osoan.

Zizta-ziztaka
marru-marruka,
lehoia korrika
kilkerraren aurka.

Hartzak, panterak,
liztorrak, erleak,
tigreak, euliak,
denak borrokan.

Zizta-ziztaka...

Horra, lehoia,
azkuraz sutan!
Mila ziztada dauzka
sudur puntan.

Zizta-ziztaka...

31. Elkarrizketa. Zehar-lerroa: pertsonen arteko harremanak

Helburu didaktikoak: I.2, II.4-5, III.4(H)-5(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: binaka
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- Zer iruditu zaizue ipuina? Polita, ezta?*
- Ezagutu al duzue bertan ageri den pertsonaietako bat?*
- Zer egin dio Orromarru lehoiak gure lagun Txirritxen birraitona Txirritxi? Zergatik? Zer iruditzen zaizue hori?*
- Zer uste zuen lehoi harroputzak?*
- Zuek ere horrela tratatzen al dituzue ikastolako txikiak?*
- Eta, zer gertatu da animalia txiki guztiak elkartu direnean handiei aurre egiteko?*
- Handiek uste zuten erraz menperatuko zituztela animalia txikiak, ezta?*
- Ba al daki norbaitek zer den harroputza izatea?*
- Zuen ustez, zer ikasi behar dugun ipuin honetatik?*
- Txirritxen birraitonak ere Txirritx zuen izena. Hori askotan gertatzen zen, eta gertatzen da oraindik ere. Adibidez: Antonioren semea Antonio, Maddalenen alaba Maddalentxo, Mikelen semea Mikeltxo, Peperena Pepito... Zuen familian ba al da horrelakorik?*

32. Ipuinaren elkarrizketa-jolasa atzamarrekin

Helburu didaktikoak: III.1(H)-12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: binaka

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuin honetarako bi aukera eskaintzen dizkizuegu baina zuen aldetik beste batzuk sortzera gonbidatzen zaituztegu

1

<i>Haur guztiak hezitzailearen laguntzarekin.</i>	Behin batean, urrutiko oihan batean, lehoi indartsu bat eta kilker alai bat bizi ziren. Goiz batean, kilkerra abesten ari zela, lehoiak esan zuen:
Lehoia	Grrr! Nahikoa da! Kri-kri-kri soinu horrek erotu egingo nau!
Txirritx	Kri-kri-kri!
	Kilker lotsagabea! Kri-kri-kri horrekin jarraitzen du!
	Kri-kri-kri!
	Kokoteraino naukazu! Tori! Krasss!
	Atx! Aaaaatx! Hau mina! Hilko nintzela uste nuen!

2

<i>Haur guztiak hezitzailearen laguntzarekin.</i>	Lehoiaren atzaparkadak Txirritx zauritu egin zuen. Eta honela esan zion lehoiari:
Txirritx	Baina, zer uste duzu zuk, kankailu horrek? Edozer gauza egin dezakezula?
Lehoia	Zaude isilik, txepel hori! Nire behatz bat nahikoa da zu zanpatzeko eta!
	Harroputz kankailua! Badakit handia zarela! Baina nire lagunak hemen baleude...
	Baina zer ari zara esaten? Zure lagunak, zure

	lagunak... Ostiko batez ilargiraino botako nituzke denak.
	Bai, zera!
	Baietz ba! Ni oso indartsua naiz!

33. Pertsonaiak: Lehoia eta kilkerra. Memoria-jolasa

Helburu didaktikoak: I.12-13, II.4-5-16(MAT)-33(MAT), III.8-9
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: PERTSONAIEN TXARTELAK (MATERIAL OSAGARRIA)
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aurreko unitateetan egin izan dugun bezala, hainbat jarduera antola ditzakegu pertsonaien txartel guztiak eta beren izenak erabiliz:

- Memoria-jolasa, kokapen espaziala eta memoria lantzeko.
- Pertsonaien txartelak eta izenak erlazionatu.
- Txartelak eta izenak erabiliz, sailkapenak egin: beren izenean "K" letra duten eta ez duten pertsonaien multzoa; animaliak direnak eta ez direnak...

Bestalde, gogoratu pospolo-kaxetan dituzuen letrak erabiliz, zenbait jarduera antola ditzakezuela, pertsonaien txartelekin eta beren izenen txartelekin batera.

34. Animaliak multzokatu

Helburu didaktikoak: I.9, II.12-17(MAT), III.3(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinean ageri diren bi animalia multzoak abiapuntutzat hartuta, sailkapen bat egingo dugu gelako horman itsasteko. Horretarako, gauzak biltzeko paper zati handi bat hartu eta bertan bi biribil edo karratu handi egingo ditugu, bakoitzak txartel batekin. Batean, kilkerra marraztuko dugu eta, bestean, lehoia. Ondoren, haurrek ezagutzen dituzten animalia guztien izenak idatziko ditugu biribilaren barnean, bakoitza dagokion multzoaren barruan.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

–*Animalia handiek txikiak erraz gaindituko zituztela uste zuten, baina, esaera zaharrak dioen bezala, “usteak, erdia ustel”. Animalia txikiek ziztadaka irabazi zieten handiei.*

–*Zuek animalia handien izen asko dakizkizue, ezta? Ea, ba, lehoia, tigrea, elefantea... Eta animalia txikien izenak? Kilkerra, erlea, inurria...*

Normalean, animalia handi dezente ezagutzen dituzte haurrek, ez hainbeste txikiak. Hori gertatzen bada, hurrengo jarduera proposatzen dizuegu.

35. Txoko txuria

Helburu didaktikoak: I.12-15, II.2-3-4, III.16(MAT)-17(MAT)-20(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ETXETIK EKARRITAKOA
Jarduera egiteko espazioa: TXOKO TXURIA

PROZEDURA

Betiko moduan, Txoko txurian, gaiarekin lotura daukan materiala bilduko dugu, etxekoen laguntzarekin betiere.

Oraingo honetan, oihaneko animaliei buruzko informazioa bildu nahi dugu, animalia handiak zein txikiak. Animalia txikiak gutxiago ezagutzen dira orokorrean.

Txoko txurirako materiala biltzeko, ohar bat bidaliko dugu haurren etxeetara.

36. Animaliak ezagutzen. Liburutegia

Helburu didaktikoak: I.15(H), II.17(MAT), III.1(H)-3(H)-8(H)-10(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: LIBURUAK, TXARTELAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Txoko txurian jaso ditugun liburuekin eta ikastolako liburutegian lortuko ditugunekin material nahikoa izango dugu haurren artean liburuen trukaketak bideratzeko. Txoko honetan bildu ditugun animaliei buruzko liburuekin, honako jarduera hau proposatzen dugu: liburuen mailegu-zerbitzua antolatzea, liburutegietan egiten den modura.

Liburu bakoitzak txartel bat izango du, etxera eramaten duen haurraren izena eta data apuntatzeko. Bestalde, liburuak ikastolara berriz bueltatzeko epea adostu beharko da.

DATA	IZENA

37. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Animalia txikien artean jarri al dituzue eltxoak? Badakizue zer diren eltxoak, ezta? Hori da, gauetan lo gauden bitartean ziztadaz betetzen gaituzten animaliatxo txotxolo horiek! Bada, begira zein olerki polita idatzi duen Joxan Ormazabalek eltxoei buruz:*

Txokolo mokolo txingo,
 txingola mingola txango,
 txankala mankaza zart,
 zankulu zinkulu zirt!

38. Erritmo-eskema

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA


PROZEDURA

Hasiera batean, eskema erritmikoa barneratzen saiatuko gara: *dilin dilin dilin dan*. Guk eskema bera era desberdinetan planteatuko diegu, eta haurrek guk egiten duguna errepikatu beharko dute: txaloka, hankekin lurrean joz, izterren gainean joz, buru gainean...

Behin eta berriro eskema bera errepikatzen aritu ondoren, aurreko olerkiaren hitzak sartzen hasiko gara erritmoa eramaten dugun bitartean.

Ea buruz ikasten duten!

3. ZEHAZTAPEN MAILA



Harro-harro handiak
Zizti-zazta txikiak
Lagunak egin dira
animalia denak.

39. Pertsonaien horma-irudia eta izena

Helburu didaktikoak: I.11, II.4-5, III.8(H)-9(H)-27(PLAS)-28(PLAS)-29(PLAS)-30(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK,

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: PERTSONAIEN MARRAZKIAK (MATERIAL OSAGARRIA), OIHALA, ARTILEA...

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Oraingo honetan, pertsonaien horma-irudia egiteko materialak konbinatzeko proposamena egiten dugu: oihala, artilea, papera eta margoak.

Gidaren amaieran daukagun marrazkia erabiliz, horma-irudiaren marrazkia handitu daiteke era erraz batean.

Marrazkia handituta, horma-irudia egiteko zer material daukagun aurkeztuko diegu haurrei, eta, haien proposamenak kontuan harturik, denon artean erabakiko dugu zer material erabili. Proposamen gutxi egingo balute zeuek proposa dezakezue nola egin. Adibidez: artilea erabiliz, lehoiaren isatsa eta burua apainduko dugu; lehoiaren gorputza argizarizko margoekin margotuko dugu; kilkerra oihal zatiak itsatsiz osatuko dugu, eta belarra aldizkarietatik moztutako paper zatiak itsatsiz.

–Oraingo honetan, gure pertsonaien horma-irudia egiteko, margoak, oihalak, artilea eta papera utziko dizkizuet. Zer margotuko dugu

argizarizko margoekin? Eta non jarriko dugu artilea? Oihal zatiak non itsatsiko ditugu? Eta paperak? Beno, artistak! Ondo da... denak lanera!

Pertsonaia bakoitzaren azpian bere izena idatziko dugu.

40. Piztiak eta abereak

Helburu didaktikoak: I.11, II.12-16(MAT)-17(MAT)-18(MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK,

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Materiala: 5. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

–Hara, hau da hau nahasketa! Animalien hainbeste liburu ikusi ondoren, ziur nago fitxa hau super-super-super erraz egingo duzuela. Goialdean bi marrazki daude: baserri bat eta oihana. Zer egingo zenukete zuek animalia horiekin? (Nora eramango zenukete bakoitza? Nola multzokatuko zenituzkete? Nola margotuko zenituzkete? Zer kolorez inguratuko zenukete?...).

Utzi haurrei estrategiak proposatzen eta eztabaidatzen. Hezitzaileak behaketa bidera dezake hasieran, horretarako lotura logikoak (ez, eta, edo, ala...) eta koantifikatzaileak (bat, baten bat, batzuk, denak...) erabiliz, bai galderak egiterakoan, bai afirmazioak eta ukazioak egiterakoan.



Oihaneko animaliak ezagutu. Irtenaldia

HASIERA

Animaliak ezagutzeko zer egin dezakegun aztertuko dugu haurrekin. Zuen inguruan animaliak ikusteko zer aukera dagoen aztertu, eta bideragarria den irteera bat egitea proposatzen dugu.

- Cabarcenoko parkea
- Nafarroko Senda Viva
- Igeldoko Arrano Etxea
- Iruñeko Takonera parkea
- Sarako Etxola abereen parkea

Euskal Herrian aurki ditzakegun "centros de recuperacion de fauna salvaje" unitatearen bukaeran topa ditzakezue horiei buruzko argibideak.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Irteera horiek zailak iruditzen bazaizkizue, zomorro txikien behaketa proposa dezakezue zuen ikastola inguruan.

41. Abestia: Afrikan nago

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 5. CDa, 26. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

AFRIKAN NAGO

Afrikan nago, beltzen artean,
Tarzanen ondoan Txitarekin batean.
Abere denak lagunak ditugu,
amets ederrena bizi dugu.
Tunba, tunba, tunbango, ula, ula, o!

Tximuak zuhaitzetan, jirafak belazetan,
sugeak oihanetan, krokodiloak uretan. Tan! Tan!

Tunba, tunba, tunbango, ula, ula, o!

GARAPENA

42. Gurasoentzako gutuna: oihaneko animaliak ezagutzen

Helburu didaktikoak: I.11, II.4-5-26(MAT), III.8(H)-9(H)-10(H)-20(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Afrikan animalia asko bizi dira eta gehienak oso politak dira, ezta?

–Hemendik aurrera, Afrikako animaliak hobeto ezagutuko ditugu igarkizun, olerki, abesti eta jolas batzuen bidez. Konforme?

–Eta, gehiago ikasteko aukera izan dezagun, hezitzaileak gutun bat idatziko die zuen gurasoei. Bertan, bi gauza eskatuko dizkie: batetik, etxean aurkitzen dituzuen oihaneko animalien argazkiak ekarri behar dituzuela ikastolara; eta bestetik, zuen etxeko liburuetan agertzen diren animalietatik bat aukeratu behar duzuela, eta horri buruz kontatzen denarekin gutun txiki bat idatzi behar digutela. Zenbat ikasi behar duguuuuuuun!

Hona hemen gurasoentzako gutun eredu bat:

NIRE LAGUNTZAILE ZINTZO ETA LEIALAK:

ZER MODUZ PASA ZENUTEN AKELARREAN? OSO DOTORE ZEUDEN ZUEN SEME-ALABAK, EZTA?

INAUTERIAK PASATA, OIHANEKO ANIMALIEI BURUZKO HAINBAT GAUZA IKASTEN JARRAITUKO DUGU, ETA ZUEN DENBORA PREZIATUTIK UNETXO BAT ESKATU NAHI DIZUET ZUEN SEME-ALABEI ESKAINTZEKO.

SEME-ALABEKIN BATERA, BEGIRA ITZAZUE ETXEKO LIBURUETAN EDO ENTZIKLOPEDIETAN AGERI DIREN OIHANEKO ANIMALIAK. HORIEN ARTEAN, HAURRAK BAT AUKERA DEZALA, ETA, LIBURUKO INFORMAZIOARI JARRAITUZ, IDATZ EZAZUE LAU LERROKO GUTUN LABUR BAT ANIMALIA HORREN INGURUAN.

ZUEK IDATZITAKOA IKASTOLAN IRAKURRIKO DUGU, ETA DENEN GUTUNEKIN ALDIZKARI BAT OSATUKO DUGU.

BESTALDE, ANIMALIEN ARGAZKIAK EDO ARTIKULUAK LORTZERIK BADUZUE, BIDALI ZUEN HAURREKIN, MESEDEZ.

MILA ESKER ZUEN LAGUNTZAGATIK, ETA HURRENGORA ARTE.

TXIRRITX

Etiket ekarritako gutun guztiak korroan irakurri ondoren, aldizkari bat osatuko dugu gelako Txoko txurian edukitzeko. Guztion artean formatua erabakiko dugu, orrialde kopurua, azala, egileen zerrendari buruzkoak... Aukera izanez gero, fotokopiatu eta haur bakoitzari ale bat eman etxera eramanez.

43. Igarkizunak

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-2(H)-5(H)-8(H),-9(H)-12(H)-13(H)-14(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Ea asmatzen duzuen zer animalia diren igarkizun hauetan ageri direnak!

Ba al dakizu
igarle jakintsu
zein den ezagutzen duzun
elerik handiena?

(elefantea)

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Ez du hankarik eta
lurretik dabil,
ez du besorik eta
zuhaitzetan kiribil.

(sugea)

Zein da, zein da,
hankak lurreraino eta
lepoa bururaino
iristen zaizkion animalia?

(jirafa)

Joxan Ormazabal

Asto bat nintzen aspaldi,
behin nuen pijama jantzi
eta orduz geroztik,
ez dut sekulan erantzi.

(Zebra)

Animalia jatorra naizenez,
bide bat dago nire omenez.
Zein animalia naizen igarri ezetz!

(Zebra)

Zaldi arrastoduna
etzanik kale erdian
haren gainetik igaro gaitzezen
autoen artean.

(Zebra)

Animalia honen antz handien
duen hitza tximinia da.
Zein ote animalia?

(Tximinoa)

Hiztegi-txarteletan hainbat animaliaren irudiak eta izen idatziak dituzue (elefantea, tximua, krokodiloa...). Txartelak bana ditzakezue eta horien deskribapenak eginez igarkizunak sor ditzakete haurrek. Irudietan azaltzen ez diren animalien igarkizunak asmatzera ere gonbidatu.

Froga txiki bat egin dezakezue: animaliarene izena idatzita duen txartela bat eman, baina irudirik gabea. Ea inork asmatzen duen zer jartzen duen. Ondoren, igarkizuna egin daiteke.

Igarkizunak mimikaz ere adieraz ditzakete, imitatuz animalien ibilerak, gorputz-atalak...

44. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiela: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hemen duzue oihanean bizi den beste animalia bati buruzko olerkia:

Krokodiloak
gaurkoan ere
bere ahoa ireki,
baina andreak makila batekin
buruan jo du ederki.

Antton Kazabon

45. krokodiloak

Helburu didaktikoak: I.11-16, II.33(MAT), III.27(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiela: 6. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Ikusten al dituzue fitxa honetan margotuta ageri diren krokodiloak? Nora begira dago marroiz margotuta dagoena? Eta berdez margotuta dagoena?

–Ondo-ondo beha iezaiezue bai ereduari eta bai beste krokodiloei, eta margotu krokodilo guztiak dagokien kolorearekin.

46. Abestia: *Han zeuden*

Helburu didaktikoak: I.6-13-15, III.1(H)-4(H)-14(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiela: 5. CDa, 31. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

HAN ZEUDEN

Han zeuden krokodilo eta tximua,
arratoi txiki eta ardi txuria.
Katu, oilo, elefante...
ez zen ezer falta!
Ez dakit ondo esan dudan...
Goazen berriro hastera!

Abestearekin batera, animalia bakoitza identifikatzen joango gara mimikaren bidez.

47. Tximu bakoitzari bere platanoa

Helburu didaktikoak: II.16(MAT)-21(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: 7. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Ikasi dugun abestiak zioenez, krokodiloa eta tximua elkarrekin zeuden, baina nik ez dakit hori posiblea den! Zer uste duzue egingo ziola krokodilo batek tximu bati ondoan edukiko balu? Aaaaum, ezta? Bai, nik ere horixe uste dut!

–Aizue, eta ba al dakizue zer jaten duten tximuek? Galdera hau oso erraza zen! Platanoak, bai jauna! Tira, beste gauza batzuk ere jaten dituzte platanoez gain...

–Fitxa honetan bost tximu eta bost platano ageri dira. Nik jakin nahi dut tximu bakoitzari zer platano emango zenioketen. Pentsatu ondo ezer egiten hasi aurretik, eta, ea zer erabakitzen duzuen!

Normalean, hurrek guk bezala pentsatuko dute, hau da, tximu handiari platano handia; txikiari, platano txikia... baina behar bada norbaitek beste era batera pentatuko du. Adibidez: platano handia tximu txikiari, eta platano txikia tximu handiari. *Txikiak gehiago jan behar duelako handi-handia egiteko!*

48. Abestia: Tximino bat ikastolan

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-14(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: librea
Materiala: 5. CDa, 25. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Imajinatzen al duzue tximino bat gure gelara etorriko balitz? Zer gertatuko litzateke?

–Eta zuek ba al dakizue nola ibiltzen diren tximinoak? Ea, goazen imitatzer!

TXIMINO BAT IKASTOLAN

Tximino bat ikusi dut ikastolan,
adarrez adar, salto-saltoka.

Platano bat Ainhoari kendu eta
teilatu punta-puntara igo da.
Azalak kalera bota eta gero
zuhaitz artean gorde da aguro.

Tximino bat ikusi dut ikastolan...

49. Abestia: Ikus ikusian

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-14(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENEA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: librea

Materiala: 5. CDa, 30. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Orain ikasiko duguna abesti-igarkizuna da, bukaeran zein animalia den asmatu behar dugulako. Prest al zaudete entzuteko?

Abesti hau ere gorputz-adierazpena erabiliz abestu.

IKUS IKUSIAN

Ikus ikusian,
teilatu gainean,
kristo(re)n aberea
triziklo batean,
tronpa du aurrean,
isatsa atzean.
Ja, ja, ja, ja...
Elefantea da!

50. Musika-tresnak eta animaliak

Helburu didaktikoak: I.6-7-8-9-10-13-14-15, II.5, III.14(H)-26(MUS)-27(MUS)-28(MUS)-29(MUS)-30(MUS)-31(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENEA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Taldekatzea: TH

Materiala: MUSIKA TRESNAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hiru musika-tresna aukeratuko ditugu: panderoa, kriskitinak eta klabeak.

Panderoarekin nota zurien erritmoa markatuko dugu (*doon*), eta elefantearekin erlazionatuko dugu.

Kriskitinekin gelditu gabe joko dugu, eta sugearekin erlazionatuko dugu.

Klabeekin beltzen erritmoa markatuko dugu, eta tximuarekin erlazionatuko dugu.

Jolasten hasi aurretik argituko diegu haurrei zer egin behar duten:

–*Jolas honetarako, pentsatu behar dugu oihanean pozik eta libre bizi garen animaliak garela.*

–*Panderoarekin “doon, doon...” jotzen dudanean, elefanteak izango zarete, eta beraien erritmoan ibili beharko duzue (erritmo mantsoarekin gabiltzan bitartean, besoa aurpegiaren aurrealdean jarri tronpa balitz bezala).*

–*Kriskitinak jotzen ditudanean, sugeak izango zarete eta lurretik arrastaka ibili beharko duzue.*

–*Eta klabeekin “dan, dan, dan, dan...” jotzen dudanean, tximuak izango zarete, eta beraiek ibiltzen diren moduan ibili beharko duzue, baina... erritmoari jarraituz!*

Argibideak eman ondoren, jolasten hasiko gara eta musika-tresna eta animaliak tartekatzen joango gara haurrak aspertu arte. Haurrek nahi izanez gero, utzi haiei ere erritmoak sortzen, ea besteek interpretatzeko modukoak egiten dituzten.

51. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.5, III.1(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Lehen, elefantearen abestia ikasi badugu, orain J. K. Igerabideren olerki eder hau irakurriko dugu.

Mendia dator nigana,
elefante bat da,
elefantea da;
euri usain gozoa
gorputzean darama,

elefante bat da,
elefantea da;
globo antzera gora joan
eta astindu du bizkarra,
elefantea da,
hodei handi bat da.

J. K. Igerabide

52. Elkarrizketa. Zehar-lerroa: ingurugiro-hezkuntza

Helburu didaktikoak: II.5-12-15, III.4(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Orain arte Afrikako oihanean bizi diren animaliei buruz hitz egin dugu. Orain, animalia horiek zoologikoetan edo zirkuetan zertarako giltzaperatzen dituzten eta zer egoeratan egoten diren aztertuko dugu.

–Zertarako uste duzue sartzen dituztela animaliak zoologikoetan edo zirkuetan?

–Zoologikoetan edo zirkuetan egongo ez balira, aukera izango al genuke animalia horiek ezagutzeko? Nola?

–Zuetako norbait izan al da inoiz zoologiko batean? Bai? Nongoan? Zer iruditu zitzaizuen?

–Zer alde on eta zer txar ikusten diozue animaliak horrela edukitzeari?

–Zoologiko batean animaliak zoriontsu biziko direla uste al duzue?

–Ikusi al dituzue inon animaliak sasi-askatasunean?

–Zoologikoan ez bada, non ikus ditzakegu oihaneko animaliak? Telebistan? Zirkuan?...

53. Zer ari da gertatzen hemen?

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-5, III.16(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, PROBLEMEN EBAZPENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: 8. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Fitxa honetan lehoia oso triste dago giltzaperatuta dagoelako. Hori izan daiteke, behar bada, zuek ikusi dituzuen animalien kasua da.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Fitxa honen aurrean, beste zenbaitetan egin izan duguna errepikatuko dugu.

Hitzez adierazi

- Ikusten dena deskribatu, arazoa identifikatu, norberaren sentipenak kanporatu, hipotesiak formulatu...
- Izenburua proposatu (ahal dela ideia nagusira hurbildu).

Printzipioa formulatu

- Zer ikas dezakegu hemendik? Animaliek ere sufritzen dutela; hobe genukeela animaliak beste era batean edukitzea; kaiolan eduki beharrean, sasi-askatasunean, adibidez...
- Beste testuinguru eta egoeretan aplikatu. *Imajinatzen al duzu kaiola batean bizi zarela eta egunero-egunero milaka pertsona zure aurretik pasatzen direla zu ikusteko?*

Idatzi

- Fitxaren hasierako egoeran lehoiak zer pentsatzen duen idatzi, eta baita haurrek beraiek marraztutakoan ere. Hortik ateratzen den printzipioa ere idatz daiteke, nahi bada.

Elkarrizketa sortu eta dramatizatu

- Taldean egin daitezkeen zenbait galdera:

–Zer ikusten dugu irudi honetan?

–Osatuta al dago istorioa?

–Zer gertatzen da irudian?

–Zer nahiko zenukete gertatzea?

Hori guztia landu ondoren, zuziz dagoen espazioan lehoia marraztuko dute beraiek nahi duten egoeran. Denbora izanez gero, taldean hitzez adieraziko dute zer marraztu duten eta nola.

54. Jolas-kanta: *Magila*

Helburu didaktikoak: I.9-13-15, III.1(H)-15(H)-48(H)-30(H)-32(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 5. CDa, 24. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Zoologikoan zeharo zoriontsu bizi den animalia da Magila gorila. Haurrak izugarri atsegin ditu eta beti dantzan ari da. Nahi al duzue zuek ere berarekin dantza egin?

MAGILA

Atzo Magila ikusi nuen,
Magila hasi zen dantza(tze)n.
Dantzan bugi-bugi,
dantzan bugi-bugi,
eta ondo pasa!

55. Irtenaldia

Helburu didaktikoak: II.5, III.3(H)-5(H)-6(H)-7(H)-8(H)-9(H)-11(H)-12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Binaka/B

Materiala: 9. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Ohar labur baten bidez, animaliak ikustera egingo dugun irtenaldiaren berri emango diegu gurasoei. 9. fitxa baliatuko dugu horretarako.

Idatzi aurretik

Sekuentzia didaktikoaren hasieran irteeraren aukera aipatu genien; orain gogorarazteko unea dugu.

Animalien zirkua antolatzeke, eta, nahi izanez gero animaliaz mozorrotzeko, animaliak ezagutu behar ditugu. Fitxaren behaketa bidera dezakegu talde handian: zertarako idazten dugun azaldu eta oharraren beharra eta funtzioa azpimarratu.

Planifikazioa

Oharran Idatziko duguna adostu behar dugu. Data eta ordua alde aurretik aurreikusia egongo da, baina *zertarako* atala denen artean adostu daiteke. Binaka/hirunaka jarrita, hortaz pentsatzeko denbora tarte bat eman eta, ondoren, talde handian aukerak bildu.

Testualizatu

Haurrek bakarka beteko dute fitxa. Alde batetik, aurrez adostutako datuak eta, bestetik, sortu diren aukeretako bat. Hezitzaileak aukerak gogora ditzake idazteko mementoan hala eskatzen badute.

Berrikusi

Etxera bidali aurretik, talde handian elkartu gaitzke berriro eta denen artean eredu batzuk berrikusi.

Etxekoek ulertu behar dute jartzen dugun informazioa, beraz, transkripzioa egin beharko du hezitzaileak.

BUKAERA: Irtenaldia egin ondoren...

56. Ikusi ditugun animaliak

Helburu didaktikoak: II.1-2, III.11(H)-12(H)-13(H)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: PAPERA, ARKATZAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Irteera egin ondoren, ikusitakoa gogoratuko dugu eta haur bakoitzarentzat zer izan den esanguratsuen idatziko dugu.

*–Ondo pasa genuen parkean ezta? Animalia asko ikusi genituen.
Niri gehien gustatu zitzaidana izan da. Eta zuei?
–Eta zirkuan zer animalia aterako ditugu? Hortaz pentsatzen hasi beharko dugu!*

Egun hauetan ikasi dituzten animaliak gogoratzea eta horietako hiru animalien izenak idaztea proposatzen diegu.
Beti bezala **idatzi aurretik**, komeni da fitxaren behaketa talde handian bideratzea. *Zer esango digu oraingoa Txirritzek?*

Testua Planifikatu

*–Non idatzi beharko dugu animalien izenak?
–Nondik hasiko gara, zein zenbakitatik?*

Hori dena talde handian egin ondoren, binaka edo hiru jarrita, hiru animalia gogoratzeko ahalegina eskatuko diegu.
Zerrenda bat osatu ondoren, bakarka idazteko unea iritsi da.

Testualizazioa

Hurrek hiru animalien izenak idatziko dituzte, aipatu ditugunak edo gogoratzen duen berriren bat.
Osatu dugun zerrendak ez dauka helburutzat kopiaketa bideratzea, ereduak ematea baizik; hala ere kopiaketaren estrategia egokia da.

Berrikusi

Berrito talde handira pasako gara egindako lana taldean partekatzeko.

57. Entzunaldia

Helburu didaktikoak: I.7-8, III.26(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ULERMENA
Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 5. CDA. 32. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Aizue, egin al duzue irteera? Eta idatzi al duzue zer animalia ikusi dituzuen? Nik inondik aurkitzen ez dudan animalia zezena da. Zezenak oihanean bizi al dira? Ez, ezta? Banengoen ba! Baina, era berean, ez dira oso animalia mantsoak, e? Ni, behintzat, ez nintzateke haien aurrean jarriko! Zer beldurra! Zuek jarriko al zinatekete zezen baten aurrean, San Ferminetako entzierroetan bezala? Ea, zeinek esan du baietz? Ui, ui, ui... ez dakit ba!

–Zezenen aurrean jartzen direnak entzierroetan parte hartzen duten gizon-emakumeak eta toreatzaileak dira. Ba al dakizue zer den toreatzaile bat?

–Orain entzungo duzuen musika Bizet musikagilearena da; Carmen operaren zati bat da. Bere izenburua "Toreatzaileak" da. Ooole! Lurrean etzan eta lasai-lasai entzun, ea zer iruditzen zaizuen.

–Musika entzun aurretik, jakin nahi al duzue nor zen Bizet?

Bizet, Georges. Konpositore frantsesa (Paris, 1838 - Bougival, 1875). Gazterik hil zen arren, antzerki eta opera-lan aipagarriak utzi zituen (*Arlesienne*, 1872; *Carmen*, 1875).



Zirkua antolatu

HASIERA

Zirkua antolatzen hasteko, orain arte egindakoa gogoratuko dugu. Ohianeko animaliak ezagutu ditugu; horretarako, liburuak, aldizkariak eta argazkiak ikusi ditugu, eta irteera ere egin dugu. Gure helburua animalien zirkua egitea denez, ez dugu ahaztu behar animalien aukeraketa egin behar dugula eta, bestetik, zirkua nola antolatu hurrekin argitu behar dugula.

58. Abestia: Zirku bat datorkigu

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-14(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: LIBREA

Materiala: 5. CDa, 27. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Gustatu al zaizue entzun dugun musika? Polita eta alai zen, ezta?

–Baina, baina... zer da hori? Entzuten al dituzue turutak eta danborrak? Ez? Urruti-urruti entzuten dira, baina... Ai ene! Uste dut badakidala zer den! Ez

3. ZEHAZTAPEN MAILA

*al duzue entzuten? (zeuek egin... Pra-pra! Pra-pra! Tzunpa-tzunpatzun!)
Benetan ez duzuela entzuten? Bada... hobeto entzun dezazuen CDa jarriko
dugu. Ea asmatzen duzuen zer den!*

ZIRKU BAT DATORKIGU

Zirku bat datorkigu,
kaletik ikusi dugu.
Tzunpa, tzunpa, tzunpa, tzun!
Atzetik joango gara gu.

Aurretik elefanteak,
mugituz sudur luzeak.
Dunba, dunba, dunba, dun!
Ipurtandiak astinduz.

Pra-pra! Pra-pra!
Tzunpa, tzunpa, tzun!
Pra-pra! Pra-pra!
Tzunpa, tzunpa, tzun!

Zirku bat datorkigu...

Lehoiak kaiolan doaz,
begira gaude ikaraz,
haien hagin zorrotzak!
Saltoka daukat bihotza.

*Pra-pra!...
Zirku bat datorkigu...*

Tximino bat komerika,
lurretik dabil jiraka.
Barrez gaude begira.
Gure beldurrak joan dira.

*Pra-pra!...
Zirku bat datorkigu...*

Algaraz eta oihuka
hemen datoz pailazoak
haur artean banatuz
puxikak eta muxuak.

Pra-pra!...

–Orain ba al dakizue zer den? Horixe baietz, ZIR-KU-A!

Abestia, nahi baduzue, gorputz adierazpenez lagunduta abes dezakete.
Sortzen duzuen koreogarfia gure zirkuaren emanaldiaren hasierako
desfilean erabili daiteke.

59. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.5, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Sartu da herrian
elefante letagin biko;
gainetik, ipotxak, oihuka:
"zirkua, zirkua!"

Pailazo batek esan du "karneta!"
Besteak erakutsi dio korneta.
Halakoak sarri gure elkarrizketak.

Elefantea
hostoak eta hostoak jaten:
horretan ez da tronpatzen.

Aingeruen orfeoiak
zeruan sol-fa-si:
lepoa luzatu zaio jirafari.

J. M. Irigoien

GARAPENA

Inauteriak hilabete honetan izando direla kontuan hartuta, zirkua lantzea da gure proposamena. Zirkua antolatzen hasteko, ideia batzuk ematen dizkizuegu hurrekin lantzeko.

Ondorengo jardueretan, emanaldian egiteko zenbait proposamen egiten dizkizuegu. Zirku batean oinarritzko pertsonaia batzuk beharko dutugu:

Zirkuko aurkezlea: pertsonaia hau inportantea da zirkuan. Ez da zertan haur bakar bat izan; batzuen artean bana dezakete aurkezpenaren ardura.

Pailazoak

Animaliak: hurrekin batera erabaki dezakezue zer animalia mota eta zer kopuru.

Animalien domatzaileak

60. Elkarrizketa

Helburu didaktikoak: II.4-5, III.1(H)-14(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: ----

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Denek ezagutzen al duzue zirkuak?

–Zein ez zarete inoiz zirku batean izan?

–Izan zaretenek kontatuko al diezue besteei zer den zirku bat eta zer ikusten den bertan?

–Zer animalia egoten dira normalean zirku batean?

–Zirkuan animaliak ondo zainduta daudela uste al duzue? Non uste duzue egongo direla hobekien, zirkuan ala oihanean? Zergatik?...

Hezitzaileak hemen agertzen diren ideiak apuntatzen joango da, zirkuaren antolaketan kontuan hartzeko.

61. Artelana

Helburu didaktikoak: III.17(PLAS)-18(PLAS)-19(PLAS)-23(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 10. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Seurat, Georges

Pintore eta marrazkilari frantsesa (Paris, 1859-91). Neoinpresionista eta puntillista izan zen. Lege optikoen ikerketetan oinarritu zen, (oinarrizko) kolore primario eta sekundarioak zituzten puntuz osatutako koadroak eginez (*Bainua*, 1884; *Igande arratsaldea Grande Jatte*-n, 1886; *Modeloak*, 1888). Puntillismoaren sortzaile eta maisu izan zen.

Bere paleta lau oinarrizko kolorez (gorria, berdea, urdina eta horia) eta tarteko zortzi kolorez osatuta zegoen. Kromatismo mugatu horrekin, Seuratek Zirkuari buruzko serieari ekin zion. “Le cirque” (1889 eta 1890 urteen artean margotua) bukatu gabe geratu zen gazterik hil baitzen margolaria, 31 urterekin. Baina bere benetako obra, puntillismoaren iraultza, osatua zuen jada.

Artelan honen ezaugarrietako bat “puntillismoa” da (puntillistak argiaren teoria fisikoan oinarritu ziren beren lana garatzeko). Era simple batean esanda, margolariak puntu txiki-txikiak erabiltzen ditu formak irudikatzeko eta kolorea (argia) adierazteko.

Froga batzuk egin ditzakegu teknika hau erabiliz (errotulagailua aholkatzen dizuegu). Puntuak elkarrengandik oso hurbil jarriz gero, kolore kontzentrazio handia lortuko duzue. Elkarrengandik urruti jarriz gero, argiagoa. Bi kolore primario (urdina + horia) tartekatuz gero, hirugarrengo kolore bat "ikus" ahal izango dugu. Froga hau dagoeneko egin genuen 4. unitatean (*Horra! Horra!*); nahi baduzue berriro egingo dugu. Paperean "froga espazioa" mugatu zirkunferentzia baten bidez, adibidez. Ikasleak saia daitezela puntuak bertikalki, finak eta neurri berekoak egiten. Kolore nahasketari ekitean, puntuek euren artean ahal den ekidistantziarik handiena manten dezatela.

Adin honetan froga honek zailtasunak baditu ere, motibagarria izan daiteke. Dena den, koloreen nahasketaren ondorioz sortzen diren kolore berriak egiaztatzeko tenperak ere erabil ditzakezue. Lan hau egiten baduzue, ez litzateke soberan egongo, bukaeran, prozesua kartulina batean grafikoki adieraztea, kolore mantxak (zetakak) erabiliz. Adibidez:

gorria	+	horia	=	laranja
urdina	+	horia	=	berdea

62. Elkarriketa: zirkua antolatu

Helburu didaktikoak: I.12, II.4-5, III.4(H)-5(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gogoratu elkarriketa planifikatzeko puntuak.

Elkarriketa honen bitartez, gelako zirkua antolatzeko haurrak motibatu egingo ditugu.

–Aizue, zer irudituko litzaizueke guk ere ikastolan zirku bat egingo bagenu? Primerakoa, ezta? (Ea zer esaten duten hurrek!)

–Eta, nola antola dezakegu? Zer animalia aterako dira? Eta pailazoak ere egon beharko dute, noski! Eta, animalien domatzailea ere egongo da?..

Utzi hurrei ideiak botatzen, baina zeuek ere gauza bat eduki behar duzue garbi: aurrerago planteatzen dugun proiektuan atera behar direla pailazoak, domatzailea, aurkezlea, lehoiak, tximuak eta elefanteak; beraz, horretara bideratu behar dituzue haurrak.

–Eta nor izango dira gure zirkuko ikusleak? Iragarkiak jarri beharko ditugu ikastolan!...

3. ZEHAZTAPEN MAILA

63. Gure zirkua

Helburu didaktikoak: I.11, III.8(H)-9(H)-19(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: 11. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Fitxa hau, zirkuko proiektuaren inguruan egingo ditugun fitxen azala izango da. Beraz, gelditzen diren fitxak elkarrekin jarri eta gurasoei bidaltzeko zirkua inguruko aldizkaritxo bat bezala planteatu daiteke.

–Ikusten al duzue zirkua hau? Goiko aldean margotuta dauka, baina beheko karpan ez dakigu zer gertatu den eta margotu gabe dago. Margotuko al duzue kolore egokiek?

–Zer izen jarriko diogu gure zirkuari?

64. Zirkuko animaliak

Helburu didaktikoak: I.12, II.12-16(MAT)-19(MAT)-21(MAT)-22(MAT)-23(MAT)-25(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 12. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Haurrek kaiola bakoitzean zenbat animalia dauden zenbatu eta dagokion zenbakiarekin lotu behar dute. Talde handian, behaketa bideratu eta guztion artean eztabaida dezakezue. Hurrei zer eta zergatik egingo luketen adierazteko aukerak eskaini. Nahi baduzue, horrez gain beste alderdi hauek ere lan ditzakezue:

–Zer dago irudi honetan? Zer dute komunean trenean doazenek? Trenean doazen guztiak animaliak al dira? Trenean doazen guztiak (bakarren bat, bat...) lehoiak al dira? Lehoi guztiak animaliak al dira? Eta tximu guztiak?... Eta animalia guztiak tximuak al dira?

–Jirafak tximuak baino handiagoak dira, baina, gehiago al daude? Lehoiak tximuak baino handiagoak dira... Handiena beti al da gehiago?

-Lehoi guztiek izango al dute janaririk? Eta tximu guztiek?... Zenbana pieza tokatu zaie?

–Guk egingo dugun zirkurako animalia Hauek aukeratuko al ditugu? Eta ez baditugu hauek aukeratzen, zein aukeratuko zenituzkete?

65. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, II.23(MAT), III.1(H)-4(H)-7(H)-8(H)-9(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

DILIN DALAN DILUNDA
Elefantea nun da?
DOLIN DALIN DOLONDO
Zirkuan omen dago.
DINDIN DUNDUN DONDON DAN
Hortxe dabil zirkuan
dado baten gainean
elefantea dantzan
DONDIN DAN.

Joxan Ormazabal

–Zein da olerki honetan gehien errepikatzen den soinua? Idatziko al dugu eta ikusiko al dugu zein den gehien ikusten dugun letra? (24 "D" eta 21 "A")

Olerki hau erraza denez, ondo legoke zati bat ikastea, bukaeran antolatuko dugun zirkuan aurkezleak errezitatzeko.

66. Abestia: *Pailazoaren txorakeriak*

Helburu didaktikoak: III.1(H)-15(H)-30(MUS), III.32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 5. CDa, 28. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Orain arte zirkuko animaliez hitz egin dugu, baina zein da zuentzat zirkuko pertsonaiarik maitagarriena eta dibertigarriena? Horixe! PAILAZOA! Entzun, entzun abesti polit hau.

PAILAZOAREN TXORAKERIAK

Ai, oi, pailazoaren txorakeriak
zaizkigu guri gustatzen:
zapata handi, galtza zabalak
eta gorbatak, eta gorbatak
lepoa diola estutzen.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

*Lara, lara, lararan, lara
lara, lara, lararan, lara
tarran, tarran, tarran, tarranpatan.*

Ai, oi, pailazoa dabil salto (e)ta brinko
txiste politak kontatzen:
sudurra zuri, begiak gorri,
eta masailak, eta masailak,
eta bi masailak orlegi.

Lara, lara, lararan, lara...

Erritmoa markatu, eta, nahi izanez gero, “*tarrapatan*” turuta joz bezala adierazi.

67. Txistek kontatzen eta idazten

Helburu didaktikoak: I.5, II.5, III.1(H)-4(H)-5(H)-8(H)-9(H)-12(H)-13(H)-14(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Abestian entzun dugun bezala, pailazoez txiste politak kontatzen dituzte. Ba al dakizue zuek txistek kontatzen? Nork kontatuko digu txisteren bat?

Kontuan izan adin honetako haurrentzat txiste bat barregarria izateko, normalean kakak edo pixak agertu behar duela. Honako hau izan liteke txiste tipiko bat:

“Joan zen neska bat parke batera, eta pixa egiteko gogo sartu zitzaion, eta pixa eta kaka egin zuen”.

Askotan, guretzat txorakeriak direnak, beraientzat oso txiste barregarriak izan daitezkeenez, pazientzia pixka batekin onartu beharko ditugu.

Ondoren, kontatzen dituzten txisteen artean batzuk aukeratuko ditugu gure zirkuko pailazoez emanaldian kontatzeko. Marrazki bat egingo dute, eta azpian txistea idatzi, horrela, emanaldiaren egunean gogoratuko dute.

Bukatzeko, haurrei “etxerako lan” txiki bat bidaliko diegu: gelan aukeratutako txistea gurasoei etxean erakutsi eta kontatuko dute. Ondoren, gurasoez dakiten bat idazteko eskatuko diegu, eta ikastolara ekarriko dute, Horrela, gure zirkuko emanaldirako aukera gehiago izango ditugu.

68. Pailazoak margotzen

Helburu didaktikoak: I.11-16, III.33(MAT)-34(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/B/Binaka
Materiala: 13. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Ikusten al duzue pailazo hau? Osatu gabe dago. Osatuko al duzue zuek?

–Baina ikusten den alde bezalakoa margotu behar duzue bestea! Berdin-berdin! Asmatuko al duzue?

Marrazki honetan irudi geometrikoak aurki ditzakegu (biribila, zirkulua eta hirukia), eta, hori aprobetxatuz, irudioi begiratu eta izendatuko ditugu. Ondoren, nahi badute, neurri desberdinetako irudi geometrikoak emango dizkiegu paperean marraztuak, moztu ditzaten eta haiekin konposizioak egin ditzaten (errealak ala ez).

69. Esaera zaharra

Helburu didaktikoak: II.9, III.15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, MOTIBAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

“Zirku guztixetan pailasoak” (Gotzon Garate)

Zer esan nahi du, zuen ustez, esaera zahar horrek?

70. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Pailazo sudur gorria,
zapata bat zaharra,
bestea berria.
Elurra bezain zuri
dauka aurpegia.
Batzuetan negar,
besteetan irria.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Ijilijji ajalajaja!
Indartsu dauka eztarria
alaitu nahi duelako
Euskal Herria.

Joxan Ormazabal

71. Pertsonaien aukeraketa

Helburu didaktikoak: I.4-5-9, II.1-4-5-21(MAT)-23(MAT)-27(MAT), III.4(H)
Etengabeko ebaluazioa: PROBLEMEN EBAZPENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZKEOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gure zirkuan, lehoiak, elefanteak, tximuak, pailazoak, domatzailea eta aurkezlea(k) aterako direnez, oraingo jarduera honetan, gelako haurrek pertsonaia bat aukeratu beharko dute. Aurrerago, 16. fitxan, hogeita sei haurren zirkua planteatu dugu, baina nork bere gelako haurren kopuruaren arabera antolatu beharko du.

–Gure zirkua antolatzeko, pertsonaiak banatu behar ditugu. Nork izan nahi du aurkezlea? (Ateratzen direnen artean zozketatu) Eta domatzailea? (berdin)

–Beste guztiak lehoiak, elefanteak, tximuak edo pailazoak izan zaitezke. Talde bakoitzean sei (taldearen arabera) lagun bilduko zarete. Lehoiak izan nahi duzuenok, arbel ondoan jarri; elefanteak izan nahi duzuenok, atearen ondoan; tximuak izan nahi duzuenok, plastika-txokoan, eta pailazoak izan nahi duzuenok, antzerki-txokoan.

Talde guztietan ez dira haur kopuru berak bilduko, seguruenik. Kopuruak orekatzeko, egoera hori baliatuko dugu matematika lantzeko: zenbat haur dauden soberan talde batean, zenbatek joan beharko luketen beste talde batera sei gelditzeko (taldeari egokitu kopurua), zein multzotan dauden haur gehien, non gutxien...

Jarduera honen bukaeran, haur bakoitza zein taldetan dagoen idatziko dugu arbelean, eta zirkua egin arte idatzita mantenduko dugu.

72. Lehoiaren eta beste pertsonaien mozorroak

Helburu didaktikoak: I.11-12, III.16(H)-17(PLAS)-18(PLAS)-19(PLAS)-20(PLAS)-21(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: MATERIAL OSAGARRIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Material osagarrian dauden diren kareta erabili ditzakezue zirkuko pertsonaien mozorroak egiteko.

Lehoiaren kareta egiteko, margoak eta artilea edo espartzua (laranja, horia) erabil dezakegu. Bakoitzak nahi duen bezala margotu ondoren, artile/espartzu zati batzuk moztu eta kareta atzealdean kolaz itsatsiko ditu, lehoiaren ilea egiteko.

Lehoiaren mozorroa osatzeko, isatsa egin dezakete, soka zati batzuei artile/espartzu laranja itsatsiz.

Beste mozorroak nola egin ere aztertu beharko dugu:

–Nola mozorro daitezke elefantearena egingo duten haurrak? Eta pailazoak? Eta tximuak? Eta domatzailea? Eta aurkezlea?

Mozorro hauek nola egin, zuen eta gelako haurren esku uzten dugu. Gurasoei laguntza eskatzea ere interesgarria izan daiteke, baina sormen edo denbora aldetik eskas samar bazabiltzate, eta gurasoengana beste behin jo nahi ez baduzue, gidan aurkituko dituzue pertsonaia horien kareten marrazkiak.

73. Zirkua antzezpena

Helburu didaktikoak: I.1-4-6-8-9-12-14-15, II.4-5-8, III.4(H)-6(H)-11(H)-12(H)-14(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Zirkuan parte hartu behar duten pertsonaien banaketa egingo dugu. Denok dakigu noren papera egin behar dugun, baina zer egin behar dute lehoiek, eta elefanteek, eta pailazoek, eta...?

Beraz, hurrekin adostasun batera iritsi beharko dugu bakoitzak zer egin behar duen eta antzezpenari forma orokorra nola emango zaion ikusteko (gidoi txiki bat idatzi).

Bakoitzak erabakiko du zer egin eta zer ez. Halere, eskema txiki bat emango dizuegu, hari jarraitu nahi bazenite. Zeuek bestelakorik asmatzen baduzue, hobeto!

Garbi eduki behar duzue zeuek eraman beharko duzuela funtzioaren pisua eta erritmoa (efektu bereziak barne: *txantatatxaaaaan!*).

- *Zirku bat datorkigu* abestiarekin batera, **desfilea** egingo dugu. Desfilean, lehendabizi aurkezlea(k) joango da; ondoren tximuak; segidan, domatzailea lehoien taldearekin; horien atzean elefanteak, eta desfilearen bukaeran, pailazoak.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- Aurkezleak aurkezpena egingo du: *Lagun maiteak, zuekin zirkua! Munduko zirkurik ikusgarriena! Lehen eta behin, lehoi basati batzuk ikusiko ditugu, domatzailearen agindupean. Zuekin, domatzailea eta bere lehoi basatiak!* (Txaloak)

Domatzaileak latigoa atera eta lehoiei dei egingo die. Lehoiak erasokor aterako dira, baina domatzaileak aulki gainera igoaraziko ditu. (txaloak) Ondoren, uztai bat hartu eta banan-banan barrutik pasaraziko ditu. (txaloak) Eta bukatzeko, denak ilaran jarri eta bere atzetik buelta bat emanaraziko die. Txaloak eta kitto!

- Aurkezleak tximuak aurkeztuko ditu eta domatzailearekin aterako dira. Berriro ere domatzaileak bizpahiru gauza betearaziko dizkie: *txirin-bueltak* egitea, platanoen saski batetik bakoitzak bi platano, gero hiru, gero... hartzea; domatzaileak bakoitzari emandako aginduak betetzea: andereñoari sudurra ukitu, haur bati zapatila kendu... (Txaloak)
- Aurkezlea aterako da berriro eta elefanteak aurkeztuko ditu. Domatzailearekin aterako dira eta hark beste hiru agindu emango dizkie: panderoaren erritmoan ibiltzea, aulkien gainera igo eta bertatik salto egitea, eta, biribilean jarrita, baloi bat batetik bestera pasatzea. (Txaloak)
- Eta, bukatzeko, pailazoak: txisteak kontatuko dituzte, antzezpen txiki bat egin, ikasi dugun pailazoaren kantua abestu...

Beste haurren aurrean antzezpena egin aurretik, entsegu batzuk egin beharko ditugu, eta egingo dugun *koreografia* ongi landu.

74. Eszenatokia. Zirkuaren horma-irudia

Helburu didaktikoak: I.11, III.17(PLAS)-18(PLAS)-19(PLAS)-20(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Antzezpena egiteko eszenatoki bat beharko dugunez, horma-irudi erraldoi bat egingo dugu atzealdean jartzeko. Gauzak biltzeko papera edo kartoi handiak eskuratuko ditugu, eta, hiru zati handi elkarri itsatsita jarriko ditugu. Bertan zirku baten marrazki erraz bat egin dezakegu (11. fitxan dugu adibide bat) eta tenperekin edo argizarizko margoekin margotuko dugu.

75. Olerkia. Hitz-jokoa

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-7(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Arbelean idatz dezakegu hitz-joko hau denen artean ongi behatzeko: ikusi pieza honetan bokalek duten eragina.

A, O ,I
Zirkuan nago ni.

A, E, O, I, U
Lehoiak gizona irentsi du.

O, E, I, U, A
Bizikletan dabil tximua.

U, I, O, E, A
Tronparen gainean dago elefantea.

I, E, U, O, A
Lehoiaren tripatik gizona ateratzen ari da magoa.

A, E, A, U
Atera du.
Atera du.

A, O, E, A, O
Txalo eta txalooo...

Joxan Ormazabal

76. Gu ere olerkari

Helburu didaktikoak: III.7(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Bokalak nahi dugun bezala erabiliz, gu ere saiatuko gara bertso batzuk asmatzen. Hurrek asmatzen dituzten bertsoak arbelean idatzi eta ikasi egingo ditugu.

*–Saiatuko al gara gu ere Joxan Ormazabalek egindako hitz-jokoaren antzekoak asmatzen? Ea bada, nik letra batzuk esango dizkizuet eta zuek esaldi “dantzaria” osatu beharko duzue. Baina erritmo bizi-bizia emanetz!
Adibidez: IAA... bi patata! AOI... pozik nago ni!*

77. Abestia: Zirku-festak

Helburu didaktikoak: III.1(H)-15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 5. CDa, 29. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

ZIRKU FESTAK

Tarrapatapatan!...

Uztai barnetik salto,
saltoka tigrea,
eztarriko zulotik
joan zaigu txiklea.

Tarrapatapatan!...

Soka luze batetik
gizon bat igo da,
zeru goian ari da
bilintx eta balantx.

Tarrapatapatan!...

Txirrin, txirrin, txirrinka,
txirrin da txikian,
pailazoak badatoz
eman emanian.

Foka bat datorrela
esaten dit amak,
sudur puntan baloi bat
kolpeka darama.

Lehoien kaiolara
gizon bat sartu da,
latigoa astinduz
borrokan hasten da.

Zaldi baten gainean

panpina polit bat
muxuka eta barrezka
agurtzen ari da.

78. Iragarkiak eta gonbidapenak. Sarrerak banatu

Helburu didaktikoak: I.1, III.6(H)-8(H)-9(H)-11(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 14. FITXA, MATERIAL OSAGARRIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Material osagarrian agertzen den sarrera fotokopiatu eta hurrei banatuko diegu, beraiek margo eta osa dezaten (zirkuaren izena, salneurria eta sarrera zenbakia). Ondoren, gonbidatzen dituzuen beste gelako hurrei banatzeko erabil ditzakezue. Aztertu sarrera, eta zertarako balio duen eztabaidatu: zer tokitan behar izaten den, beraiek norako sarrerak erosten dituzten (zinema, haurren jolas-parkeak...), horien salneurria ba ote dakiten... Salneurriak aipatuz gero, prezioen arteko konparaketak egin ditzakezue.

–Zirkua prestatzen ari gara, eta gu ikustera norbait etortzea nahi badugu, zerbait egin beharko dugu gure zirkuaren berri emateko. Zer egiten dute benetako zirkukoek gure herrira etortzen direnean? Iragarkiak leku guztietan jarri, bozgorailuz adierazi... (Entzun zer esaten diguten, guk gero hori bera planteatzeko). Beraz, zertarako dira iragarkiak? Nori zuzentzen zaizkie?...

–Eta zer iruditzen zaizue bakoitzak gure iragarkia prestatzen badugu ikastolan zehar jartzeko? Ondo? Beno, baina iragarkia egin aurretik erabaki beharko dugu zer egunetan eta zer ordutan egingo dugun saioa. Nola uste duzue jarri beharko dugula saioaren eguna, txikian ala handian? Zergatik uste duzue jarri behar dela handian? Eta zer ordutan den, letra txikiekin ala handiekin?

Hori erabaki ondoren, fitxa egiten hasiko dira. Nahi baduzue, beren erara idatziko dute; bestea, zuek transkribatuko duzue beraiek esaten dutena eta haiek gero kopiatu egingo dute.

Horrelako lanak, talde txikietan egitea proposatzen dugu.

Iragarkiaren fitxa egin ondoren, zinta eransgarria hartu eta haur guztiekin ikastolan iragarkiak jartzen joango gara. Zirkua pasatzen denean berriro jasoko ditugu, fitxen albumean sartzeko.

Iragarkietatik aparte, beste proposamenik atera bada, horiek ere bideratuko ditugu: atsedeen-garaian idazkaritzako bozgorailuetatik iragarri, adibidez. Jarduera hau egiten baduzue, gelan landu beharko duzue zer eta nola

3. ZEHAZTAPEN MAILA

esan, zeinek esan... (agian gelan bertan presta dezakezue grabazioa, gero bozgorailuetatik jartzeko).

79. Egitaraua prestatzen

Helburu didaktikoak: III.6(H)-8(H)-9(H)-11(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: 15. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Gelara bueltatzean, egitaraua zehazten hasiko gara: zer egin behar dugun eta zer ordenatan. Adibidez: desfilea, elefanteen saioa, tximuen saioa, lehoien saioa, pailazoak eta agurra.

Egitaraua zehaztu ondoren, fitxa beteko dugu.

Beti bezala, **idatzi aurretik**, fitxaren behaketa talde handian bideratzea komeni da. *Zertarako da egitaraua? Nori emango diogu? Zertarako? Nola adieraziko dugu zer egin behar dugun?...*

Testua planifikatu

Non idatziko dugu?

Nondik hasiko gara?

Hori dena talde handian egin ondoren, egitaraua osatutuko dugu. Arbelean idatzi dezaklegu

TestualizazioA

Talde txikietan eserita, fitxa osatuko dute.

Berrikusi

Berriro talde handira pasa egindako lana taldean konpartitzeko.

80. Entsegua

Helburu didaktikoak: I.1-4-6-8-9-12-14-15, II.4-5-8, III.4(H)-6(H)-11(H)-12(H)-14(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: ANTZEZPENERAKO ESPAZIOA

PROZEDURA

Entsegua antzezlanaren egingo duzuen aretoan egin: gelan, gimnasioan, aretoan... haurrak espazio horretara egoki daitezten.

Talde bakoitzak zer egin behar duen eta egitaraua erabakita dugunez, azken entsegua egin dezakegu. Jendearen aurrean egingo dugun saioa ondo atera dadin, entsegua ondo egiteak zer garrantzi duen azpimarratuko diegu hurrei.

Era berean, lerro bat baino gehiago duzuen ikastoletan, elkarrekin prestatzeko planteamendua egin dezakezue. Horrela erabakitzen baduzue, lau urteko haur guztiek elkarrekin egin beharko lituzkete entsegua.

81. Antzezleak

Helburu didaktikoak: I.11, II.4- III.8(H)-,9(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 16. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

–Zirkuko saioa egiteko dena prest daukagu: mozorroak prest ditugu, saioa iragarri dugu, gonbidapenak banatu ditugu... Zer iruditzen zaizue gelako haur guztien izenak idazten baditugu bakoitzari dagokion zereginean? Horrela, zirkuko aldizkaritxoak etxera eramaten dugunean, gure gurasoek jakingo dute zer egin dugun gutako bakoitzak zirkuan.

Fitxa honetan haur bakoitzak gelako haur guztien izenak idatzi beharko ditu, beraz, eginkizun hau presarik gabe hartzea eta garaiz hastea gomendatzen dizuegu, batez ere talde handi samarrak dituzuenoi.

82. Txirritxen aholkuak

Helburu didaktikoak: III.8(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gelako arbelean itsatsita utziko dugu txirritxen oharra.

KAIXO, LAGUNTXO MAITEAK:

JAKIN DUDANEZ, ZIRKUKO SAIO BAT PRESTATU DUZUE. ENE, ZER LANGILEAK ZARETEN! BDAKIT JADANIK DEN-DENA PREST DUZUELA ETA ENTSEGUA OSO-OSO ONDO ATERA ZAIZUELA. BA AL DAKIZUE ZERGATIK IDAZTEN DIZUEDAN? BADA, ANIMUAK EMATEKO ETA LASAI-LASAI EGOTTEKO ESATEKO. AGIAN,

3. ZEHAZTAPEN MAILA

SAIOAREN EGUNEAN NORBAIT URDURI SAMAR JARRIKO DA ETA NAHASTU ERE EGINGO DA. EZ DA EZER GERTATZEN, ARTISTA GUZTIEI GERTATZEN ZAIE HORI!

NIK EGUN HORRETAN EZINGO DUT ZUEN ZIRKUA IKUSTERA JOAN, BAINA HEZITZAILEAK SAIOA BIDEOZ GRABATUKO DUENEZ, GERO TELEBISTAN IKUSIKO ZAITUZTET. KONFORME?
ONDO PASA MAHASPASA!

TXIRRITX

BUKAERA

83. Zirku-emanaldia

Helburu didaktikoak: I.1-4-6-8-9-12-14-15, II.4-5-8, III.4(H)-6(H)-11(H)-12(H)-14(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: Komunikatiboak, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: ZIRKURAKO HAUTATUTAKO ESZENATOKIA

PROZEDURA

Eszenatokia hezitzaileak prestatuta edukiko duenez, haurrak mozorrotzen eta margotzen hasiko gara. Ondoren, saioa egingo dugun aretora joan eta haurrak bere lekuan kokatuko ditugu. Atean bi haur jarriko ditugu, txikiei sarrerak eskatzeko.

Gogoratu, emanaldia hasi baino lehen, beren beharrak (komunera joan, ura edan, tresneria eskura jarri) eginda izan behar dituztela.

Ikusleak prest daudenean... "Zirku bat datorkigu...". Ea zer moduz ateratzen zaizuen!

Argazkiak ateratzen badituzue, saioari buruzko aldizkari bat egin dezakezue ondoren, fitxekin batera gurasoei bidaltzeko eta gelako liburutegian uzteko.

84. Ikasnorabideak: zatiak erlazionatuz, osotasuna antzeman

Helburu didaktikoak: SINTEZIA

Etengabeko ebaluazioa: GUZTIAK

Gaitasun motak: GUZTIAK

Jarduera mota: SINTEZIA

Taldekatzea: TH

Materiala: 1. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Ederra zirkua! Bai, ikusi dut bideoa. Zein ederki egin duzuen! Primeran pasa dut!...

Gelako haurren izenak eta haien paperak aipatu Txirritzek ezagutuko balitu bezala, alderdi aipagarrienak eta positiboak txalotu. Gaizki ateratakoa ere aipa daiteke kritika konstruktiboa eginez, eta hurrengoan Txirritx ziur dagoela ondo aterako dela esanez.

–*Beno, eta zer? Zer izan da gai honetan gehien gustatu zaizuena?*

Ohi bezala, talde txikietan edo handian, unitatearen ikas-norabideari (nahi baduzue lan-koaderno osoari) begiradaxo bat bota eta, talde handian, iritziak jasoz sintesi-lana egin ezazue.

Hiztegia

Gaiko hiztegia	Ipuineko hiztegia
Elefantea	lehoia
Tximua	kilkerra
Krokodiloa	xomorroak
Tigrea	oihana
Lehoia	ibaia
Pailasoa	atzaparrak
Aurkezlea	hortzak
Domatzailea	bizkar
Zirkua	borroka
Jirafa	indartsua
Hartza	hegalariak?
Oihana	zauritu
	sendatu

Ipuin gomendatuak

Jarraian, unitatean zehar lan daitezkeen zenbait ipuinen zerrenda aurkezten dugu. Ez dira derrigorrez kontatu beharrekoak, proposamen bat baino ez dira, gure eguneroko baliabideen osagarri.

- *Lagundu!!!*. Michaël Escoffier, Tarttalo
- *El pequeño raton busca un amigo*, Eric Carle. C. de lectores
- *El grillo silencioso*, Eric Carle, Kókinos
- *Afrika eta koloreak*, Anna Obiols, Tarttalo
- *Bubu...* bilduma, Cyril Hann, Ibaizabal

7. ZERTAN? LAN ETA LAN

Gaia: Ogibideak

Iraupena: Aste Santuko oporrak arte

Sarrera



Unitateko PROIEKTUA: lanbideen erakusketa



Proiekturako proposatutako sekuentzia didaktikoak:

1. Gurasoen lanbideak
2. Aitona-amonen lanbideak

Sekuentzia didaktikoaren ebaluazioa:

- Abiapuntua (nondik hasi garen eta zergatik).
- Sekuentziaren garapenean erabilitako baliabide materialek, jarduerak, lan taldeek eta abarrek ondo funtzionatu duten, ala aldaketaren bat egin behar den hurrengo saio baterako
- Sekuentziaren garapenean izan diren harremanei (haurren artean, hezitzailearekin...) eta jarrerei behatu.



Ikasturteko proiektua: gelako aldizkaria

Landu ditugun sekuentzia didaktikoei buruzko informazioarekin, aldizkaria osatuko dugu.

Ikusi 2. unitatean ematen ditugun azalpenak.

HASIERAKOAK

1. Horma-irudia: ogibideak

Helburu didaktikoak: I.9, II.1-10-11-12-15, III.2(H)-5(H)-13(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Materiala: HORMA-IRUDIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Horma-irudiaren aurrean jartzean, IKUSI MAKUSI jolasa egitea proposatzen dizuegu. Jolas horren bitartez, jardueraren hasiera eta kokapena lortuko dugu.

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarritzko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA.
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Haurren ezagutzatik abiatu zara?
- Denbora eman diezu haurrei pentsatzeko?
- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

Horma-irudian azaltzen diren elementuen inguruan, Tough-en hizkuntza-funtzioen 3., 4., 5., 6. eta 7. atalak aktibatzen saiatuko da hezitzailea. Funtzio asko direnez, hainbat saiotan lantzea aholkatzen dugu, edota horma-irudien elementu egokienak aukeratzea.

Ikusi TOUGH-en hizkuntza-funtzioen sailkapena.

2. Tradiziozko kanta: *Baserritarrak gara gu*

Helburu didaktikoak: I.13- II.9(I)- III.15(H), III.30(MUS), III.32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: 5. CDa, 34, ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

BASERRITARRAK GARA GU

Baserritarrak gara gu,
ezin gen(e)zake ukatu.
Baina kaletarrak bezain ongi
soinua jotzen dugu.

Kalean dira bi gauza
niri gustatzen zaidanak.
Ardotxo txuri gozo eta
opil koskor bigunak.

3. Ikasnorabidea: osotasunean zatiak bereizi

Helburu didaktikoak: AURKEZPENA

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: guztiak

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Materiala: 1. FITXA

PROZEDURA

Pin, pan, pun, txakapun!... zirrist-zarrast... pun!

Hara, ni hemen lanean jo ta ke eta zuek nire azalpenen zain! Lanabesak utzi eta... oraintxe naiz zuekin.

Beno laguntxoak, fitxako marrazkian dudan piura ikusita, norbaitek esango al dit zer gai ikusiko dugun datozen egun hauetan? Ea, ea, ezetz asmatu!

Beno, oraintxe esango dizuet zer ikusi eta ikasi behar dugun:

- *Hasteko, bestetan bezala, ipuin bat entzungo dugu. Baina oraingo honetan ez edozein ipuina, ez! Entzungo duzuen ipuinak kontatzen du nola lapurtu nahi izan zieten Euskal Herriko jendeak jentilei haiek zeukaten jakinduria guztia. Ziur gustatuko zaizuela! Euskal Mitologiaren pertsonaia batzuk ezagutzeko aukera izando dugu: jentilak, sorginak, lamiak, galtzagorriak, basajaunak, tartaloak...*
- *Gurasoen lanbideak ezagutuko ditugu eta gure aitona-amonenak ere bai: arotza, kirolaria, bulegaria, harakina, arrantzalea... Lanbide pila bat ezagutu eta bakoitzak zer egiten duen ikusiko dugu! Peruren istorioa ere ezagutuko duzue; zuen adineko haurra da Peru, eta ikusiko duzue zer gertatzen zaion azkarregi handitu nahi izateagatik!*
- *Ondoren, lanbideen erakusketa bat egingo dugu.*

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- *Bukatzeko, beti esaten dizuedana: zerbait gehiago egin nahi baduzue, irakasleari esan. Konforme?*

Beno, banoa nire zereginetara, ea autoa konpontzen dudan! Aguuuur!

Txirritx

4. Tradiziozko kanta: *Tertza*

Helburu didaktikoak: II.9, III.1(H)-15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 5. CD-a, 34. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

TERTZA

Tertza otzarie ekarri mesedez Mercedes.
Baina zuk ardurarik ez.

Isidora, Isidora, zueneko ama eta aitxe eta aitxe eta ama.
Tres cuartillos de caña y una libra de pan.
Hiru neskan artean goixean despeskan.
Baina ezin leitzeke esan.
Hilarío, Hilarío, ondiño be ekarritzeko diño.

Ameriketan dago gerrie, gerrie.
Kalifornian dago gerrie, gerrie.
Ameriketan dago gerrie, gerrie, baiña Españien gosie.

Agustiñe, Agustiñe,
ekarrixu guretzako ogi zurixe.

5. Hezitzailearen ipuin kontaketa

Helburu didaktikoak: III.1(H)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: IPUINAREN LAMINAK
Jarduera egiteko espazioa: LIBURUTEGI TXOKOA

PROZEDURA

Liburutegi txokoa Aukeratu dugu ipuina kontatzeko, giro berezia sortu nahi baitugu.

–Gure proiektua egiten hasi baino lehen, sorginkeria batzuk egingo ditugu. Ipuin honetan bi anaien istorioa kontatzen zaigu, eta sorgin batzuekin gertatu zitzaiena.

Jarduera honetan, beste edozein ipuin kontaketa narratibotan bezala, ezinbestekoa da aldez aurretik testua irakurtzea eta kontaketa erabiliko ditugun estrategiak erabakitzea.

Lagungarri izan daiteke elementu "magikoak" erabiltzea gure kontaketan (hauts magikoak, hitz magikoak, txano berezia, alfonbra...). Elementu horiek sarrera moduan lagunduko diote beti hezitaileraen ipuin-kontaktari.

Hezitzailea taldearen aurrean kokatuta (taldeko guztiek ikusteko moduan) ahalik eta giro goxoa sortzen saiatuko da.

Ipuina kontatu aurretik

- Giro afektiboa eta goxoa sortu.
- Hasierako esaldia prestatu.
- Bukaerako esaldia prestatu.
- Ahots-aldaketak eta dramatizaziorako keinuak pentsatu...

Ipuina kontatu bitartean

- Begiradarekin haur guztien arreta mantendu (denek sentitu behar dute berari kontatzen zaiola).

MARTIN TXIKI

1

Behin batean, orain dela urte asko eta asko, Martin Txiki izeneko mutil bizkor bat bizi zen Aralar inguruko herri batean.

Martin Txiki ez zuen inoiz ogirik jan; ez zuen inoiz ogitartekorik probatu eta ez zekien zein gozoa den ogia saltsatan bustita jatea.

Izan ere, garai hartan gizakiak ez zeukan garirik eta, noski, garirik gabe ezin da ogirik egin.

2

Munduan basajaunek bakarrik jaten zuten ogia. Basajaunak erraldoi jakintsu batzuk ziren. Aralarko mendietan bizi ziren, eta haiek bai, haiek bazeukaten garia, baina gizakiei ez zieten eman nahi izaten.

Behin, Martin Txiki etxeko atarian eseri eta pentsatzen jarri zen:

–Basajaunek garia daukate, eta ogia jaten dute, baina guk ez. Hori ez dago ondo.

Eta pentsatzen jarraitu zuen.

–Guk ere garia bagenu, ogia jango genuke eta orduan basajaunak bezain handiak eta jakintsuak izango ginatke. Umm! Garia lapurtu behar diet basajaunei! –esan zuen.

3

Nola kendu, ordea, garia basajaunei? Esatea errazagoa da egitea baino. Baina Martin Txiki oso bizkorra zen, eta berehala asmatu zuen modua.

–Iapa-iapa-iiuuu! Ideia bikaina izan dut! –esan zuen.

Etxera sartu eta aitaren abarkak jantzi zituen, abarka zabal-zabalak.

4

Abarkak jantzita, Aralarrera igo zen basajaunen bila. Haiek bizi ziren tokira iritsi zenean, basajaun itsusi bat ikusi zuen garia pilatzen. Gari pilo handi-handi bat egina zeukan, eta kantari ari zen:

–Tan-tararan, tan-tararin hostoa erortzean garia erein, tan-tararan, tan-tararin, garia erein.

Martin Txiki ederki entzun zituen hitz haiek, eta orain bazekien garia noiz erein.

–Hostoa erortzean garia erein –esan zuen ahopean.

5

Baina basajaun itsusiak Martin Txiki ikusi zuenean, haserre esan zion:

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- Zer ari zara hor marmarrean? Zer egiten duzu zuk hemen?
Martin Txikik orduan, pentsatuta zeukan tranpa egiteko garaia zela erabaki zuen.
–Ez, zera... Pentsatzen ari nintzen zu handia izango zarela, baina ez ni bezain bizkorra –
esan zion desafioa botaz.
–Zer diozu kakanarru horrek? –erantzun zion basajaunak haserre.
–Baaa, ni zuk baino salto handiagoa egiteko gai naizela.
–Ja, ja, ja! Entzun al duzue hori? –esan zion garrasika basajaun itsusiak bere lagunei.

6

- Martin Txikik, gari piloa seinalatuz, esan zion:
–Zuk barre egin, baina ezetz salto batez gari pilo horren gainetik pasatu.
–Nik bai, baina zuk ez! –erantzun zion harro-harro basajaun itsusiak.
–Horren seguru baldin bazaude, egin dezagun proba –esan zion Martin Txikik.
Basajaun guztiak bildu ziren desafio hura ikustera.
Basajaun itsusiak korrika joan eta, iup!, salto handi bat egin zuen gari piloaren gainetik.
–Ikusi al duzu hori, txikito? –esan zion Martin Txikiri-. Orain zure txanda da.

7

- Martin Txikik ere salto egin zuen. Baina gainetik salto egin beharrean, zapla!, gari piloaren erdi-erdian erori zen bere abarka zabal haiekin.
Gari pilora erori zenean, gari ale batzuk sartu zitzaizkion bere abarka barrura.
Martin Txikik hain salto txikia egin zuela ikusita, basajaunek barre egin zioten burlaka, batzuek “ja, ja, ja!” eta beste batzuek “jo, jo, jo!” eginez.

8

- Martin Txiki isil-isilik joan zen handik, lotsatu plantak eginez. Pixka bat urrundu zenean, ordea, hala esan zuen bihurri aurpegia jarrita.
–Zuek egin barre, baina nik gari aleak ditut nire abarketan. Orain garia erein eta ogia izango dugu. Eta zuek bezain handi eta jakintsu izango gara!

9

- Basajaunak, ordea, laster konturatu ziren Martin Txikik engainatu egin zituela, eta haren atzetik joan ziren korrika mendian behera.
–E! Martin Txikik garia lapurtu digu! Harrapa dezagun! –esan zuten.
Basajaun batek aizkora bota zion, baina Martin Txiki makurtu egin zen eta aizkora zuhaitz batean sartu zen.
Martin Txiki gaztainondo baten barruan ezkutatu zen. Basajaunek ez zuten aurkitu ahal izan. Eta bilatzeaz asperturik, handik alde egin zutenean, Martin Txiki herrira jaitsi zen korrika-korrika.
Herrian bere abarketatik gari aleak atera zituen, eta herritar guztiei dei egin zion.
–E! Zatozte! Zatozte denok! Garia lortu dut! Garia lortu dut!

10

- Herritar guztiak herriko plazan bildu ziren, eta oso pozik jarri ziren. Baina agure zahar batek hala esan zuen:
–Orain badugu garia, baina ez dakigu noiz erein.
–Nik bai, basajaun bati entzun diot –esan zuen Martin Txikik-. “Hostoa erortzean garia erein”, esan du. Udazkenean erortzen dira hostoak; beraz, udazkenean erein behar da garia.
Halaxe lortu zuen Martin Txikik garia. Gero, haren herrikoek garia erein eta uzta jaso zutenean, ogia egin zuten. Eta guk ere Martin Txikiri esker jaten ditugu ogitarteko goxoak.

IPUINA AITZAKIA

6. Ipuinaren abestia

Helburu didaktikoak: III,1-15(H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 5. CD-a, 33. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

MARTIN TXIKI

Antzina Aralarren
basajaunak nagusi.
Luzeran omen ziren
hiru metro eta erdi.
Gorputzez iletsuak,
aurpegiz itsusiak.
Garirik ez zioten
inori eman nahi.

*Martin Txiki
abarketan,
Martin Txiki
lapurretan.*

Soroetan garia
benetan ugaria,
basajaunek jateko
bazeukaten ogia.
Herriko bizidunek
ez zutenez garirik,
aspalditik zebiltzan
eskuratu nahirik.

Martin Txiki...

Martin Txiki gaztea
mendi maldan bizi zen.
"Baietz garia lortu!"
ziur esan zuen.
Abarka erraldoiak
soinean zituela
basajaunen mendira
joan zen berehala.

Martin Txiki...

Gari pila handi bat
basajaunak han zeukan.
Martin Txikik esan.
Abiada hartuta,
plaust! erdi-erdian,

3. ZEHAZTAPEN MAILA

nahiko gari bazuen
abarken barnean.

Martin Txiki...

Herriko plazan zeuden
zaharrak eta gazteak,
txaloka hasi ziren
Martin agertzean.
“Garia ereinez
hostoak erortzean,
baietz ogia izan
hurrengo urtean!”.

7. Elkarrizketa

Helburu didaktikoak: I.2, II.4-5, III.4(H)-5(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: binaka

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Gustatu al zaizue ipuina? Polita, ezta?

–Imajinatzen al duzue ogirik gabe bizitzea? Askariak ogitartekorik gabe, gosariak tostadarik gabe, arrautza frijituaren gorringoan ogia busti gabe...

–Zuek gai izango al zinatekete ogirik gabe bizitzeko? Bai? Ez dakit, ez dakit...

–Zeinek egiten du zuek jaten duzuen ogia? Nola deitzen zaie ogia egiten dutenei? Horixe, okinak.

–Martin Txiki, nahiz eta txikia izan, oso azkarra zen. Zer iruditzen zaizue garrantzitsuagao, handia eta indartsua izatea, ala azkarra izatea?

–Zuek inoiz egin al diozue norbaiti horrelako tranparik?

8. Gari pila

Helburu didaktikoak: I.11, III.18(PLAS)-19(PLAS)-21(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: B

Materiala: ZETAZKO PAPER HORIA, 2. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: PLASTIKA TXOKOA

PROZEDURA

Marrazkian, Martin Txiki ageri da gari piloaren gainean eta basajaunak, inguruan, barrez. Haurrek paperezko bolatxo hori txikiak egingo dituzte, gari-aleak balira bezala, eta gari piloan itsatsiko dituzte osatu arte.

9. Gu ere saltoka

Helburu didaktikoak: I.2-9-10-12-14, II.4-29(MAT)-30(MAT)-31(MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, MOTORRAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA, JOLASTOKIA, GINMASIOA

PROZEDURA

Martin Txiki eta basajauna bezala, guk ere saltoka hasi behar dugu, baina ez gari piloaren gainetik! Gelako zoruan, gimnasioan..., marra bat margotuko dugu, eta haur guztiek banan-banan, luzera jauzian egiten den moduan, salto egingo dute. Bakoitzak salto egin ondoren, nola neur ditzakegun salto horiek galdetuko diegu.

Erantzun guztiak baliagarriak izango dira. Neurriaren dimentsioari buruzko hipotesiak formulatzen hastea lortu nahi dugu. Aurretik planteatu izan ditugu horrelako ariketak, hortaz, erabilitako metodoen bat ekar daiteke gogora (soka bat erabiliz, eskuak erabiliz....).

Hurrek erabakitako prozedurari jarraituz, egin duten distantzia neurtuko dugu/dute eta honako galdera hau egingo diegu: *nola idatziko dugu neurtutakoa?*

Behin distantziak neurtu eta apuntatu dituztenean, beste erreflexio bat egiteko bidea zabaltzen zaigu: *Nola jakingo dugu beti berdin neurtzen duela saltoak, modu desberdinen bidez neurtzen baditugu?*

SALTOA	NEURRIA	NEURTZEKO TRESNA
MADDI	IIIIIIIIII	Manexen eskuak
MANEX	8	Maddiren eskuak
IRATI	12	Olaiaren arkatza
OLAIA	IIIIIIIIIIIIIIIIIIII	Iratiren zapata

Horretan pentsa dezaten eskatuko diegu hurrei, eta, ahal badute, modu bat bilatzea salto guztiak modu berean neurtzeko; hau da, neurriak estandarizatzeko bidean jarri.

Bukatzeko, hainbat jarduera egin ditzakegu:

- Jauzi luzeena egin duen haurrarengandik hasi, eta luzeenetik motxenera ordenatu gelako haurrak.
- Jauzi motxena egin duenarengandik hasita ordenatu.
- Hurrek elkarri zer distantzia atera dioten aztertu.

OHARRA: Azaltzen dugun prozedurak luze jotzen badu, eta hurren atentzioa eta interesa jeisten dela ikusten badugu, jarduera etengo dugu.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

10. Jolas-kanta: *Txalo-txalo txaloka*

Helburu didaktikoak: I.1-7-9-10-13-14-15-16, III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: 5. CDa, 36. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Martin Txiki, basajaunei garia lapurtu ondoren poz-pozik zihoan basoan zehar abesti hau abestuz. Nahi al duzue zeuek ere ikasi?

TXALO-TXALO TXALOKA

Txalo-txalo txaloka,
antxintxiketan eta buelta bat.

Ezker azpitik, txalo txaloka,
eskuin azpitik, txalo txaloka.
Ezker eskuaz, lurra ukituaz,
eskuinaz gauza bera eginaz.

Txalo-txalo txaloka...

Abestia hastean, haur guztiak txaloka eta erritmoa eramaten hasiko dira. “Antxintxiketan” esatean korrika hasiko gar, eta “buelta bat” esatean norabidea aldatuko dugu.

“Ezker azpitik / eskuin azpitik” esatean, hanka jaso eta belaun azpian txalo joko dugu, txandaka, ezkerreko hankan eta eskuineko hankan. “Ezker eskuaz lurra ukituaz / eskuinaz...” esatean, eskuez lurra ukituko dugu dagokion “tempoan”.

11. San Prudentzioren danborrada

Helburu didaktikoak: I.7, II.4-9, III.26(MUS)-278(MUS)-28(MUS)-30(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Arabarrak San Prudentzioren erretreta lantzen hasteko gogoarekin ibiliko zaretenez, jostailu-dendari buruz egin dugun aipamenaz baliatuko gara. Unitate honetan zeuen ikastolan egin ohi dituzuen jarduerak txertatzeko aukera izango duzue.

–Aizue, jostailu-dendan zeuden jostailuen artean danborra zegoen, ezta? Eta guk zer egiten dugu urtero danborrarekin? San Prudentzioren eguna ospatu! Zer iruditzen zaizue danborrada prestatzen hasten bagara?...

Txun txunarekin
turuten doinua,
gure zaindariaren
eguna. (bis)

Arabatarrok
egun honetan
elkartzen gara
alaitasunez
ospatutzeko
Prudentzio jaiak
gure patroia handia.

Arabarrak ez zaretenak unitatearekin jarraituko duzue, jakina. Nahi izanez gero, Araban ospatzen den festari buruz hitz egin diezaiekezue haurrei, eta kantua abestu.

12. Sekuentziekin jolasean

Helburu didaktikoak: II.26(MAT), III.2(H)-3(H)-4(H)-5(H)-7(H)-8(H)-12(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt

Materiala: IPUINEN LAMINAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Talde-antzerkian errepikatu dituzten esaldiak eska diezazkiekegu sekuentzia bat aurkezten dugun bakoitzean. Irakasleak narratzaileari dagokiona esango du eta gainerako esaldiak hurrek esango dituzte.

Laminekin egiteko aukera batzuk:

- Bakoitzak gustuko duen sekuentzia aukeratu eta aukeraketa horren zergatia adierazi.
- Sekuentziak desordenaturik eman, eta ipuina desordenaturik kontatu.
- Sekuentziak desordenaturik eman eta ikasleak ordenatu.
- Hasiera, korapiloa eta bukaera bereizi.
- Bukaerako lamina kendu eta bakoitzak bukaera berri bat asmatu.
- ...

11. Pertsonaien horma-irudia egin

Helburu didaktikoak: I.11, III.7-8-9-17(PLAS)-18 (PLAS)-19(PLAS)-20(PLAS)-21(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: MATERIAL OSAGARRIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gidan ipuinaren pertsonaiaren irudia aurkituko duzue, Martin Txikirena, horma-irudia prestatzeko. Irudia handitu, eta hainbat teknika erabil ditzakezue:

- Argizarizko margoez margotu.
- Elikagaiak marrazkian itsatsiz (lentejak, makarroiak, arroza...), collage modukoa egin daiteke: galtzetan lentejak, alkandoran arroza, ilean makarroiak, abarketan larru zatiak... Gauza bera egin liteke ohial zatiak eta paper mota desberdinak erabiliz.

Pertsonaiaren azpian haren izena idatziko dute, eta horma batean itsatsiko dugu.

12. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-2(H),-5(H)-8(H)-9(H)-12(H)-13(H)-14(H)-15(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: HIZTEGI TXARTELAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gizon basatia
erraldoi handia
eta jauzilaria,
baina martin txikik
lapurtu zion garia.
(Basajauna)

Joxan Ormazabal

Hiztegi txarteletan hainbat pertsonaia mitologikoren irudiak eta izenak daude (Tartalo, Mari, Galtzagorriak, Sugaar). Aurreko unitateetan egin izan dugun bezala, txartelak haurren artean banatu, eta deskribapenak eginez igarkizunak asma ditzakete.

Froga txiki bat ere egin dezakezue: irudirik gabe izen idatzia duen txartela bakarrik eman, ea jartzen duena asmatzeko gaitasunik baduen inork, ondoren igarkizuna osatzeko.

Igarkizunak mimikaz ere adieraz ditzakete pertsonaia bakoitzaren mugimenduak imitatuz.

13. Non dago martin txiki?

Helburu didaktikoak: I.7-11, III1(H)-5(H)-19(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/B
 Materiala: 3. FITXA
 Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Basajauna haserre dago, eta ba al dakizue zer ari den oihukatzen? Ez? MARTIN TXIIIIIIKI, NON SARTU HAIZ? esaten ari da garrasika.*

–*Zuek ikusten al duzue non dagoen ezkutatuta Martin Txiki? Ea, bada, aurkitzen duzuen!*

Komikiaren hizkuntzarekin jarraituz, haserrea adierazten duten ikurrak behatzeko aukera ematen digu fitxa honek.

14. Oihartzunaren jolasa. Erritmo-eskema


Helburu didaktikoak: I.15, III.7(H)-12(H)-33(MUS)
 Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
 Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK
 Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
 Taldekatzea: TH/Tt
 Materiala: ----
 Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA


Basajauna garrasika ikusi dugun aitzakiarekin, oihartzunaren jolasa egingo dugu. Jolas honetan, gelako haur batek basajaunaren papera hartuko du. Beste guztiak oihartzunaren "rola" hartzen duten bitartean. Basajaunak esaten edota egiten duena, errepikatu beharko dute denek batera.

Txandaka, gelako haur guztiak basajaunaren rola egin dezaten saiatuko gara, baina jolasa hasi aurretik geuk egingo ditugu bizpahiru adibide:

1. Txaloka *Martin txiki* izena esango dugu hurrek errepika dezaten. Errepikatu ondoren, beste aldaera bat proposa dezakezue, adibidez, azken silabarekin beste hitz bat osatzea: *-ki, Ki-ri-ki-ño.*



2. Gauza bera egingo dugu, baina orain oinekin lurra joz, eta *Salto-saltoka* esanez; *-ka* silabaz hasten diren hitzak osatuko ditugu: *Ka-rra-ma-rro-a, Ka-txi-po-rre-ta...*



3. ZEHAZTAPEN MAILA

3. Azkenik, haurren txanda izango da. Haur batek proposatzen duena errepikatuko dugu besteok.

15. Pertsonaiekin jolasten: bikote-jolasa

Helburu didaktikoak: I.12-13, II.4-5-33(MAT), III.7(H)-8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: PERTSONAIEN TXARTELAK (MATERIAL OSAGARRIA)
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Orain arte ditugun pertsonaia guztien txartelekin betiko memoria-jolasa egin dezakegu, baina zenbait aldaera sar ditzakegu.

- Pertsonaien txartelak karten moduan erabil ditzakegu. Nahastu, jokalarien artean banatu, eta familien kartekin erabiltzen dugun sistema erabiliz, bikoteak osatzera jolastuko dugu.
- Bikote baten txartela gordeko dugu, eta “amona zaharraren” jolasean egiten den bezala, ea nor gelditzen den gordetako txartelaren bikotearekin.
- Pertsonaia berriaren irudia eta izen idatzia erlazionatu ondoren, letra mugikorrek in idazten saiatuko dira haurrak.

16. Elkarrizketa

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-5, III.4(H)-5(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: GIZARTERATZEKOAK, KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Martin Txikiren ipuinean basajaunak ageri dira... Ezagutzen al duzue beste ipuinetan ageri den beste pertsonaia mitologikoren bat? Zein?*

–*Ezagutzen al dituzue lamiak? Nolakoak ziren? Nolako ilea zeukaten? Eta nolako oinak zituzten?*

–*Gogoratzen al duzue lamia ezagun baten izena? (Erreka Mari)*

–*Eta ba al dakizue nor zen Tartalo?...*

17. Ipuin zaharrak

Helburu didaktikoak: II.9, III.1(H)-15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: GIZARTERATZEKOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: LIBREA
Materiala: 5. CDa, 37. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

IPUIN ZAHARRAK

Garai batean
sukalde bazterretan,
kontu-kontari
egoten ziren gauetan.
Ipuin zaharrak,
isil-isilik haurrak,
txispak dariola
kebideko sugarrak.

Mari Anboto,
Tartalo jentila,
Baztanen sorginak
eta lamiak.

Galtzagorriak,
Tartalo basatia,
basajaunak, jentilak
Aralar mendian.
Sasi gainetik
eta hodeien azpitik,
batzarrera doaz
sorginak Anbototik.

Mari Anboto...

18. Liburutegia

Helburu didaktikoak: I.12, II.1-2-5-12, III.1(H)-5(H)-8(H)-9(H)-10(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Jarduera egiteko espazioa: LIBURUTEGIA

PROZEDURA

Euskal pertsonaia mitologikoen erreferentziak hartzeko asmoz liburutegira joango gara. Liburutegira haurrekin joan aurretik, gai honi buruz zer liburu dagoen aztertuko dugu, eta ezer ez badugu, batzuk lortzen saiatuko gara.

Liburutegian, betiko gauzak lantzen jarrai dezakegu:

- Liburutegiaren antolaketa
- Fitxategia
- Arauak (isiltasuna...)

Hartuko ditugun liburuen fitxak beteko ditugu, eta gelako liburutegira eramango ditugu gaia bukatu arte.

19. Euskal pertsonaia mitologikoak. Txoko txuria

Helburu didaktikoak: I.12, II.1-2-5-12, III.1(H)-5(H)-8(H)-9(H)-10(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: TXOKO TXURIA

PROZEDURA

Liburutegian topatu ditugun euskal herriko pertsonaia mitologikoen erreferentziak Txoko txurian bilduko ditugu (lamiak, galtzagorriak, Tartalo, sorginak...). Aukera badaukagu, horien fotokopiak egingo ditugu eta, izenarekin batera, kartulina batean itsatsita gordeko ditugu. Lan hori egiterako, haurrei lanbide bat aurreratuko diegu.

–*Ba al dakizue zeinek ikertzen dituen EH-ko mitologiako pertsonaiak? (ikerlariak edo historilariak)*

20. Olerkia

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: Aplikazioa

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Galleta erraldoia
jaitsi da gauez
bainatzera ibaira.
Lamiak, maxka-maxka
ilargia jaten ari dira.

Joxan Ormazabal

–*Olerki honetan, Joxan Ormazabalek esaten digu “Galleta erraldoia jaitsi da gauez bainatzera ibaira”. Zeri deitzen dio “galleta erraldoia”? Zergatik uste duzue deitu diola ilargiari “galleta erraldoia”?*

–*Nola deituko zeniokeste beste era batera? (Zeruko gaztatxoa, baloi horia...)*

Ilargiari buruzko ipuin ederra proposatzen dugu irakurgai: *Ilargia edan zuen astoa* (Elkar, Sirena saila). Ilargia urmaelean islatzen dela eta...

21. Tan, tan, tan, tan. Nor da?

Helburu didaktikoak: II.9, III.1(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, MOTIBAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Materiala: 5. CDa, 38. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

TAN, TAN, TAN, TAN, NOR DA?

Tan, tan, tan, tan. Nor da? Nor da?
Anbotoko sorgina! Zabal atea!

Tan, tan, tan, tan. Nor da? Nor da?
Erratzuko lamia! Itxi atea!

Tan, tan, tan, tan. Nor da? Nor da?
Egilazko jentila! Zabal atea!

Tan, tan, tan, tan. Nor da? Nor da?
Iratiko basajauna! Zabal atea!

Tan, tan, tan, tan. Nor da? Nor da?
Baionako mamarroak! Itxi atea!

22. Abestiaren antzezpena

Helburu didaktikoak: I.6, II.4-5-9, III.1(H)-14(H)-15(H)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Materiala: 5. CDa, 38. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Aurreko abestia ikasi ondoren, talde-antzezpen bat prestatuko dugu, hiru urteko "txikien" aurrean antzezteko. Gelako haurrak taldekatu egingo ditugu (sorginak, lamiak, jentilak, basajaunak, galtzagorriak edo mamarroak...), eta mozorroak era simple batean prestatu ondoren, abestiarekin antzezpenaren entsegua egingo dugu.

23. Desberdintasunak aurkitu

Helburu didaktikoak: I.7-11, II.23(MAT)-25(MAT)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: 4. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Fitxa honetako alde bateko eta besteko marrazkien artean ezberdintasun batzuk daude. Bai, badakit batzuk dagoeneko ikusi dituzuela. Ea, izendatu egingo ditugu.

–Oraingo honetan, ezberdintasunak aurkitu ondoren, zenbatuko ditugu, eta "ZENBAT DESBERDINTASUN DAUDE?" jartzen duen laukian, zenbat dauden zenbakiz adierazi behar duzue. Norbaitek ez badaki nola idazten den zenbaki hori, gelan bilatu (hormaren batean egongo da), irakasleari galdetu...



Proiektua: lanbideen erakusketa

Proposatzen dugun proiektua osatzeko, lanbideak ezagutu beharko ditugu. Proiektu honetan aitona-amonak ere inplikatzeko nahiko genuke. Horretarako, irtenaldi bat antolatuko dugu, lanbidei buruzko hanbat elementu bildu, argazkiak atera... eta horrekin guztiarekin, bukaeran, gure erakusketa antolatuko dugu.



1. Sekuentzia didaktikoa: gurasoen lanbideak. Bilduma

Sortuko dugun bilduma lanbideen erakusketako atal batean jarriko dugu.

HASIERA

24. Elkarrizketa: lanbideak

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-5-6-8-11

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: HORMA-IRUDIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hormairudiaren aurrean kokatuko gara, lanbidei buruz aurreko batean esandakoak gogoratuz.

Haurrek erantzun ahala, esandako lanbideak arbelean idatziko ditugu goitik behera, zerrenda batean. Haurrek esandakoak zerrendatu ondoren, goitik hasita, banan-banan izendatuko ditugu, eta zer dakiten bakoitzaz kontaraziko diegu. Dakitena azaltzen laguntzeko, hainbat galdera egin ditzakegu:

–Zertarako balio digu besteoi ogibide edo lanbide honek? Zertan laguntzen digu? Nola egiten da lan hau? Non egiten da? Mendian? Itsasoan? Lantokian?... Zer tresna erabiltzen dira? Zenbat jende ibiltzen da halako lana egiten?

–Maddik harakina esan du. Nork daki zer egiten duen harakinak? Ezagutzen al duzue harakinen bat? Harakinak saltzen dituen gauzen artean, zer gustatzen zaizue gehien?

–Olaiak baserritarra esan du. Zer...

Ogibide edo lanbideen zerrenda hau gorde egingo dugu, ogibideen erakusketarako lanbideak aukeratzetuz hasten garenean, lehenengo haurrek aipatutakoak kontuan hartzeko.

Interesgarria litzateke ikerlarien (pertsonea mitologikoei buruzko informazioa bilatzen dutenek) eta okinen erreferentzia ere egitea, ipuinarekin loturak eginez.

Lehen zerrenda honetan aipatzen ditugun lanbide guztiak ez dira, beharbada, bukaerako erakusketan agertuko; hori erakusketa antolatzean erabakiko dugu.

IPUINA

NI ERE HANDIA NAIZ!

1)

Peru mutil prestu bat zen; beti laguntzeko prest zegoen.

Etxeko txikiena zen, eta asko maite zuten denek, nahiz eta bihurri samarra zela uste zuten.

Peru, ordea, ez zen bihurria, Peruk jakin-mina zeukan handia. Anaia-arrebek eta pertsona nagusiek egiten zituzten gauzak egiten ikasi nahi zuen berak ere.

—Noiz izango naiz ni handia?

—Oraindik ere lo batzuk egin beharko dituzu —esanen zioten bere anaia-arrebek.

—Baina nik ere zuek egiten duzuen egin nahi dut.

—Lasai, handitzen zarenean egingo duzu. Gu ere txikiak izan ginen eta poliki-poliki ikasten joan gara.

2)

Peruk asko miresten zuen bere osaba suhiltzailea. Suhiltzaileen kamioi handi bat gidatzen zuen osabak. Sirena eta guzti zeukan kamioiak.

Peruri asko gustatzen zitzaion kamioi haren sirena, eta, handitzen zenean, bera ere suhiltzailea izango zela erabaki zuen.

Egun batean, sute handi bat sortu zen auzoan. Suhiltzaileak etorri ziren. Sua itzalitakoan, Peruren amak kafetxo bat hartzera gonbidatu zituen osaba eta bere lankideak. Etxea suhiltzailez bete zen.

—Osaba, osaba! Utziko al didazu kamioira igotzen?

- Ez, hori ez da posible. Orain garajera goaz kamioia aparkatzera.

- Ez du inporta, nik lagunduko dizut!

- Ondo da. Kafea hartzen dugun bitartean igo mementotxo bat. Baina ez ezer ukitu, mesedez!.

- Ez dut ezer ukituko. Eskerrik asko, osaba!

Eta tximista bat baino azkarrago kamioira igo zen.

3)

Peru kamioian eseri zenean, tramankulu pila bat ikusi zuen, eta esandakoa ahaztu zitzaion. Aurrean zituen botoiak ukitzen hasi zen. Nahigabe, sirenaren txirrina jo zuen. Hain fuerte jo zuen, kaleko jendea begira jarri zen. Ertzain motordun bat ere etorri zen zer gertatzen zen ikustera.

- Ai, ama! Sirena! Osaba, osaba! Nola gelditzen da hau?

- Baina Peru, zer egin duzu? Ez al dizut ba esan ezer ez ukitzeko?

- Ikasi nahi nuen osaba. Nik ere suhiltzailea izan nahi dut!

- Baina oraindik ez dakizu handien gauzak egiten—osaba kezkatuta zegoen—. Eta orain zer esango diot ertzainari?

- Nahi gabe izan da, osaba! Hurrengoan kontu gehiago izango dut.

Erabat nahigabetuta gelditu zen Peru eta kamioitik jaitsi eta gero, ertzainaren parean burumakur pasa zen.

4)

Handik egun batzuetara, aitona-amonon etxera joan zen Peru. Oso gustura joaten zen beti. Batzuetan lo ere bertan egiten zuen. Mimos betetzen zuten aitona eta amonak.

Amonak bazkari goxoak prestatzen zizkion. Kaneloiak, adibidez, bazekien Peruk oso gustuko zituela eta.

Amona sukaldean bazkaria prestatzen ari zen. Joan zen Peru, eta esan zion:

- Amona, amona! Utziko al didazu bazkaria prestatzen?

- Kaneloiak prestatu behar ditut; lan handia da hori!

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- Berdin da! Nik ere ikasi nahi dut!
- Ondo da —onartu zuen amonak—. Igo aulki horretara eta ireki kaneloien paketea. Baina kontuz ibil zaitez, minik hartu gabe.
- Eskerrik asko amona!

5)

Peruk kaneloi-paketea ireki zuen mahai gainean. Tomate-pote bat ere han zegoen, eta hura ere irekitzen saiatu zen Peru. Benetan gogotsu ari zen. Baina...

- Ai ama! Tomate guztia erori zait!
- Baina Peru, zer egin duzu? Ez al dizut esan kontuz ibiltzeko?
- Ikasi nahi nuen, amona! Nik ere sukaldaria izan nahi dut.
- Ondo da. Baina oraindik ez dakizu handien gauzak egiten. Nola prestatuko ditugu kaneloiak tomaterik gabe?
- Nahigabe izan da, amona! Hurrengoan kontu gehiago izango dut.

Guztiz atsekabetuta gelditu zen Peru, baina, adoretsua zenez eta ikasteko gogoia zuenez, ez zuen etsi. Hurrengo batean, handiek nola egiten zuten arreta handiagoz begiratu zuen.

6)

Peruren aita irakaslea da. Iluntzetan etxeko langelan sartu eta azterketak prestatzen edo zuzentzen aritzen da sarritan. Peru ere, alboko aulkian eseri eta aitatxorekin egoten da marrazkiak egiten.

Behin, aitatxo azterketa bat prestatzen ari zen ordenagailuan.

Peruk esan zion:

- Aitatxo, aitatxo! Utziko al didazu niri laguntzen?
- Azterketa bat biharko prestatzen ari naiz! Presa handia dut.
- Nik ere ikasi nahi dut.
- Ondo da! Etorri nire albora eta inpresoratik ateratzen diren orriak ordenatu.
- Eskerrik asko, aitatxo!

Eta ziztu bizian inpresorara hurbildu zen Peru.

7)

Peru orriak ordenatzen hasi zen. Hartan zebilela, telefonoak jo zuen. Riiiii!!!

Aitak hartu zuen telefonoa, eta hizketan hasi zen. Peruk, orduan, aitaren lanarekin jarraitzea pentsatu zuen. Pentsatu eta egin. Kontu handiz ari zen, bere ustez, baina halako batean:

- Ai, ama! Letra guztiak ezabatu dira! Nora joan dira letrak?
- Zer egin duzu, Peru? —esan zuen aitak, telefonoa eskegi eta zer gertatu zen ikusi zuenean—. Kaka zaharra! Lan guztia ezabatu duzu!
- Ikasi nahi nuen, aita! Nik ere irakaslea izan nahi dut.
- Ondo dago hori. Baina oraindik ez dakizu handien gauzak egiten, Peru. Berrito hasieratik egin beharko dut lan guztia!
- Nahigabe izan da, aita! Hurrengoan kontu gehiago izango dut.

Lur jota gelditu zen Peru. Oraindik asko ikasi beharra zeukan. Hurrengo batean, handiek nola egiten zuten arreta handiagoz begiratu behar zuen.

8)

Peruren ama medikua da. Pediatra. Haurrak sendatzen ditu.

Etxean Peru edo bere anai-arrebak gaixotzen direnean, amak pastillaren bat edo xarabea ematen die sendatzeko. Xarabe batzuk oso txarrak dira hartzeko.

Gau batean, Peruren arreba botaka hasi zen. Eztula ere galanta zuen, eta amatxo kezkatu egin zen.

Peruk esan zion:

- Amatxo, amatxo! Utziko al didazu niri laguntzen?
- Zu ez zara medikua, Peru! Horretarako asko ikasi behar da!
- Ba, ikasiko dut! Nik ere ikasi nahi dut!
- Tira, ondo da! Zatoz hona eta emaitza jarabe hau arrebari. Hobeto sentituko da.
- Eskerrik asko, amatxo!

9)

Arreba gaizki zegoen. Ez zion Peruri irribarrerik ere egin. Arreba izerdi patsetan zegoen eta amatxok kezka aurpegia zeukan.

Peruk termometroa ikusi zuen. Amatxori laguntzeko asmoz, termometroa kaxatxotik ateratzen hasi zen. Kontu handiarekin egin zuen, bere ustez, baina:

- Ai ama! Termometroa erori zait! Eta puskatu egin da!
- Zer egin duzu, Peru? Zergatik hartu duzu termometroa?
- Ikasi nahi nuen, ama. Nik ere medikua izan nahi dut!
- Hori ondo dago. Baina oraindik ez dakizu handien gauzak egiten. Nola jakingo dugu orain zer temperatura duen zure arrebak?
- Nahigabe izan da! Hurrengoan kontu gehiago izango dut.

Peru burumakur gelditu zen. Hurrengo batean, hobeto begiratu eta kontu handiagoz egingo zituen gauzak.

Eskerrak amatxok beste termometro bat zeukan bere kontsultako maletinean.

10)

Peruk harreman estua zeukan aitonaarekin. Ordu asko ematen zituzten elkarrekin. Aitona autoen mekanikoa izandakoa zen eta oso trebea zen gauzak konpontzen.

Jubilatu ondoren, etxean puskatzen ziren gauzak aitona konpontzen zituen. Garbigailua zela, entxufe bat zela, plantxa zela... Edozer gauza.

Baina aitona erloju zaharrak konpontzea zuen gustukoan.

Peru adi-adi egoten zen aitona alboan ikasten. Eta aitona lanabes txikiak erosi zizkion Peruri, berak ere konponketak egiten ikas zezan.

Egun batean, hor ari ziren Peru eta aitona erloju zahar bat konpontzen. Erloju guztia askatu zuten eta pieza banan-banan garbitu eta oliotatu ondoren, berriro ere erloju muntatzen ari zen aitona. Perek adi-adi begiratzen zion. Bukatu zuenean, aitona eskua kaskarrera eraman, eta esan zuen:

- Ai, ama! Zerbait gaizki egin dut. Erloju hau ez dabil!
- Aitona, nik badakit!
- Zuk badakizula?
- Bai, adi-adi egon naiz eta pieza hau jartzea ahaztu zaizu! Hemen duzu!
- Zu bai mutil azkarra! Zer egingo ote nuke nik zu gabe? Zuri esker erloju konponduko dugu.
- Nik ere badakit! Nik ere badakit!

Peru pozez zorutzen korrika joan zen aitoxori eta amatxori eta amonari eta bere anai-arrebei esatera berak ere gauzak ondo egiten bazekiela.

Eta denak poztu ziren, eta musu handi bana eman zioten.

25. Antzezpen kolektiboa: *Ni ere handia naiz*

Helburu didaktikoak: I.6-, II.1(H), III.12(H)-13(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinaren antzezpen kolektiboan sartu aurretik, komeni da ipuinaren sarrera bat egitea. Hau da, ipuinean azalduko diren pertsonaiak izendatu, istorioan zehar izango duten ibilbideari buruzko hipotesiak formulatu galderen bidez... Halaber, antzezpen kolektiboan ezarritako arauak gogoratuko ditugu. (Jarduera hau hiru egunetan jarraian egitea proposatzen dugu).

Ikusi jarduera konstanteak: antzezpen kolektiboa (ipuin dramatizatua).

NI ERE HANDIA NAIZ

	<p>Peru mutil prestu bat zen; beti laguntzeko prest zegoen.</p> <p>Peruk jakin-mina zeukan handia. Anaia-arrebek eta</p>
--	--

3. ZEHAZTAPEN MAILA

	pertsona nagusiek egiten zituzten gauzak egiten ikasi nahi zuen berak ere.
Peru	Noiz izango naiz ni handia?
Anaia-arrebak	Oraindik ere lo batzuk egin beharko dituzu.
	Baina nik ere zuek egiten duzuen egin nahi dut!
	Lasai, handitzen zarenean egingo duzu.
	Peruk asko miresten zuen bere osaba suhiltzailea eta haren kamioi handia. Egun batean, auzoan sute handi bat itzaltzetik zetorrela, Peruk esan zion:
Peru	Osaba, osaba! Utziko al didazu kamioira igotzen?
Osaba	Ez, hori ez da posible.
	Baina mementotxo bat bakarrik!
	Ondo da. Baina ez ezer ukitu, mesedez!
	Ez dut ezer ukituko. Eskerrik asko, osaba!
	Peru kamioian eseri zenean, aurrean zituen botoiak ukitzen hasi zen eta, nahigabe, sirenaren txirrina jo zuen.
Peru	Ai, ama! Sirena! Osaba, osaba! Nola gelditzen da hau?
Osaba	Baina Peru, zer egin duzu? Ez al dizut esan ezer ez ukitzeko?
	Ikasi nahi nuen, osaba. Nik ere suhiltzailea izan nahi dut!
	Bueno, ondo da. Baina oraindik ez dakizu handien gauzak egiten.
	Nahigabe izan da, osaba.
	Handik egun batzuetara, aitona-amonen etxera joan zen Peru. Amonak bazkari goxoak prestatzen zizkion. Amona sukaldean bazkaria prestatzen ari zen batean, Peruk esan zion:
Peru	Amona, amona! Utziko al didazu bazkaria prestatzen?

Amona	Kaneloiak prestatu behar ditut eta lan handia da hori.
	Berdin da! Nik ere ikasi nahi dut!
	Ondo da. Igo aulki horretara eta ireki kaneloien paketea.
	Eskerrik asko, amona!
	Peruk kaneloi-paketea ireki ondoren, tomate- potea ere irekitzen saiatu zen. Benetan gogotsu ari zen. Baina...
	Ai ama! Tomate guztia erori zait!
	Baina Peru, zer egin duzu? Ez al dizut esan kontuz ibiltzeko?
	Ikasi nahi nuen, amona. Nik ere sukaldaria izan nahi dut!
	Bueno, ondo da. Baina oraindik ez dakizu handien gauzak egiten.
	Nahigabe izan da, amona.
	Peruren aita irakaslea da. Behin, aitatzok azterketa bat prestatzen ari zen ordenagailuan eta Peruk esan zion:
Peru	Aitatzok, aitatzok! Utziko al didazu niri laguntzen?
Aita	Azterketa bat biharko prestatzen ari naiz! Presa handia dut.
	Nik ere ikasi nahi dut!
	Ondo da. Etorri nire albora eta ordena itzazu orri horiek.
	Eskerrik asko, aitatzok!
	Hartan zebilela, telefonoak jo zuen eta aitatzok erantzun zuen. Peruk, orduan, aitaren lanarekin jarraitzea pentsatu zuen. Kontu handiz ari zen, baina...
	Ai, ama! Letra guztiak ezabatu dira! Nora joan dira letrak?

3. ZEHAZTAPEN MAILA

	Zer egin duzu, Peru?
	Ikasi nahi nuen, aita. Nik ere irakaslea izan nahi dut!
	Bueno, ondo da. Baina oraindik ez dakizu handien gauzak egiten.
	Nahigabe izan da, aita.
	Peruren ama medikua da. Haurrak sendatzen ditu. Gau batean, Peruren arreba botaka eta eztulka hasi zen eta ama kezkatuta zegoen. Peruk esan zion:
Peru	Amatxo, amatxo! Utziko al didazu niri laguntzen?
Ama	Zu ez zara medikua, Peru! Horretarako asko ikasi behar da!
	Baina nik ere ikasi nahi dut!
	Tira, ondo da! Zatoz hona eta emaiozu jarabe hau arrebari. Hobeto sentituko da.
	Eskerrik asko, amatxo!
	Amatxori laguntzeko asmoz, Peruk termometroa kaxatxotik ateratzen hasi zen. Kontu handiarekin ari zen, baina:
	Ai ama! Termometroa erori zait! Eta puskatu egin da!
	Zer egin duzu, Peru? Zergatik hartu duzu termometroa?
	Ikasi nahi nuen, ama. Nik ere medikua izan nahi dut!
	Bueno, ondo da. Baina oraindik ez dakizu handien gauzak egiten.
	Nahigabe izan da, ama!
	Peruren aitonak erloju zaharrak konpontzen zituen. Peru adi-adi egoten zen aitonaren alboan ikasten. Egun batean, erloju baten piezak garbitu eta olioztatu ondoren, aitonak berriro muntatu zuen. Baina...
Aitona	Ai, ama! Zerbait gaizki egin dut. Erloju hau ez dabil!
Petu	Aitona, nik badakit!

	Zuk badakizula?
	Bai, adi-adi egon naiz eta pieza hau jartzea ahaztu zaizu. Hemen duzu!
	Zu bai mutil azkarra! Zer egingo ote nuke nik zu gabe?
	Nik ere badakit! Nik ere badakit!
	Peru, pozez zorutzen, korrika joan zen denei esatera berak ere gauzak ondo egiten bazekiela. Eta denak poztu ziren eta musu handi bana eman zioten. <i>Hala bazan ez bazan....</i>

26. Paristik natorren

Helburu didaktikoak: I.6-13, III.1(H)-14(H)-15(H)-28(MUS)-30(MUS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 5. CDa, 40. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Lanbideak ezagutzen jarraitzeko, "musikaria" edo "artista" agertzen zaigu kanta honetan. Gure zerrendan ez bada agertu, kantatu ondoren sartzea proposatuko dugu.

–Abestuko al dugu denon artean "Paristik natorren" abestia? Gu ere musikariak izango gara!

PARISTIK NATORREN

Paristik natorren
artista bat naiz ni.
Ondo jotzen dut,
baita guk ere.
Danborra nik jotzen dut:
pon, pon, pon, pon, pon, pon...

Paristik natorren...

Tronpeta nik jotzen dut:
tuturu, tuturu, tuturu...

Paristik natorren...

Gitarra nik jotzen dut:
dringlin drin, dringlin drin...

Paristik natorren...

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Txindata nik jotzen dut:
txindata, txindata, txindata...

Abestu ondoren, kantari buruzko elkarrizketa bat sortuko dugu.

–Nor dira artistak? Artista izatea ogibidea al da? Bai, noski! Pirritx eta Porrotx, adibidez, artistak dira, kantatu eta dantzatu egiten dutelako.

–Zer artista gehiago ezagutzen duzue?

27. Komikia: *Ni ere handia naiz!* ipuina

Helburu didaktikoak: I.11-12, III.6(H)-8(H)-9(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: Tt/B
Materiala: 5. eta 6. FITXAK
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Bigarren eta hirugarren binetetan Peruren eta osabaren arteko elkarrizketa berridaztea proposatzen dugu. Horretarako, globoak ipini dizkiegu irudiei; haurren lana globoak osatzea izango da. Beti bezala, ipuinaren zati bakar baten berridazketa egingo dugula adierazteko, bigarren binetaren goialdean, ezkerrean, (...PERUK OSABARI ESAN ZION) jarri dugu eta hirugarren binetaren behealdean, eskuinean, eten puntuekin adierazten dugu ipuinak jarraipena duela.

- **Aurrezagutzak aktibatu.** Beti egiten dugun bezala, idatzi aurretik ipuina gogora ekarriko dugu. Ipuina gogoratzerakoan, fitxetan agertzen diren pasarteetan zentratuko gara. Lanketa hori bideratzeko elkarrizketa-jolasak balia ditzakegu.
- **Planifikazioa.** Ezertan hasi aurretik, horrelako testu laburrak zertarako idazten diren landuko dugu:

–Zer jartzen du, zuen ustez, hemen goialdean?

–Zertarako uste duzue idatzi dutela hori?...

Bestalde, globo mota bat baino gehiago planteatzen denez (pertsonaiak hitz egiten dueneko, pentsatzen dueneko, taldeko globoa, denek batera hitz egiten duteneko...), mota bakoitza aztertuko dugu hurrekin:

–Dagoeneko badakizue globoa zertarako den, ezta? Hori da, komikiko pertsonaiak zer esan nahi duen adierazteko.

–Baina, berdinak al dira ikusten dituzuen globo guztiak?

–Zer ezberdintasun ikusten dizkiozue?

–Zertarako uste duzue erabiltzen dela bata edo bestea?

Hausnarketa egi ondoren, denbora emango diegu, bikoteka jarrita, 5. fitxan zer idatziko duten pentsazteko. Ondoren, talde handian jasoko ditugu esaldien proposamenak.

Prozedura bera eramango dugu 6. fitxarekin, baina ikusten badugu motibazioa eta gogoja jeitsi direla, beste une baterako utziko dugu bigarren zatia. Ez da komeni horrenbeste kostatzen zaizkien jarduerak gehiegi luzatzea.

- **Testualizazioa.** Garbi gelditu denean zer idatziko duten fitxa bakoitzeko globoetan, idazteari ekingo diote.
- **Berrikusketa.** Idazketa-lanarekin bukatzean, talde handian bilduko gara, eta eredu batzuen berrikustea bideratuko dugu: zer idatzi duten gogoratu eta, beharrezkoa balitz, testua nola hobe liteke.

29. Entzunaldia

Helburu didaktikoak: II.9, III.26-32
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 5. CDa, 46. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–*Uau, oso ondo egin duzue! Benetako musikariak zinetela zirudien! Beno... bene-benetakoak ez, baina... antzekoak bai!*

–*Benetako musikaria izan zen **Pablo Sarasate** konpositore eta biolin-jotzaile nafarra!*

Pablo Sarasate (Iruñea, 1884-Miarritze, 1908). Hamar urterekin eman zuen lehen kontzertua jendaurrean. Madrilen eta Parisen ikasi zuen eta Europa osoan ospe handia lortu zuen biolin-jotzaile bezala. Ikasketak amaitu ondoren, kontzertuak ematen hasi zen eta sari ugari jaso zuen. Asko kritikatu zuten kontzertuetan ez zuelako musika klasikoa erabiltzen eta fantasiak eta herri-doinuetan oinarritutako moldaketak nahiago zituelako. Iruñeko Santa Zezilia orkestra sortu eta bultzatu zuen (1879). Kontzertu asko idatzi zituen (*Jota de San Fermin, Capricho vasco, Habanera...*).

–*Orain Nafarroako jota alai baten zati bat entzungo dugu.*

30. Elkarrizketa-jolasa atzamarrekin

Helburu didaktikoak: III.1(H)-12(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
Taldekatzea: binaka
Materiala: TXOTXONGILOAK (MATERIAL OSAGARRIA)
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Atzamar-jolasean egiteko hiru elkarrizketa labur proposatzen ditugu, ipuin dramatizatuarekin lotura dutenak. Zuen aldetik beste batzuk sortzera gonbidatzen zaituztegu.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

1

Haur guztiak irakaslearen laguntzarekin	Peruk asko miresten zuen bere osaba suhiltzailea eta haren kamioi handia. Egun batean, auzoan sute handi bat itzaltzetik zetorrela, Peruk esan zion:
Peru	Osaba, osaba! Utziko al didazu kamioira igotzen?
Osaba	Ez, hori ez da posible.
	Baina mementotxo bat bakarrik!
	Ondo da. Baina ez ezer ukitu, mesedez!
	Ez dut ezer ukituko. Eskerrik asko, osaba!

2

Haur guztiak irakaslearen laguntzarekin	Peruk kaneloi-paketea ireki ondoren, tomate-potea ere irekitzen saiatu zen. Benetan gogotsu ari zen. Baina...
Peru	Ai ama! Tomate guztia erori zait!
Amona	Baina Peru, zer egin duzu? Ez al dizut esan kontuz ibiltzeko?
	Ikasi nahi nuen, amona. Nik ere sukaldaria izan nahi dut!
	Bueno, ondo da. Baina oraindik ez dakizu handien gauzak egiten.
	Nahigabe izan da, amona.

3

Haur guztiak irakaslearen laguntzarekin	Peruren aitona erloju zaharrak konpontzen zituen. Peru adi-adi egoten zen aitona alboan ikasten. Egun batean, erloju baten pieza garbitu eta olioztatu ondoren, aitona berriro muntatu zuen. Baina...
Aitona	Ai, ama! Zerbait gaizki egin dut. Erloju hau ez dabil!
Peru	Aitona, nik badakit!

	Zuk badakizula?
	Bai, adi-adi egon naiz eta pieza hau jartzea ahaztu zaizu. Hemen duzu!
	Zu bai mutil azkarra! Zer egingo ote nuke nik zu gabe?
	Nik ere badakit! Nik ere badakit!

31. Elkarrizketa-jolasa eguneroko bizitzarekin lotu

Helburu didaktikoak: I.5(H), II.4-5, III.4(H)-5(H)-16(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: -----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Ipuinean ematen den egoera oso gertu dago haurren errealitatetik. Haurrei gertatutako antzeko egoerak edo esperientziak balia daitezke elkarrizketa berriz ere antzetzeko.

GARAPENA

32. Suhiltzaileen parkea

Helburu didaktikoak: II.1-4-5-6-7-8-11
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, GIZARTERATZEKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala:
Jarduera egiteko espazioa:

PROZEDURA

Lanbideez hitz egin dugu, eta jadanik badugu lanbideen zerrenda txiki bat eginda.

Gogoratu gurasoen lanbideak ezagutu nahi ditugula. Beraz, gelan gurasoren bat suhiltzailea balitz, haren bitartez suhiltzale-parkea bisitatzeko irtenaldia presta liteke.

Gurasoen artean aukerarik ez balego, Euskal Herriko bailara guztietan suhiltzaile-parke bat egon ohi da, eta askotan haurrentzako harrera berezia egiten dute: kamioietara igo, kaskoak eta beren lanabesak erakutsi, aparrarekin jolastu... Oso irtenaldi erakargarria izaten da haurrentzat!

Zuen bailaran suhiltzaileen parkerik egongo ez balitz, edo zuen ohituretan sustraituago dagoen lanbideren bat landu nahiko bazenute, lehenengo unitatean mantenuko langilearekin batera haurrentzako *lan bereziak* prestatu genituen moduan, edozein lantokitan prestatzea proposatzen dizuegu.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Irtenaldi horren proposamena gelako gurasoen lanbideen arabera ere egokitu daiteke. Gurasoren bat prest balego, irtenaldi edo bisitaldi bat proposa liteke haren dendara, lantegira, kontsultara, gimnasia... edo dena delakora.

Irtenaldia egiten dugun guztietan bezala, aurrez zenbait gauza zehaztuko ditugu: zer ibilbide egingo dugun, zergatik eta zertara goazen, bidean edo lantokian egon daitezkeen arriskuak, nola joango garen...

Itzulitakoan, guztiaren balorazioa egingo dugu taldean.

Ez ahaztu argazkiak ateratzea, bukaeran egingo dugun lanbideen erakusketarako oso baliagarriak izando zaizkigu eta.

33. Erritmo-eskema

Helburu didaktikoak: II.15, III.31-33

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH


Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Erritmo-eskema barneratzeko, hasieratik gorputzarekin landuko dugu: ibilian goazen bitartean, oinekin erritmoa eramanez, eskuekin lurrian joz, eskuekin buruan joz, txaloka... Ondoren, haur bakoitzak gelako objekturen bat hartuz, txalapartariak bagina bezala egingo dugu.

–Paristik natorren abestia abestean, ez gara txalapartariak izan. Txalapartariak oholetan jotzen dute makila batzuen bidez. Ezagutzen al dituzue? Ea gai zareten haiek bezala erritmoa eramateko, olerkitxo hau esaten duzuen bitartean.



Klis klas, klis-klas, kolpa kolpa makilak.

Klis klas, klis-klas, kolpa kolpa makilak.

Klis klas, klis-klas, eskutan bi makilak,

Klis-klas, klis-klas, luzeak, biribilak.

34. Olerkia: Xelebrelandia

Helburu didaktikoak: II.15-III.1(H), III.12(H), III.15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Xelebrelandiako jende xelebreak
aldatu egin ditu lanbideak.
Ez al duzu ikusi
meza ematen igeltseroa?
Kalea garbitzen toreroa?
Eta pailazoarena egiten andereñoa?

Argazkiak ateratzen ari da aizkolaria,
haginak ateratzen futbolaria
eta futbolean dabil pilotaria.
Xelebre-xelebre Xelebrelandian
astoak autoetan dabiltza
eta pertsonak zaldian.

Joxan Ormazabal

Xelebrelandia olerkiko eskemari jarraituz, gure zerrendako lanbidekin antzeko esaldiak asmatuko ditugu.

35. Abestia: *Egur bat, egur bi*

Helburu didaktikoak: III.1(H)-15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 5. CDa, 45. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

EGUR BAT, EGUR BI

Egur bat, egur bi,
aroztegian nabil.
Zerrak zirrin-zirrin-zar,
mailuak tiki-tauka.
Egur zatiak negarrez.
Aroztegian nabil.

Buruan txapela,
txapel, txapel, txapela.
Soinean dut mantala,
mantal, mantal, mantala.
Ene aulkitxo, aulkitxo,
laster zaitut egingo.

Ez egin, ez egin,
aulkitxoa negarrik.
Niretzat bai zara zu,
zatoz, zatoz nirekin.
Ene aulkitxo, aulkitxo,
ixo, ixo txikitxo.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Iltze bat, iltze bi,
josi ditut lau aulki.
Lanean egin (e)zazu
jolastu nahi baduzu.
Hogeita bat, hogeita bi,
aroztegian nabil.

36. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: I.6, III.1(H)-2(H)-5(H)-8(H)-9(H)-12(H)-13(H)-14(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, MOTORRAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: HIZTEGI TXARTELAK

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Egurrarekin lan egiten duten bi lanbideren igarkizunak ditugu honako hauek:

Besoak gora,
besoak behera,
burdina badator
egurrean sartzera,
burdina badoa
indarra hartzera.

(aizkolaria)

Zirrin zarran,
zirrin zarran,
tiriki tauki,
tiriki tauki,
egunero egiten ditu
mahai bat
eta bi aulki.

(arotza)

Joxan Ormazabal

Hiztegi-txarteletan hainbat ogibideren irudiak eta izenak dituzue: dendaria, argiketaria, mekanikaria, igeltseroa, arrantzalea, garbitzailea, etxeoandrea... Txartelak haurren artean banatu, eta horiek deskribapenak eginez, igarkizunak sortuko dituzte. Irudietan azaltzen ez diren lanbideen igarkizunak asmatzera ere gonbidatuko ditugu.

Aurreko unitateetan bezala, froga txiki bat egin dezakezue, irudirik gabe izen idatzia duen txartela bakarrik emanaz, ea arrastoen bidez zer jartzen duen asmatzeko gai den inor, eta baita ondoren horren igarkizuna osatzeko ere. Igarkizunak mimikaz ere adieraz ditzakete, lanbideen mugimenduak imitatuz.

37. Gurasoentzako gutuna

Helburu didaktikoak: II.4, III.8(H)-9(H)
 Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
 Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
 Jarduera mota: APLIKAZIOA
 Taldekatzea: TH
 Materiala: ----
 Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Berriro ere gurasoengana joko dugu laguntza eske. Bertan eskatuko diegu lagun diezaietela haurrei lanbideei buruzko fitxa bat osatzen, eta, horretaz gain, gutun labur bat idatz dezatela beren lanbideari buruzko azalpen labur batzuk emanaz.

Ene laguntzaile zintzo eta jatorrak:

Berriz ere zuengana zuzentzea erabaki dut laguntza eske. Zer egin behar duzuen oraingo honetan? Oso-osoa erraza!

Gelan lanbideen gaia lantzen ari gara, eta zuen seme-alabak fitxa bat eramango du etxera zuekin batera elkarrekin egiteko; behin osatuta, gelara ekarriko du bueltan. Fitxan zuen lanbidea zein den adierazi behar duzue. Ahal balitz, argazki bat itsatsi (zuen argazki bat lanean, ahal bada), edo bestela, marrazki baten bidez adierazi. Azpian, zuen lanbidearen izena idazten lagunduko diozue haurrari.

Zuen lanbidea zertan datzan argituko diozue haurrari, eta animatuko bazinate, idatzi eskutitz labur bat, lauzpabost lerrokoa, zuen lanbidean zer egiten duzuen azalduz. Ondoren, gelan irakurriko dugu, haur guztien aurrean. Lerro gutxi batzuk nahikoak dira!

Aldez aurretik, mila esker zuen laguntzagatik eta... laster arte!

Hezitzailea

38. Haurren ipuin kontaketa: *Ni ere handia naiz*

Helburu didaktikoak: I.13, II.14, III.1(H)-12(H)
 Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, ADIERAZPENA
 Gaitasun motak: KOGNITIBOAK, MOTORRAK, GIZARTERATZEKOAK
 Jarduera mota: MOTIBAZIOA, APLIKAZIOA
 Taldekatzea: Banaka
 Materiala: ----
 Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Gurasoen lanbideak ezagutzen ari gara. Horretarako, gurasoekin lantxo bat egingo duzue.

–Gogoratzen al dituzue Peruren gurasoen lanbideak?

–Zuen amak, aitak edo ezagunen batek lanbide bera al du?

Haurren ipuin-kontaketa egiteko, antzezipen kolektiboan erabiltzen den testua eta espazioa erabili behar dira (ipuin dramatizatua hiru aldiz egin ondoren).

- Haurrak hezitzailearen aurrean kokatu.
- Isiltasuna lortu (haurrek ikasturtearen hasieran egindako txartelez balia gaitzeko isiltasuna lortzeko).

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- Isiltasuna lortu (jarduera martxan jartzeko).
- Haurren arreta erakarri.
- Ipuinaren pertsonaiak eta nondik norakoak gogoratu.

Ipuinaren laminak lehenengo aldiz erakusten zaizkienean, jakin-min handia sortzen dute haurrengan; hori dela eta, haiekin adostu beharko dira jardueraren “arauak”.

Lehenengo lamina erakustean, tartetxo bat utzi, haurrek begira dezaten. Hezitzaileak esango die ipuina kontatzeko laguntza behar duela: *Gogoratzen duzue ipuina?, Lagunduko didazue ipuina kontatzen?*

Hezitzaileak narratzailearen zeregina zein den azalduko du, eta haurrek parte hartzen badute, narratzailearena beraiek egiten badute, hobe.

Pertsonaien arteko elkarrizketak agertzen direnean, aurrea hartzen utziko diegu haurrei, gogoratu haur guztiek parte hartzea lortu nahi dugula. Ez da nahikoa bakar batzuek parte hartzea, denei eman behar diegu parte hartzeko denbora. Haurrek esaten dituzten esaldiak hitzez hitzekoak ez badira ere, onartuko ditugu, osatu eta ipuinean txertatu.

HEZITZAILEAREN EGINKIZUNA

Laminekin haurren ipuin-kontakteta egitean, komeni da eskuarekin adieraztea zein pertsonaia ari den hizketan. Horrek kontaktetaren hariari jarraitzen lagunduko die.

- Giro goxoa sortu.
- Denen parte-hartzea bultzatu.
- Moderatzaile-lana egin (arauak betetzeko).
- Ipuina kontatzean, atzean gelditzen direnei denbora utzi.
- Ipuina kontatzeko, antzeppen kolektiboan ikasitako esaldiak eta ipuinen laminak erabil ditzatela eskatu.
- Arreta mantentzeko estrategiak erabili: tonu-aldaketak, haur bati zuzentzaile-lana egin dezala eskatu...

39. Gurasoen lanbidea

Helburu didaktikoak: II.6, III.1(H)-15(H)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 5. CDa, 42. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

LANBIDEAK

Goizero-goizero,
urtero-urtero,
gurasoek lana dute
egunero.

Oheak egiten
edo komuna garbitzen,

jantziak prestatzen
edo esnea berotzen.

Goizero-goizero...

Txis-pun txinparta artean
kableak elkartzen,
entxufe eta bonbilla,
bazterrak argitzen.

Goizero-goizero...

Dendako janari denak
txukun-txukun jartzen,
sagarra eta intxaurreak
merke-merke saltzen.

Goizero-goizero...

Tok-tok tailerrean,
tok-tok autoak konpontzen.
Tok-tok burdinolan
labeko sua indartzen.

40. Nire gurasoen lanbideak

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-6-8

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, ULERMENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 7. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gutunean gurasoei azaldu genien bezala, fitxa hau etxean egiteko pentsatuta dago. Beraz, jadanik haur guztiek jakingo dute etxera eraman behar dutela, beren gurasoekin egiteko, eta ondoren, berriro, gelara itzuli behar dutela.

Fitxa hau ere gure lanbideen erakusketan erabili dezakegu. Lanbideen erakusketarako, lanbide batzuei buruzko informazioa eta tresneria eskuratuko ditugu ikastolan, gure kabuz. Beste batzuen tresneriak eta informazioa eskuratzeko, fitxa honetako informazioaz baliatuko gara; lanbideren bat interesgarria iruditzen bazaigu, guraso horiekin harremanean jarri eta haien lanbideari buruzko informazio gehiago eta lan-tresnak eskatuko dizkiegu

BUKAERA

41. Gurasoen lanbideak aztertzen

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-5-6-8, III.8(H)-9(H)-11(H)-16(H)-20(PLAS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 7. FITXA, OSATUTA


Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Biribilean eserita, gurasoekin batera egindako lanak irakurriko ditugu. Beren gurasoen lanbideaz zer ikasi duten galdetuko diegu, eta haien lan-tresnak lortu baditugu, Txoko txurian gordeko ditugu; lanbideen erakusketan ere erabil ditzakegu. Gurasoek idatzitako eskutitzekin aldizkari bat osa dezakegu, gure gelako liburutegian uzteko.

Aldizkaria egitea erabakitzen badugu, beti bezala, haren formatua eztabaidatuko dugu haurrekin, azala, zer material sartu (haurren fitxak, gutunak...)...

Jarduera honen bidez, gurasoen lanbideen sailkapenak, konparazioak... egin ditzakegu. Oso garrantzitsua da gure aldetik lanbide guztiak berdin baloratzea konparaketak egiterakoan. Lan guztien aportazio soziala eta garrantzia baloratu behar ditugu haurrek ez dezaten diskriminaziorik senti eta beren gurasoen ogibidea edo lanbidea balora dezaten.



Aitona-amonen lanbideak

HASIERA

Sekuentzia didaktikoari hasiera emateko, *Ni handia naiz* ipuinean ageri diren pertsonaien lanbideak gogoratuko ditugu; bereziki aitonaren zeregina, eta ematen diren aitonari buruzko zehaztasunak hartuko dugu kontuan. Horrek bide emango digu aitona-amonen inguruko hausnarketa egiteko: gurasoak baino zaharragoak direla, batzuek lanean jarduten dutela, baina beste batzuek ez, jubilatuta daudela esaten dela...

42. Ipuineko pertsonaien lanbideak

Helburu didaktikoak: III.7(H)-8(H)-9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: 8. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Ni handia naiz ipuinaren bitartez zenbait lanbieren berri izan dugu. Horien izenak gogoratu, eta fitxan idazteko ahalegina eskatuko diegu haurrei. Gure erakusketan ere lanbide horietako bat ager daiteke.

GARAPENA

43. Gutuna: aitona-amonentzako gonbitea

Helburu didaktikoak: II.4, III.8(H)-III.9(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gutun bat bidaliko diegu gurasoei, azalduz etxeko aitona-amonen lanbideak ere ezagutu nahi ditugula. Oraingo honetan ez dugu fitxa bat bidaliko; gonbite bat bidaliko diegu aitona-amonei, gure gelara etor daitezen, izan duten edo daukaten lanbideaz hitz egitera. Oso jarduera interesgarria eta garrantzitsua delakoan gaude.

Guraso maiteak:

Gaur ez dizuet zuei laguntza eskatzeko idazten, zuen amarena eta aitarena baizik.

Bai, ondo ulertu duzue. Badakizue lanbidei buruz ari garela lanean, ezagutu ditugu zuen lanbideak (mila esker laguntzagatik)... baina ez dugu horrekin nahikoa, gehiago nahi dugu: aitona-amonen lanbideak ere ezagutu nahi ditugu. Horretarako, zera proposatzen dizuegu: amonari eta aitonari eskatzea, mesedez, izan duten edo oraindik duten lanbidearen argazkia ematea edo haren marrazkia egitea, haurrak gelara ekar dezan.

Baina gure proposamena haratago doa: animatuko balira, oso gustura hartuko genuke aitona-amonen bisita gure gelara eta heuren lanari buruz hitz egitea haurrei.

Animatu aitona-amonak! Oso interesgarria da guretzat haien esperientzia!

Mila esker!

Txirritx

44. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: II.4, III.8(H)-9(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Hainbat igarkizun dituzue jarraian, guztiak lanbideei buruzkoak. Zuen gelan atera direnak erabil ditzakezue.

a, e, i, o, u
guri emakume batek
irakurtzen eta idazten
erakusten digu.
(andereñoa)

Ez da dendaria,
ez da dantzaria,
eta berak egunero
prestatzen ditu
gosaria, afaria
eta bazkaria.
(sukaldaria)

Eskuak zikindu,
autoak konpondu.
Hori egiten duenak
zer lanbide du?
(mekanikaria)

Nor da nor,
kaleetan ibiltzen den
autoen artzaina?
(udaltzaina)

Ez da igel eroa,
ez da eltze eroa.
Zer da?
(igeltseroa)

Aurretik egin izan dugun bezala, beste lanbide batzuei buruzko igarkizunak asmatzen jarrai dezakegu, haurrek horrela nahiko balute (bai hitzez, bai gorputz adierazpenez egin litezke).

Igarkizun polit bat sortzen baduzue, jaso, eta GURE OLERKI ETA IGARKIZUNEN BILDUMAN gorde dezakegu (*Txirritx* CD-ROMean ere badituzue gai bakoitzeko lau olerki/igarkizun, dagozkien irudiekin, inprimatzeko moduan).

45. Jolaserako abestia: *Sardinak saltzen*

Helburu didaktikoak: I.8-9-10-13-15, II.4-5, III.1(H)-15(H)-30(MUS)-31(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: 5. CDa, 39. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Jolas hau egiteko, haur guztiek bi lerrotan eseri behar dute, bien artean pasaleku bat utziz. Erditik sardina-saltzailea ibiliko da aurrera eta atzera saltoka eta dantzan, abestiarekin batera, buruan sardina-saski bat eramaten duela antzetzuz. Abestiak dioenari jarraituz, haurrak txandakatuz joango dira.

–Ikusi ditugun lanbideen artean arrain-saltzailearena aipatu dugu (edo ez!). Non saltzen ditu arrain-saltzaileak arrainak? Hori da, arrandegian!

–Orain dela urte batzuk, sardina-saltzaileak kalez kale ibiltzen ziren sardinak saltzen. Oraindik ere zenbait tokitan ikus daitezke, ez ibilian, lehen bezala, baina bai kalean (legez kanpokoa bada ere). Zuek ez duzue hori ezagutu, ezta? (Baliteke zenbait herritan bai ikusi izatea.) Jakina, hori gure aitona-amonek bakarrik ezagutu dute.

–Jolastuko al dugu sardina-saltzaileak bagina bezala?

SARDINAK SALTZEN

Kaian nabil sardinak saltzen,
saskia buru gainean dudala.
Kaian nabil sardinak saltzen,
erosi nahi badituzu.

Goazen biok elkarrekin dantzara.
Lara, lara, lara, lara.
Orain hartzazu saskia zuretzat.
Lara, lara, lara, lara.
Eta ni banoa.

46. Abestia: *Zapataria*

Helburu didaktikoak: I.5, II.3-4-5-6-8-15, III.1(H)-15(H)-16(H)-31(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA, ADIERAZPENA
Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt
Materiala: 5. CDa, 44. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Gure aitona-amonak txikiak zirenean, herriko zapatariek animalien larrua lantzen zuten, oinetakoen egiturak prestatzen zituzten zapatak egiteko eta puskatzen zirenean konpontzeko...

3. ZEHAZTAPEN MAILA

–Gaur egun non erosten ditugu guk zapatak? Herriko zapatariak egiten al ditu?...

–Eta zer egiten dugu puskatzen zaizkigun zapatekin, arrokekin edo jostailuekin?

–Zer egin beharko genuke, zuen ustez, gauzak konpon daitezkenean: zakarretara bota ala konpondu?

Konponketaren eta birziklatzearen inguruan jarduteko aukera eskaintzen digu zapatariaren lanbideak. Birziklatu aurretik, gauzak konpondu edota berrerabil daitezkeela suma dezaten saiatuko gara. Adibidez: ikastolan erabiltzen dugun papera, birziklatzera bota aurretik, berrerabil dezakegu zirriborroak egiteko, txartel txikiak mozteko, plastikako hainbat lan egiteko... (horrela, zuhaitz gutxiago moztu beharko dira!). Txiki geratu zaigun arropa, traputarako baztertu aurretik, baliagarria izan daiteke gu baino txikiagoak diren lagunentzat, anai-arrebentzat edo lehengusuentzat... Beharrean dagoen jendeari, edo herri pobreetara ere bidal dezakegu. Beste hainbeste egin daiteke gure jostailuekin.

Aitona-amonek ez badigute dagoeneko azaldu, jakinarazi beharko zaie haurrei garai batean askoz gauza gutxiagorekin bizi zirela, oso ondo zaindu behar izaten dituztela beren gauzak eta arropak (josi, konpondu, zapatariari eraman...), eta bizitza osoan irauten zutela, edo horretan saiatzen zirela, behintzat. Lehengo eta oraingo egoerak alderatuko ditugu, eta haurren iritziak eskatuko ditugu.

Jantziak direla eta, bizirik dirau oraindik arropak batak besteari pasatzeko ohiturak, txiki geratzen direnean. Horri buruz ere hitz egin daiteke.

–Orain ikasi behar dugun abestiak garai hartako zapatari baten historia kontatzen digu. Entzun ondo, ikasi abestia eta... denok jolastera!

ZAPATARIA

Zapa, zapa, zapatalari,
ene Joxe Mari,
zapata konpontzen ari da
kolpeka kantari.

Joxe Mari zapatalari,
kantari alaia,
esku batean mailua du,
bestean porroia.

*Kolpe, kolpe, kolpeka,
josi eta josi, josi eta josi,
kolpe, kolpe, kolpeka,
josi eta josi bi zapatak.*

Haria, hartu argizaria,
orratzean, zazt!
Korapilo bat.

Kolpe, kolpe, kolpeka...

47. Aitona-amonei elkarrizketa

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-5-6-8-9, III.1(H)-2(H)-3(H)-4(H)-5(H)-6(H)-7(H)-8(H)-9(H)-10(H)-11(H)-13(H)-15(H)-16(H)-20(PLAS)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: GUZTIAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA, ESPERIMENTAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

- **Aurrezagutzak aktibatu.** Sardina-saltzailearen lanbideari helduz, lehen arruntak ziren lanbideak eta gaur egun desagertzeaz direnak aztertuko ditugu. Horretan laguntzeko, zein hobekak aitona-amonak baino! Gainera gogora dezagun erakusketa bat antolatu nahi dugula eta hartarako gure aitona-amonen lanbideak ezagutzea asko interesatzen zaigula.

Lehen elkarrizketan egindako zerrenda berriz ere atera, eta aipatutako lanbideak gogoratu.

- **Planifikazioa.** Aitona-amona batzuk gelara gonbidatu ditugu beren garaiko lanbideez hitz egitera, hortaz, zer galdetuko diegun aztertu behar dugu: elkarrizketa prestatuko dugu.

Nahi izanez gero, elkarrizketa-testuaren funtzioa eta ezaugarriak lan ditzakegu: *Zertarako egiten dira?, nori?, nola? Nork egiten ditu? Zer galdetzen dute? Elkarrizketak ipuinak bezala hasten al dira? Olerkiak bezala? Zer ezaugarri dituzte? Non aurki ditzakegu elkarrizketak? Telebistan, aldizkarietan, egunkarietan...*

Ondo legoke eskuratzea hurrek ezagutzen dituzten pertsonaiei egindako elkarrizketak. Horretarako egokiak dira, ohiko prentsez gain, ikastolako aldizkariak edo zenbait herritan argitaratzen diren aldizkariak, haurren inguruko pertsona ezagunak ateratzen baitira.

Elkarrizketa aurretik programatutakoa izan daitekeela, edo elkarrizketaren hariari jarraituz sortutakoa. Pentsatu zer izango den egokiena aitona-amonak gelara ekartzen badituzue (edota jubilatuen egoitza batera joaten bazarete, adibidez), eta eztabaidatu hurrekin. Seguraski, egokiena aldeztu aurretik hainbat galdera prestatzea izango da: nor izango den galdera egilea, elkarrizketa grabatu nahi duzuen, filmatu nahi duzuen...

Planifikazio, horrek, hala ere, ez lituzke baldintzatu behar mementoan eta elkarrizketaren giroan sor litezkeen galderak eta bat-bateko iruzkinak.

Galdera-erantzunen eskema landu ondoren has gaitezke aitona-amonei egin nahi dizkiegun galderak idazten.

- **Testualizazioa.** Hainbat eta hainbat fitxatan Txirritxek bere aginduak, aholkuak, proposamenak... globoetan adierazten ditu. Galdera-erantzunen jolasan sartu garenez, hemendik aurrera (lehenago hasi bazarete, primeran) aztertu egingo ditugu globo horietan aurkitzen ditugun ikurrak (galdera- eta harridura-ikurrak) eta bestelako ezaugarriak.

Bestalde, komeni da aitona-amonekin aurretik hitz egitea haurren aurrean egingo den jardueraren nondik-norakoak zehazteko; horretarako, elkarrizketaren gidoia

3. ZEHAZTAPEN MAILA

osatuta badago, hobe, gehiago zentratuko baituzue topaketa. Aitona-amonei adierazi behar zaie haur txikiak direla, eta pazientzia ez dela beren ezaugarririk nabarmenena, labor egin behar dela, alegia. Aukera ikusten baduzue, eska dakieke herriaren bilakaeraren berri eman dezakeen informazioa eman dezatela labor-labor: non zegoen kokatuta halako lantegia, tailerra, baserria... Zer dagoen orain haren lekuan, zenbateraino hazi den herria...

Aurreko jarduera batean zapatariaren abestia ikasi dugunez, beste gauzen artean, beren garaiko zapatariek zer eta nola egiten zuten lan galdetuko diegu.

Eta, amaitzeko, elkarrizketagatik eta informazioagatik eskerrak emateko, presta ezazue opari moduan eskain dakieken zerbait: abesti bat, olerki bat, marrazki-album bat, goxoren bat, lore sorta bat...

BUKAERA

48. Aitona-amonen bisita

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-5-6-8, III.1(H)-2(H)-5(H)-6(H)-7(H)-8(H)-9(H)-10(H)-11(H)-13(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, NORTASUNA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK, AFEKTIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/B

Materiala: 9. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Idatzi aurretik. Bisita bukatu ondoren, aitona-amonen bisitari buruzko fitxa beteko dugu. Fitxa horretan bisitan egondako amona edo aitona bati buruzko informazioa jasoko dugu.

Fitxa banatu aurretik, komeni da horren helburua zein den eta hutsuneak nola bete behar diren argitzea.

‘Izena’ jartzen duen tokian aukeratu dugun aitona/amonaren izena idatziko dugu. Izena idazteko zailtasunak badauzkate, gelako erreferentzietan laguntza nola eskatu azalduko dugu.

‘Lanbidea’ jartzen duen tokian, aukeratu dugun aitona/amonaren lanbidea idatziko dugu.

Bukatzeko, ‘Gustatu al zaizu aitona-amonen bisita?’ galderari erantzungo diote; BAI edo EZ ez erantzungo dute, hezitzaileak zergatia galdetuko die eta fitxan bertan idatziko dute.



Lanbideen erakusketa

Jadanik lanbide pila bat ezagutzen ditugu: gurasoenak, aitona-amonenak, ipuinean agertu direnak, bai eta bidean ikasitako beste batzuk ere. Orain, gure erakusketa antolatzeko, erabakiak hartzen hasi beharko dugu, erakusketarako ideiak.

Zerrendatutako lanbideak berrikusi, eta erakusketan azaltzeko erraztenak direnak aukera ditzakezue hurrekin batera. Ondoren proposatuko dugun irtenaldian lanbide horiei buruzko argazkiak eta tresneriak lortzeko saiakera egingo dugu. Hori dena zeharka aipatu daiteke elkarrizketan; inportantea litzateke haurren rekarpenak kontuan hartzea.

49. Elkarrizketa

Helburu didaktikoak: I.9, II.1-10-11-12-15, III.2(H)-5(H)-13(H)-16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: MOTIBAZIOA, ARAKETA

Taldekatzea: TH

Materiala: ----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

Elkarrizketa honen helburua gure erakusketa nola antolatuko dugun hurrekin batera argitzea da.

JARDUERAREN PLANIFIKAZIOA

Elkarrizketa planifikatzerakoan, honako oinarritzko elementu hauek izango ditugu kontuan:

1. Haur guztien parte-hartzea lortu.
2. Elkarrizketa egiteko espazioa eroso eta komunikazio bultzatzen duena izan behar da: HARRERA TXOKOA.
3. Jarduera egiteko denbora aurreikusi.
4. Galderen tipologia ondo pentsatu.
 - Galdera irekiak, baina haurren hizkuntza-kompetentzietara egokituak.
 - Pentsarazten duten galderak.

HEZITZAILEAK BERE ESKU-HARTZEA BERRAZTERTUKO DU

Haurren interesak

- Haurren ezagutzatik abiatu zara?
- Denbora eman diezu hurrei pentsatzeko?

3. ZEHAZTAPEN MAILA

- Haurren esperientzien kontaketa bultzatu duzu jardueraren bitartez?
- Haurren interesak lehenetsi dituzu?

Erronka kognitiboak

- Galderak errebotatzen dituzu edo erantzuna ematen duzu?
- Hipotesiak, arrazoibideak egiteko, iritziak emateko aukera eskaintzen duzu?
- Jardueraren amaieran, azaldutako ideiak laburbiltzen eta biribiltzen dituzu?

50. Kirolarien lanbidea

Helburu didaktikoak: II.6, III.16(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Kirola lanbidea den ala ez eztabaidatzeko aukera emango diegu haurrei, eta, horretarako, elkarrizketa bideratuko dugu.

–Zuek futboleant, eta pilotan, eta korrika... ibiltzen zarete kirolariak bezala. Baina kirola egitea lanbidea dela uste al duzue? Zergatik?

–Zer egiten dute futbolariak egunero-egunero? Eta igerilariak? Eta txirrindulariak?...

–Zer uste duzue dela gogorragoa, lan egitea, ala kirola egitea?

51. Igarkizuna

Helburu didaktikoak: III.1(H)-2(H)-(H)-13(H)-15(H)

Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA, ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH/Tt/B

Materiala: -----

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Egunkarietan kirolari askoren argazkiak aurkitu dituzue, ezta? Futbolariak, txirrindulariak, saskibaloiko jokalariek...

–Ea orain asmatzen duzuen zer kirolari den igarkizun honetan agertzen dena! Entzun ondo igarkizuna, eta ea zeinek asmatzen duen!

Pareta aurrean,
pareta atzean,
pareta ezkerrean.
Jendea oihuka, txistuka,
jendea txaloka,
pilota saltoka,

lau gizon izerditan,
lau gizon korrika.
(pilotariak)

52. Pilotan pilotaria

Helburu didaktikoak: I.15, III.1(H)-158H)-30(MUS)-32(MUS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala: 5. CDa, 43. ABESTIA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PILOTAN PILOTARIA

Bat, bi, hiru, ia!
Pilotan pilotaria.
Bat, bi, hiru, ia!
Hori duk hori sasoia!

Bote-boteka pilota leku batean
Bote-boteka pilota leku denetan

53. Artelana: Zoru leuntzaileak

Helburu didaktikoak: III.43(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK
Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA
Taldekatzea: TH/Tt/B
Materiala: 10. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Koadro honen behaketan, badago garrantzizko elementu bat: argia (ikustarazi non dagoen argitasunik handiena eta zergatik ote den galdetu). Gaiarekin lotuta, ogibide honi buruz ere hitz egin dezakegu; gaur egun zorua horrela leuntzen ote den, ea inork badakien... Koadroa gustatu al zaien ala ez galdetu, ondo margotuta ote dagoen, zergatik...

Honezkero, baditugu sei artelan gure bilduman: eskulturak eta margo-lanak, euskal artistenak eta kanpokoan, bizi diren eta bizi ez diren artistenak, garaikideak eta lehenagokoak... Haurrekin batera bilduma aberastu baduzue askoz hobeto. Guztiak elkarren ondoan jarrita, hitz egin artelan horiei buruz, aukeratu gustukoak, konparatu elkarren artean (utzi haurrei irizpideak ematen).

Aurretik azaldu izan dugun bezala, biografiak (egokituta ala ez) eta, ahal bada, artistaren argazkiak, atzealdean itsatsiko ditugu, eta, plastifikatuta, haurren eskura utzi.

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Caillebotte, Gustave. Pintore inpresionista frantsesa (Paris, 1848-1894). Enkoadratzeak, lehen planoak, argikontrak eta argazkiaren ikuspegia ematea ziren bere koadroen ezaugarri nagusiak. 1876ko inpresionisten erakustaldian parte hartu zuen; zortzi mihise aurkeztu zituen, guztietan aipagarriena *Zoru leuntzaileak* koadroa zen. Hainbat pintore inpresionistaren mezenas izan zen (Monet, Manet, Cézanne, Renoir...); beroriei koadroak erosiz bilduma inpresionista handia osatu zuen, eta gero Frantziako agintarien esku utzi zuen bertako museorik garrantzitsuenean erakusgai jar zitzaten.

54. Zer ari da gertatzen hemen?

Helburu didaktikoak: I.5, II.4-II.5, III.6(H)

Etengabeko ebaluazioa: NORTASUNA, PROBLEMEN EBAZPENEA

Gaitasun motak: AFEKTIBOAK, GIZARTERATZEKOAK, KOMUNIKATIBOAK, KOGNITIBOAK

Jarduera mota: ESPERIMENTAZIOA, APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 11. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gure zerrrendan ez badugu dagoeneko sartu, hor dugu beste lanbide bat kontuan hartu beharrekoa, dendariarena. Irtenaldia egitean litxarrerien dendaren bat ikusteko aukera izango dugu, kanpoaldetik bada ere. Fitxa honetan ageri zaigun goera nahiko hurbila egingo zaiela iruditzen zaigu.

Hitzez adierazi

- Irudiak behatu eta ahal dugun guztia hitzez adierazi.
- Ikusten dena deskribatu, arazoa identifikatu, hipotesiak formulatu, ondorioak atera.
- Izenburua proposatu, ahal dela ideia nagusira hurbilduz.

Printzipioa formulatu

- Zer ikas dezakegu hemendik? Denda batera joaten garenean, txanda gordetzen badugu lasaiago eros dezakegula.

Printzipioa orokortu

- Aplikazio hau bera bilatu beste testuinguru batean. Non gehiago gerta dakiguke horrelako zerbait? (Txanda errespetatzen ez duten pertsonak, bultzaka ibiltzen direnak, guztia beretzat hartzen dutenak...).

Dramatizatu

- Fitxan ageri den lehen egoera dramatizatu.

55. Zer gara gu?

Helburu didaktikoak: I.6-12-13, III.14(H)-32(MUS)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENEA

Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 5. CDa, 41. ABESTIA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

–Dagoeneko lanbide asko ezagutzen ditugu: igeltseroak, futbolariak, pintoreak, bulegariak, dendariak... Uf, pila bat!

–Orain, abesti polit bat entzungo dugu, eta jolastu egingo dugu harekin. Oso erraza da! Abestia bukatzen denean, zuetako batek lanbide bat adierazi behar du mimika eginez, hitzik egin gabe, eta besteok asmatu egin behar dugu zer lanbide aukeratu duen.

–Ba al dakizue zer den mimikaz adieraztea? (Adibide bat ipin ezazue zeuek). Orain bai, ezta? Ba, denak jolastera!

DRINGILINDRON

Dringilindron makakafu,
altzalajaika, futa fu!
Nor zara zu, zer zara zu?
Jakin nahi dugu Patxiku.
Nor zara zu, zer zara zu?
Orain bertan esango dut!

56. Erakusketarako, gure lanbide gustukoena

Helburu didaktikoak: I.11-12, III.17(PLAS)-19(PLAS)-.20(PLAS)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA
Gaitasun motak: MOTORRAK, KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: B
Materiala: 12. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: ADIERAZPEN TXOKOA

PROZEDURA

Fitxa honetan marrazki libre bat egin behar dute, baina gaia geuk jarrita.

–Nola jantzi zaigu Txirritx? Margolari bihurtu zaigu. Zer uste duzue esaten ari zaigula?

–Fitxa honetan, zuen marrazki bat egin behar duzue, baina handiak egitean izan nahi duzuen lanbidean lanean. Beraz, ezer marrazten hasi aurretik, handiak izatean zer izan nahi duzuen pentsatu behar duzue!

Marrazkia bukatutakoan, "Handitzean ... izan nahi dut" esaldian, aukeratu duten lanbidea idatzi behar dute.

Artistek beren lanekin egiten duten bezala, erakusketan jar ditzakegu marrazki hauek, aukeratu ditugun beste lanbideen marrazkiekin batera. Marrazkien gainean guztion artean egindako kartel bat jarriko dugu, bertan, erakusketaren izenburua eta marrazkien egileen maila: HANDITZEN GARENEAN...

57. Irtenaldia auzoan zehar

Helburu didaktikoak: II.1-4-5-6-7-8-11, III.28(MAT)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA, NORTASUNA, ULERMENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, AFEKTIBOAK, GIZARTERATZETZKOAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH
Materiala: ----
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Gure erakusketa antolatzeko, auzoan zehar goizeko edo arratsaldeko irtenaldi bat proposatuko diegu haurrei. Hauexek dira irtenaldiaren helburuak:

Lehenengo helburua: kalean zehar goazenean, bertan ikusten ditugun lanbideez jabetzea eta pertsona batzuei beren lanbideei buruzko galdera batzuk egitea (udaltzainari, garbitzaileari, dendariari, mekanikariari...). Irtenaldian ikusitako lanbideetako batzuk gure erakusketan jarriko ditugunez, horiei buruzko ahalik eta informazio gehien eskuratzea.

Bigarren helburua: behatzen ari garen lanbidei buruzko informazioa jasotzeaz aparte, argazkiak eta, posible balitz, haren elementuak eskuratzea erakusketarako.

Hirugarren helburua: Irtenaldia egiten dugun guztietan bezala, aurrez zenbait gauza zehaztuko ditugu: egin behar dugun ibilbidea, bidean egon daitezkeen arriskuak, nola joan behar dugun... Itzulitakoan, guztiaren balorazioa egingo dugu taldean.

29. Irtenaldian ikusitako lanbideak

Helburu didaktikoak: I.11, III.13(H)
Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA
Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK, MOTORRAK
Jarduera mota: APLIKAZIOA
Taldekatzea: TH/B
Materiala: 13. FITXA
Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Irtenaldia egin ondoren, fitxa hau egingo dugu; haur bakoitzak zirkulu zurian "X" bat jarri adieraziko du zer lanbide ikusi dituen kalean. Hasi aurretik, irudi bakoitza identifikatu behar dute, eta behean idatzita dagoena irakurri.

BUKAERA

Gaian zehar ikusitako guztiarekin, gutxienez hiru atal bereiz ditzakegu gure erakusketan: gurasoen lanbideak, aitona-amonen lanbideak eta kalean ikusitako lanbideak.

Bildu duzuen materialaren arabera, erabaki dezakezue horma-irudiaren itxura emango diozuen ala mahaietan antolatuko duzuen materiala.

29. Gonbidapena

Helburu didaktikoak: I.1, III.6(H)-8(H)-9(H)-11(H)

Etengabeko ebaluazioa: ADIERAZPENA

Gaitasun motak: KOMUNIKATIBOAK

Jarduera mota: APLIKAZIOA

Taldekatzea: TH

Materiala: 14. FITXA

Jarduera egiteko espazioa: HARRERA TXOKOA

PROZEDURA

Haurrekin batera erabakiko dugu norentzako izango den gure erakusketa. Gure aldetik, gurasoak eta aitona-amonak konbidatzeko proposamena egiten dugu.

–Erakusketa antolatu dugu. Orain, nori erakutsi erabaki behar dugu. Zer iruditzen zaizue lagundu digutenei gonbidatzea? Gurasoei, aitona-amonei...

–Zer egin dezakegu haiak etortzea nahi dugula adierazteko? Gogoratzen duzue zer egin genuen zirkoa egin genuenean?

Horixe, gonbidapena bidaliko diegu!

3. ZEHAZTAPEN MAILA

Hiztegia

Gaiko hiztegia	Ipuineko hiztegia “Ni ere handia naiz!”
Dendaria	Peru (marraskia)
Mekanikaria	Sukaldaria
Argiketaria	Irakaslea
Igeltseroa	Medikua
Arrantzalea	Suhiltzaileen kamioia
Garbitzailea	Sutea
Etxekoandrea	Sukaldea
Suhiltzailea	Kaneloiak
Bulegaria	Tomate-potea
Baserritarra	Ordenagailua
Arotza	Inpresora
Lapurra	Termometroa
Ehiztaria	Lanabesak
Jostuna	Erloju zaharra

Ipuin gomendatuak

Jarraian, unitatean zehar lan daitezkeen zenbait ipuinen zerrenda aurkezten dugu. Ez dira derrigorrez kontatu beharrekoak, proposamen bat baino ez dira, gure eguneroko baliabideen osagarri.

- *Maitagarria zarelako*, Genechten, G. Ibaizabal
- *Sagu anderea*, José antonio López Parrreño, Kalandraka
- *Zazpi antxumeak*, Xose ballesteros, Kalandraka
- *De verdad que no podía*, Gabriela Keselman, Kókinos
- *Neu naiz indartsuena*, Mario Ramos, Ttarttalo
- *Ilargia edan zuen astoa*, Elkar